# Goienkaria

2007ko martxoaren 30a > Egubakoitza > VII. urtea > 282. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Gipuzkoarrago senti gaitezke orain, ildoa oreka lortzea izan delako"



**Koldo Azkoitia** Lurralde Antolaketarako diputatua > 09

**G2a** Haur eta gazteendako literatura > 43-44

**OÑATI** Arantzazurako autobus zerbitzu berezia domekatik aurrera > 33

**ESKORIATZA** Astelehenean inauguratuko dute partzuergoko haurreskola > 35

**ANTZUOLA** Sagastin biribilgunea egingo dute zirkulazioa errazteko > 36

**ZAHARREN EGOITZAK** > MCCK ETA ALDUNDIAK ARETXABALETAN EGOITZA EGITEKO HITZARMENA SINATU DUTE ASTEON

# Aretxabaletako egoitzak gureko 170 nagusiri emango die zerbitzu

**2009RAKO ZABALIK** Ibar osoari emango dio zerbitzu eta 2009ko urtarrilean zabaltzea espero dute MCCk eta Aldundiak

**AURREKONTUA** 10 milioikoa da eta Aldundiak bat hartuko du bere gain. Urteko bost milioiko sarrerak aurreikusi dituzte

**MCC** Hirugarren Adinekoendako zentroen sarea eratu nahi du MCCk; hamar urteren buruan hamar zentro irekiko dituzte > 05

## Kulturate-ren gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, Arrasateko kultura etxe berriaren 8 orriko berezia.




## Guztia prest Elgetan 'Intxortako Atea' eskultura inauguratzeko

Dagoeneko bere lekuan, Asentzion, dago *Intxortako Atea* –7,20 m-ko altuera– eskultura. Eguaztenean jarri zuten Juan Jose Aranguren artistaren lana eta apirilaren 19an inauguratuko dute, Intxortako frontea defendatu zuten gudari eta miliziarrei egingo zaien omenaldian.

Euzko Gudarostea defentsa lerroa egondako gunean kokatu dute eskultura. > 37



**ASENTZION** Elgetan, Asentziorako bidegurutzean jarri dute altzairuzko arte lana. GOIENKARIA

**BERGARA** > FERIAK

## Erramu Zapatuko feria, bihar

Erdigunean izango da, 09:30etik aurrera; ehun postu eta animaliatik gora egongo dira > 24

## Oñatiko orria 'Goienkaria'-n

Oraingo astetik aurrera, Oñatik bere orria izango du GOIENKARIAn, Herrien atalean, gainerako herriek bezala. Goienak eta Oñatiko Udalak lortutako lankidetza hitzarmenaren ondorioa da hori.

Bestalde, datorren astean eguaztenean argitaratuko dugu GOIENKARIA, Aste Santuko oporrak direla-eta.

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55

IKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR



**EKINTZAILEAK** > NEGOZIO-IDEIEN GAINEKO MINTEGIA EGIN DUTE

# "Mintegian negozio ideiak sortzeko tresnak eman ditugu, teknikak landu"

**ZORTZI LAGUN** Mankomunitateko Garapen Agentziak antolatutako mintegian ibarreko zortzi lagunek esku hartu dute

**ARIKETAK** Negozio-ideiak sortzeko teknikak landu dituzte, eta teknika bakoitzarekin hainbat ariketa egitea izan da helburua

**AUTO-ENPLEGUA** Gai horrekin lotuta, ekainerako auto-enplegu ikastaroa antolatu dute; Jaurlaritzan diru laguntzak eskatzeko beharrezkoa da



**KLASEAN** Erretratuan, ezkerretik eskumara Rosa, Jo

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Astelehenetik eguaztenera ibarreko zortzi lagun izan dira Mankomunitateko Garapen Agentziak antolatutako negozio-ideiak sortzearen gaineko mintegian. Mintegia eman duen Amaia Irizarrek azaldu digu helburua enpresa-ideia berriak sortzeko tresnak ematea izan dela: "Azken batean, guk ideiak sortzeko teknikak erakusten ditugu; *braimstorming* teknika ezaguna da, baina horrez gain landu ditugu *scamper*, berritzeko gida, sei txapelen teknika, aldameneko pentsamendua...". Mintegia zuzenduta dago enpresa-ideiaren bat dutenei edo, ideiarik ez izanda ere, auto-enpleguaren bidea jorratu gura dutenei. Hala, martitzen eguerdian sei txapelen teknika lantzen zebiltzala izan ginen eurekin klasean.

**AUTOBUS TURISTIKOA**

Ariketa horretan buru-belarri harrapatu ditugu mintegian dabiltzan Rosa, Josu, Oskar, Daniel, Naiara eta Ricardo –Mari Mar eta Natalia falta dira–. Debagoienean autobus turistiko batek izango lukeen arrakastaren gaineko azterketa egin dute, sei txapelen teknika erabilita: "Txapel zuriak proiektu hori abian jartzerako orduan esku artean izan behar ditugun datu objektiboak batzea eskatzen du; adibidez, Debagoienean turistendako zenbat puntu interesgarri dauden izango litzateke datu bat. Txano zuria alde batera utzi eta txano gorria jantziko dugu; orain, datu objektiboak eskuetan izanda, gure ideiak ze sentsazio ematen digun ikusiko dugu, eta sentsazio positiboa bada, aurrera jarraitu".

Txapel beltzak adierazten ditu proiektuak izan ditzakeen trabak: "Buruan daukagun egitasmoak izan ditzakeen oztopoak bilatzea da helburua. Hala, klasean aipatu dugu horrelako autobus batendako oztopoa izango litzatekeela neguan izaten dugun giro txarra, udan egoten diren zerbitzu eskasak, lo egiteko leku eskasia, inguru hau nahiko garestia dela... Txano horiarekin, berriz, egitasmoak funtziona dezan egon behar diren faktoreak aztertuko ditugu: udan jatetxeak eta bestelako zerbitzuak irekita egotea, behar den moduko promozio lana egitea, autobusak ibilbide erakargarria egitea".

Txapel berdearen ariketarekin jarraitu du Amaia Irizarrek: "Txapel berdeak gure egitasmoak izan ditzakeen beste erabilpen batzuk aztertzea eskatzen du: autobusa karaoke moduan erabiltzea, oroigarriak banatzea, Euskal Herritik zehar ere ibiltzea...

Eta txapel urdinarekin amaitu dute ariketa: "Ideia guztiak ordenatzea da egin beharreko azken lana. Eta, proiektua gauzatzeko egin beharko genituzkeen lanak zeintzuk diren ikustea, *planing* moduko bat egitea, azken batean".

**BIDERAGARRITASUN PLANA**

Ideien gaineko teknika horiek guztiak ezagututa, norbait animatuko da hurrengo pausoa ematera. Hala, Amaiak egitasmo batek arrakasta izateko aukeren gainean egin digu berba, bideragarritasun planak neurtzen du hori: "Iaz 130 kontsulta izan genituen, eta kontsultak era askotakoak izaten dira: iturgin jarduteko enpresa bat sortzeko, denda bat irekitzeko...".

Hori horrela, Mankomunitateak bideragarritasun plan hori egiteko laguntza eskaintzen du: "Plan hori ez dugu guk oso-osorik egiten, ekintzaileekin batera egiten dugu, eurek ere lan horretan parte hartu dezaten. Hala, eurek hartutako erabakiaren gainean aholkua ematen diegu, eta baita informazioa ere: egin beharreko tramiteak, diru-laguntzak...".

Gaur egun arrakasta handiena duten enpresen gainean galdetu diogu Irizarri: "Esango nuke zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek dutela arrakasta handiena: itzulpengintzako enpresak, webguneak eta bestelako diseinu lanetan ibiltzen direnak... Horrekin batera, ile apaindegiak, fisioterapia eta masaje zentroak...

Gai horrekin lotuta, jakin, Mankomunitateak ekainerako auto-enplegu ikastaroa antolatu duela.

> "Ideial sortzeko oso teknika ezaguna da 'Braimstorming', baina horrekin batera landu ditugu 'scamper', sei txapelen teknika, aldameneko pentsamendua..."

> "Bideragarritasun plana ez dugu guk oso-osorik egiten, ekintzaileekin batera egiten dugun lana da; eurek hartutako erabakiaren gainean aholkua ematen diegu"

MINTEGIAN ESKU HARTZEN DA



**Mari Mar Elices**
Arrasate

### "Delineatzailea naiz eta nire kabuz gurako nuke lan egin"

Orain momentuan langabezian nago, baina delineatzailea naiz eta lehenago edo geroago nire kabuz gurako nuke lan egiten hasi. Horregatik animatu nintzen mintegi horretan esku hartzera, eta oso ondo egon da. Sekula bururatuko ez litzaizkidakeen ideiak atera ditugu hemen, teknika diferenteak erabilita, eta gure artean oso giro ona egon da. Pentsa, badut lehenengo diseinua nori egin! (Barre).



**Naiara Gartzia**
Bergara

### "Gutako bakoitzak bestearen proiektuan ekarpenak egin ditu"

Azken batean, gutako bakoitza negozio-ideia batekin etorri da mintegira, eta hemen ikasi ditugun teknikak erabilita gauza gehiago egin ahal direla ikusi dugu. Gainera, gutako bakoitzak bestearen proiektuaren gainean ekarpenak egin ditu, eta aberasgarria izan da. Egia da ideia xelebre asko esan ditugula, baina horietatik hainbat gauza on atera ditugu. Esaten dutenez, horrelakoetan ateratzen dira ideia onenak.



osu, Amaia, Oskar, Daniel, Naiara eta Ricardo, martitzeneko klasean. XABIER URTZELAI

**Amaia Irizar** > Garapen Agentziako teknikaria

# "Esango nuke beharrak bultzatzen duela sortzaile eta ekintzaile izatera"

**X.U.** > ARRASATE

**Martxoan ospatu dute ekintzaileen nazioarteko eguna, eta Mankomunitatean data hori izan dute kontutan negozio-ideiak sortzearen gaineko mintegia antolatzeko. Mintegia eman duen Amaia Irizarrekin izan gara.**



X.U.

**Mintegiak Mankomunitateak aurreikusitako parte-hartzea izan du?**

Bai. Hasieran bederatzi lagunek eman zuten izena, eta zortzi etorri dira mintegira. Horrelako talde batendako prestatu dugu mintegia. Beste garapen agentzia batzuetan, adibidez, berbaldiak eta horrelakoak antolatu dituzte ekintzaileen eguna ospatzeko. Bilbon egin dute hori, adibidez. Hemen, berriz, mintegi hori antolatu dugu.

**Zer da mintegian landu duzuena?**

Mintegiaren helburua ideia berriak sortzeko teknikak ezagutzea izan da, teknikak ezagutzea eta lantzea. Hala, astelehenean eta martitzenean teknika horiekin ibili ginen lanean, hainbat ariketa eginez. Eguaztenerako, berriz, bakoitzak negozio-ideia bat ekarri behar zuen klasera, eta ordura arte landutako teknikak ideia horietan aplikatzea izan genuen helburu: ideia horrek ze merkatu izan ditzakeen, zelako bezeroak...

**Lehen aurreratu dugu ekintzaileen hilabetean antolatu duzuela mintegia. Debagoiena gune ekintzailea dela esango zenuke?**

Ezetz esango nuke. Hau da, orain dela urte batzuk inguru hau oso ekintzailea izan zen: kooperatibak sortu ziren, bestelako enpresak sortu zituzten... Hala, bi motibo edo arrazoi egoten dira ekintzailea izateko: pertsona horrek beharra izatea –lan falta–, edo zerbait ekiteko aukera garbia ikustea. Alde horretatik, jendea eroso bizi bada, lan faltarik ez badago, gaitzagoa izaten da leku horretan ekintzaileak egotea. Hori horrela, jakinekoa da eskualde honetan lanaren beharra nahiko asea dagoela, eta horregatik esaten dut ez garela horren ekintzaileak.

**Sormena eta berrikuntza zer den ere landu duzue mintegian.**

Bai, hala da. Azken batean, guztiok gara gauzak sortzeko gauza, baina beti ez dugu izaten sormena lantzeko aukera; hala, sormena lantzeko izaten ditugun oztopoak aztertu ditugu mintegian, eta baita oztopo horiek zelan gainditu ere.

Berrikuntzaren gainean esan, sortutako ideia berrietatik bat aukeratu eta ideia hori gauzatzen dugunean deitzen diogula berrikuntza.

BILTZAN EKINTZAILEEN IRITZIA



**Daniel Encabo**
Bergara

## "Taberna bat zabaldu gura dugu, eta hainbat ideia hartu ditugu"

Neskalagunak eta biok taberna bat zabaldu gura dugu Bergara aldean, hori da gurako genukeena, baina ez dago horretarako lokalik. Hala, taberna zabaltzerako orduan hainbat ideia hartzeko animatu ginen mintegian parte hartzera, eta egia esan, gauza asko gabiltza ikasten. Esango nuke, neurri batean hemen ikasten gabiltzan teknika eta bestelakoak gure negozioan aplika genitzakeela.



**Josu Errasti**
Arrasate

## "Akaso, aplikatzeko moduko ideia bat sor genezake hemen"

Negozio-ideiak sortzearen gaineko mintegia egingo zutela ikusterakoan, kuriositateagatik animatu egin nintzen. Hemen lantzen gabiltzan hainbat teknika lehendik ikasita dauzkat, baina gustura nabil, errepaso lana egiten. Gainera, nork daki, akaso aplikatzeko moduko ideia bat sor genezake. Mintegiari dagokionez, jende irekia dago hemen, parte hartzen duena, eta oso balorazio positiboa egiten dut.



FARMAZIAK > OSASUNA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

# Guardiako farmazien berri poltsikoko telefonoaren bitartez jasotzeko aukera

Batura enpresak eta Gipuzkoako Sendagaileen elkarteak abiarazi dute zerbitzu hori

SMS bitartez jasoko dugu Gipuzkoa osoko guardiako farmazien berri, plano, telefono zenbaki eta guzti



**POLTSIKOKOAK** Poltsikoko telefono gehienek ematen dute zerbitzua erabiltzeko aukera. AINTZANE IRIZAR

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Gipuzkoako Sendagaileen Elkarteak eta Batura eta Bluexare enpresek elkarlanean zerbitzu berria abiarazi dute: poltsikoko telefonoaren bitartez Gipuzkoa osoko guardiako farmazien berri zehatza jasotzeko aukera eskaintzen dute, hain zuzen ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta SPRIren (Industri Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatea) laguntza izan du proiektu horrek. Aipatzekoa da, gainera, Estatuan abiarazten den era horretako lehen zerbitzua dela Gipuzkoakoa. Aurrera begira, zerbitzua beste herrialde batzuetara ere zabalduko dela adierazi digu Baturako arduradun Gotzon Arzelus bergararrak.

**FARMA HITZA**

Informazioa lortzeko nahikoa izango da SMS bat bidaltzea 7505 zenbakira, *farma* hitzarekin. Hori egin eta berehala mezu bat jasoko dugu gure poltsikoko telefonoan, Gipuzkoa osoko farmazia guztien gidarekin. Internet bitartez jaitsi ahal izango dugu gida hori. Zerbitzua oso erabilerraza eta sinplea da. Mezuaren kostua izango da 90 zentimokoa (gehi BEZ).

Telefono zaharrenen kasuan, hilabeteko gida ekarri ahal izango dugu; telefono berrienetan, berriz, urte osokoa. Gainera, informazioa euskaraz edo gazteleraz jasotzeko aukera ere ematen du zerbitzuak. Egutegi baten bitartez, egunez egun eta herriz herri, gauez zein egunez, guardian ze farmazia dauden jakin ahal izango dugu gidari esker.

Behin gida telefonoan dugunean, hantxe gordeta geratuko zaigu. Horrela, aurrerantzean ez dugu berriro ordaindu beharrik izango, informazioa eguneratzea nahi ez badugu, behintzat.

**TELEFONO GEHIENENDAKO**

Zerbitzu hori erabili ahal izateko, beharrezkoa da Java hizkuntzaren euskarria izatea eta koloretako pantaila. Koloretako pantaila duten telefono gehienek (%90ek) dute Java hizkuntza. Kontuan hartu behar dugu gida deskargatu ahal izateko martxan eduki behar dugula GPRS sistema. Telefono konpainiek doan jartzen dute sistema hori.

**Gotzon Arzelus** > Baturako arduraduna

## "Turismoaren arloan ere badihardugu lanean"



GOIENKARIA

**A.I.** > BERGARA

**Gotzon Arzelus bergararra da Baturako arduraduna eta berak eman dizkigu proiektuaren xehetasunak.**

**Estatuko era horretako lehen zerbitzua da zuena.**

Hala da, bai. Geroago eta gehiago izango dira era honetako zerbitzuak eskaintzen hasiko diren erakunde eta enpresak. Izan ere, poltsikoko telefonoa komunikatzeko tresna hutsa izatetik, kontsultarako tresna izatera pasatu da.

**Zelatan garatu duzue proiektu hori?**

Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartekoek garbi ikusi zuten urrats hori eman behar zutela eta bidean topo egin dugu. Aurrerago, beste herrialde batzuetara ere zabalduko dugu zerbitzua. Baditugu harremanak sendagaigileen beste elkarte batzuekin. Turismoaren arloan ere badihardugu lanean, telefonoan jasotzeko gidak egiten, zer ikusi, non jan, museoen ordutegiak eta abar azalduz. Vigoko Udalarendako, esaterako, proposamen bat prestatzen dihardugu.



**MCC** > DIPUTAZIOAK ETA MCC/LKS-K HITZARMENA SINATU DUTE

# Adineko eta mendeko diren pertsonendako egoitza egingo du MCCk

Aretxabaletan egingo dute egoitza, baina, Debagoiena osoari emango dio zerbitzua; Gipuzkoako Diputazioaren laguntza izango du

**AINTZANE IRIZAR** > ARETXABALETA

Eguaztenean sinatu zuten hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundiak eta MCCk eta LKSk, adinekoendako eta mendekotasuna duten pertsonendako egoitza egiteko, Aretxabaletan, Egillior baserriaren azpiko aldean, Untzillarako bidean. 10 milioi euroko aurrekontua dauka; Aldundiak milioi bat jarriko du. Lanek hogei hilabete iraungo dute eta arduradunek espero dute egoitza zabaltzea 2009ko urtarrilean. Bestalde, urteko 5 milioi euroko dirusarrerak espero dituzte.

**170 LAGUNENDAKO TOKIA**

Proiektuaren arabera, 170 pertsonei emango die zerbitzua Aretxabaletako egoitzak. Aretxabaletan kokatuko den arren, Debagoiena osoko biztanleei zuzenduta egongo da. 170 lekuetatik 30ek izaera soziosanitarioa izatea da asmoa; hau da, aldi baterako izango dira, gehienez, urtebeterako. Laguntza soziala eta osasun laguntza behar dutenendako izango dira 30 leku horiek. Gainerako 140 lekuetatik erdiak (70 leku) Diputazioarekin hitzartutakoak izango dira. 70 horietatik 15 egongo dira Unitate Psikogeriatriko batean, dementzia, alzheimerra eta antzerakoak dituztenendako.

Gainerako 70 lekuetatik 20 aldi baterako egonaldietarako izango dira eta hauek ere izango dira Diputazioarekin hitzartutakoak. Larrialdi kasuetarako, ebakuntza ondorengo kasuetarako edota senitartekoek oporraldia hartzeko aukera izan dezaten pentsatuta daude 20 leku horiek. Azkeneko 50 lekuak pribatuak izango dira.

Bestalde, eguneko zentroa ere izango du egoitzak, 30 lagunendako lekuarekin. Aipatzekoa da, azkenik, guztiz martxan jartzen dutenean, 110 langilek jardungo dutela lanean egoitza berrian.

**MCC-REN PROIEKTU BERRIA**

MCCren asmoa da Hirugarren Adinekoendako zentroen sare bat eratzea. Aurreikuspenen arabera, hamar urteren barruan, hamar bat zentro zabalduko dituzte, bai Euskadin, bai Estatuko beste erkidego batzuetan ere. MCCko arduradunen esanetan, "negozio honetan sartzeko momentu egokia dela ikusi dugu, populazioaren demografia garapena ikusita". MCC barruan dagoen LKS Ingenieria Kooperatiba Elkartea egongo da proiektu horren oinarrian. Proiektu berri horretan sartzeko, MCCk badauka gutxieneko eskarmentua; izan ere, GSR kooperatibak (Gestion de Servicios Residenciales) bost urte daramatza lanean. LKS Ingenieria-ren barruan dago GSR eta gaur egun kudeatzen ditu, besteak beste, hirugarren adinekoendako bost egoitza, eguneko hiru zentro, etxezetxeko zerbitzuak eta hainbat babespeko etxebizitza. Debagoienean, Elgetako Eguneko Zentroa eta babespeko etxebizitzak kudeatzen ditu, baita Etxez-Etxeko zerbitzua eskaini ere.




**ERAIKINA** Argazkian ikus daitekeen itxura izango du eraikin berriak. MCC

**HEZKUNTZA** > ARIZMENDIREKIN PROIEKTUA SORTUKO DUTE

## Italiako Lorenzo Guetti institutuko kideak Debagoienean daude

Balio kooperatiboak lantzeko asmoz etorri dira Lorenzo Guetti institutuko kideak ibarrera, Arizmendi ikastolak gonbidatuta

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Italiako Trentoko Lorenzo Guetti institutua elkarlanean ari da Arizmendi ikastolarekin, kooperatibismoaren gainean. Horren harira, Severino Papaleoni eta Herminio Rizanzoli italiarrak Debagoienean dira egunotan.

Balio kooperatiboak ezagutzea, garatzea eta sakontzea ahalbideratuko duen proiektua sortzeko helburuarekin etorri dira. Horrekin, ikasturte honetara begira, zeharkako ikasgai bat planteatuko zaie Lorentzo Guetti institutuko irakasle eta ikasleei.

Horrez gain, Arizmendiko hezkuntza eta ibarreko errealitate sozio-ekonomikoa ezagutzko aukera ere izango dute italiarrek egunotan.



**AURKEZPENA** Elkartruke proiektua Aretxabaletan aurkeztu zuten. GOIENKARIA

etorlur
Gipuzkoako lurra

**BERGARAN KOKATUTAKO FORU SUSTAPENEKO 30 ETXEBIZITZA ESLEITZEKO ESKAKIZUNEN AURKEZPENERAKO EPEAREN IREKITZEA**

2007. martxoaren 7an , Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 47. alean, Bergarako San Antonio kaleko 7. zenbakian kokatutako Foru sustapeneko hogeita hamar (30) etxebizitza eta eratxikiak esleitzeko baldintza plegua plazaratu zen.

24 etxebizitza 1, 2, 3 eta 4. solairuetan eta 6 etxebizitza behe soliaruan kokatzen dira. Eraikuntza, mugikortasun murriztu iraunkorra kreditazen dutenentzat moldatuako etxebizitza batez (1), logela bakarreko etxebizitza batez (1), bi logelako hogei (20) eta duplex moduko hiru logelako zortzi (8) etxebizitzaz osatua dago, 25 itxi gabeko garaje eta 30 ganbaraz gain.

Prezioak 86.158 eta 189.882 bitartean kokatzen dira, B.E.Za kanpo.

Zozketan parte hartu ahal izateko betebeharrak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta esleipen prozedura, aipatu baldintza pleguan zehazten dira.

Eskakizunak aurkezteko epea datorren apirilaren 10ean bukatuko da.

**Informazio gehiago behar duenak, honako helbide eta telefonoetan du eskuragarri:**

**Etorlurreko informazio bulegoa**
**Jose María Sert Plaza 10**
**(Benta Berri) Donostia**
**Tfnoa: 943.24.85.50**
**e-mai: etorlur@gipuzkoa.net**
**www.etorlur.net**

**Bergarako Udaletxea**
**San Martin de Agirre Plaza 1**
**Tfnoa: 943.77.91.68**

**Suradesa Debagoieneko Mankomunitatea**
**Arrasate Pasealekua 5 behea**
**Arrasate**
**Tfnoa: 943.79.33.99**
**e-mail: suradesaelko@telefonica.net**

*Donostia, 2007ko martxoaren 30a*

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA** > BILBON ERAILDAKOA ETA ARRASATEN ERASOTAKOA GOGORATU ZITUZTEN

# Azken eguneko erasoak salatu zituzten eguaztenean Arrasaten

Ekimena Arrasateko Emakumeen aurkako biolentziaren kontrako plataformak deitu zuen

Ekaina aldean abian jarriko den kanpaina antolatzen ari direla jakinarazi zuten




**PROTESTA** Elkarretaratzea egin zuten eguazten iluntzean Arrasateko Herriko plazan. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

*Emakumeei erasorik ez* lelopean, elkarretaratzea egin zuten eguazten arratsaldean Arrasateko Herriko plazan. Protesta horren bitartez, joan den martxoaren 23an, Bilboko Zorrotza auzoan eraildako Pilar Sampeiroren heriotza salatu zen.

Horretaz gain, pasa den domekan Arrasaten bertan erasoa jasan zuen emakumea ere gogoan izan zuten elkarretaratzean parte hartu zutenek.

Arrasateko Emakumeen Aurkako Biolentziaren Kontrako plataformako kide Juan Iartza protestan izan zen. Han tratu txarren inguruko kanpaina berria antolatzen ari direla jakinarazi zuen.

**SAN JOANETAN ABIARAZIKO DUTE**

"San Joanetan kanpainari ekiteko asmoa dugu", adierazi zuen. Yarzak gaineratu zuenez, kanpainaren antolakuntzan gazteek parte hartze zuzena izan dezaten ahalegintzen ari da plataforma. Kanpainari buruzko informazio gehiago, hala ere, ez zuen eskaini, oraindik zehaztu barik dagoela argudiatuta.

Euskal Herrian emakume bat eraila den bakoitzean, elkarretaratzea egiten du plataformak Herriko plazan. Esandako gertakaria jazo eta gehienez, bi egunetara egiteko ardura hartu zuen duela hilabete batzuk.

Egun batzuetako atzerapenarekin egin bazen ere, plataformak ez zion konpromisoari huts egin. Protesta eguaztenean egin zen eta puntual hasi zen. Pankarta atzean, hogei bat lagun bildu ziren 19:00etan Herriko plazan. Denbora aurrera egin ahala, jende gehiago hurbiltzen joan zen.

Pilar Sampeiroren erailketa salatu zuten batetik. 76 urteko senarrak Sampeiro hil zuen, labankadaz, Bilboko Zorrotza auzoan biek zuten etxebizitzan. Andrea eraso egin ondoren, bere buruaz beste egiten saiatu zen gizonezkoa.

ESANAK

**"San Joanetan kanpainari ekiteko asmoa dugu. Gazteek antolakuntzan parte hartze zuzena izan dezaten nahi dugu"**

**Juan Iartza** > Plataformako kidea

**ARRASATEKO ERASOA**

Joan den domekan, Arrasaten jazo zen erasoa ere salatu zuten. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren arabera, 34 urteko gizonezkoa atxilotu zuen domeka gauean Ertzaintzak, emakumeen aurkako biolentziaren ustezko delitua egotzita.

Biktima bera izan zen Ertzaintzaren egoitzara bertaratu zena, senar ohiak eraso egin ziola esanez. Aurpegia eta lepoa gorrituta zeuzkan eta ospitalera lagundu zuten ertzainek.

Erasoa Arrasateko etxebizitza batean gertatu zen, emakumea bikotekide ohiarekin dituen seme-alaben bila joan zenean. Horren berri izan ostean, ertzainak gertakaria jazo zen etxebizitzara joan ziren. Han F.S.A. atxilotu egin zuten.

> LAGUN-ARO

### Gaur erabakiko dute osasun sistema berria ezartzen duten

Gaur, egubakoitza, egingo du batzar orokorra Lagun-Arok, Donostiako Kursaalen, 15:00etan. Hantxe erabakiko dute Errektore Kontseiluak proposatu eta onartutako osasun-laguntzaren sistema berria onartzen duten edo ez. 1.500 ordezkarik parte hartuko dute batzarrean. Hogei bazkideko ordezkari batek, hain zuzen ere.

Lagun-Aroko arduradunen esanetan, aurrez kooperatibetan egindako bozketen emaitzak ikusita, badirudi arazo handirik gabe onartuko dutela gaurko batzarrean osasun-laguntzaren sistema berria. Hala izatekotan, 2008ko urtarrilaren batean sartuko da indarrean.

> ELIZA

### Arantzazuko erromesaldia zapatuan izango da

*Igo gainera eta zabaldu begirada* lelopean, Arantzazuko erromesaldia egingo da bihar, zapatua. 09:30etan ekingo zaio ibilbideari Soraluze hotelaren paretik. Zortzi kilometro bete ondoren, eguerdi aldean Arantzazura iritsiko dira erromesak. Jarraian, otoitzaldi laburra izango da han.

08:30etatik aurrera, itxita egongo da Arantzazurako errepidea. Ahal den neurrian, autobusez igotzeko deia luzatu du Elizbarrutiak.

Ibilbidea irauten duen bitartean, otoitzak eta kantuak entzungo dira. Sebastian Lizaso bertsolaria ere erromesaldia girotzeaz arduratuko da. Bozgorailu zerbitzua eta komunak izango dira bidean. Gurutze Gorria ere han egongo da.

**PRESOAK** > ARRASATEKO ASKATASUNAK AGERRALDIA EGIN DU ASTEON SALAKETAK EGITEKO

## Arrasateko hainbat presok zigorrak eta jipoiak jaso dituztela salatu dute

Igor Letona presoa Nanterreko (Frantzia) espetxean funtzionarioek jipoitu egin dutela salatu du Askatasunak

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE

Hilabeteotan Arrasateko hainbat presok Espainia eta Frantziako espetxeetan zigorrak eta jipoiak jaso dituztela salatu du Arrasateko Askatasunak asteon egindako agerraldian.

Hantxe adierazi zutenez, Igor Letona jipoitu egin dute Nanterreko (Frantzia) espetxeko funtzionarioek. Biluzteko agindu zioten, berak ezetz erantzun zien eta ondorioz, jipoia eman zioten; horixe azaldu zuten Askatasunako ordezkariek.

**PRESOAK ZIGORTUTA**

Bestalde, zera salatu zuten: "Otsailean zehar Euskal Preso Politikoek euren eskubideen alde egin zuten borrokaldiagatik, zigorrak jaso dituzte Arrasateko preso hauek: Kepa Urrak, Premin San Pedrok, Jose Gabriel Urizarrek, Txus Goikoetxeak eta Luis Mari Azkargortak. Horrela, isolatu egin dituzte, pasioak ukatu dizkiete eta arazoak izan dituzte bisitetan".

Kristina Larrañagaren egoera ere hizpide izan zuten. Azaldu zutenez, aske laga dute, baina, bizi baldintza krudelak ezarri dizkiote: "Askainen bizi izatera behartu dute, dokumentu guztiak kendu dizkiote eta ez diote lagatzen preso daukan semea bisitatzen lagatzen".

Bukatzeko, eguaztenean zortzi lagun atxilotu zituztela jakinda, torturak jasan ditzaketela gogorarazi zuten prentsaurrekoan eta horixe salatu.

GINEKOLOGIA KONTSULTA BERRIA OÑATIN

J. Rodriguez Santos doktorea
**Ginekologoa**

Atzeko kalea 6, behea • OÑATI
Tel.: 943 78 24 89 (ordua eskatzeko)

Kontsulta egunak: ostiraletan
9.00etatik 13.00etara
Eta 15.00etatik 18.30era

Aseguruak:
Lagun Aro, Adeslas, Aegon, Mapfre, Winterthur, Foru Aldundia, Sanitas, DKV.




**BIZIGUNE** Suradesako zuzendari Luis Laskurain eta Arabako Etxebizitza saileko Lurralde ordezkari Ubaldo Ortiz. ARRITXU BARRUSO

**BIZIGUNE PROGRAMA** > AUTOBUS TEMATIKOA IZAN DA ARRASATE ETA BERGARAN

# Bizigune programari harrera ona egin zaio

Bizigune programaren helburua etxebizitza hutsak alokairu babestuan jartzea da; programa aurkezteko autobusa gurean izan da asteon

**AMAIA ZALDUA**> BERGARA

Bizigune programaren autobus tematikoa Bergaran eta Arrasaten izan da proiektua azaltzeko.

*Hutsik duzun etxea bizitzaz bete* da Bizigune programak herriz herri zabaldu duen mezua. Eusko Jaurlaritzak dagoeneko 3.000 etxebizitza jarri ditu alokairuan Euskal Herri osoan.

**HERRITARREN ERANTZUNA**

Debagoienean Suradesa enpresak gestionatzen du Bizigune, eta oraingoz, 52 etxebizitza daude programan sartuta. Etxebizitza gehienak Arrasatekoak eta Oñatikoak dira, han ikasle asko dagoelako.

Autobusera jende ugari hurbildu zen informazio eske. Hala, antolatzaileak gustura daude.

### Etxe hutsak Debagoienean

| HERRIA | ETXE HUTSAK | ALOKATUAK |
|---|---|---|
| Eskoriatza | 201 | 9 |
| Aretxabaleta | 179 | 6 |
| Arrasate | 300 | 19 |
| Oñati | 452 | 8 |
| Bergara | 750 | 7 |
| Antzuola | 141 | |
| Elgeta | 100 | 3 |

Oharra: Etxe hutsen datuak 2006ko ekainekoak dira

**IKASLE ABERTZALEAK** > BOLOGNA PROZESUAREN AURKAKO EGUNA

## Eguenean ikasleak kalera atera ziren Bologna prozesuari aurka egiteko asmoz

'Ikasle borrokaz lortuko dugu! Eskubideak eskuratu!' lelopean hainbat gazte bildu ziren Arrasaten

**AMAIA ZALDUA**> HERRIA

Bologna prozesuak Euskal Herrian izango duen eragina salatzeko asmoz, hainbat gaztek parte hartu zuten Ikasle Abertzaleak deitutako greba egunean.

10:00tan hasi zen greba eta 12:30ean manifestazioa irten zen Seberotik. Ondoren, eta gauera arte, giro alaian ibili ziren ikasleak: bazkarian, bertso poteoan, kontzertuan, eta abar.

**BOLOGNA PROZESUAREN ERAGINA**

"Ikuspegi globalari helduta, Europatik inposatzen zaigun sistema da Bologna", dio IAko ordezkari batek, eta gaineratu du neoliberalismoaren eta kapitalismoaren idealak ezartzea duela helburu.

Hezkuntza pribatizatzeak, bestalde, ikasleriaren mailaketa ekarriko duela ziurtatu du: "Prezioek gora egingo dute, ikasleen arteko lehia bultzatuko da, eta horrek ikasleari ikasle kontzientzia kenduko dio".

IAko kidearen esanetan, euskara nahiz euskal kultura bigarren mailara pasatuko dira "Europako ikuspuntua inposatuko delako".

"Oihartzun handiko prozesua gu konturatu gabe joango dira aplikatzen", baieztatzen du IAko kideak.

**IKASLE ABERTZALEEN ERANTZUNA**

IAk ikasleen artean kontzientziazioa bultzatzen jarraituko du eta salaketen bidez, unibertsitateei dagozkien erabakietan eragiten saiatuko da.

Horrez gain, "dena ez da kalera irten eta oihu egitea", dio IAko kideak. Protesta egunaren helburuetako bat, Bologna prozesuaren aurka egiteaz gain, ikasleen arteko giroa, harremanak, sozializazioa eta laguntasuna bultzatzea ere izan zen.

IAk argi eta garbi dauka ikasleen eskubideen alde borrokatzen jarraituko duela. Zilegitasuna lortzeaz gain, erreferentzialtasuna ere eskuratu nahi du, eta Euskal Herri mailako unibertsitateetan mugimendua eta antolamendua gora egiten ari dela ziurtatu du.

**euskara plazara**

**DEBAGUNE-REN BULETINA**



Haurrei dago zuzenduta Debaguneren kanpaina. X.U.

## Debagunek irakurketa bultzatzeko kanpaina egingo du Aste Santuan

**DEBAGUNE** > DEBAGOIENA

Aste Santura begira, 3 eta 12 urte bitarteko haurrengan irakurketa bultzatzea helburu duen eskuorri bat banatuko die Debagunek neska-mutikooi Debagoieneko ikastetxeen bitartez. Eskuorri horretan irakurketak umeengan dituen onurak gogorazi eta adin tarte bakoitzerako egokiak diren liburu batzuen proposamena egingo die gurasoei. Komiki bat ere izango du eskuorriak. Haurrak irakurketaren mundura hurbiltzea helburu duen komikia, hain zuzen ere.

Debagunetik azaldu dutenez, kanpainare bitartez irakurketak duen "garrantziaz" jabetu nahi ditu gurasoak. Egitasmo hori Bergaran, Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan egingo da. Gainontzeko ibarreko herritarrengana iristeko asmoa ere azaldu dute, Euskara plazara bitartez.

**GUSTUKO DUTEN LIBURUA**

Irakurketaren bitartez, 3 eta 6 urte bitarteko gaztetxoen irudimena eta sormena lantzen eta garatzen dela azaltzen zaie gurasoei eskuorrian. Hala, Debaguneren eskuorriak umeari gehien gustatzen zaion liburua aurkitzen saia daitezela proposatzen die.

6 eta 9 urtekoen artean, irakurketak hizkuntzaren garapenean eta hobekuntzan lagundu eta interesak eta zaletasunak pizten dituela jasotzen du eskuorriak. Gainera, pentsatzeko eta aztertzeko aukera ematen duela eta iritzi pertsonalak garatzeko erraztasuna ahalbideratzeko balio duela ere azpimarratu du.

Azken tarteari dagokionez, 9 eta 12 urte bitartekoen inguruan, irakurketak jakinduria kulturala handitzen duela adierazi du Debagunek. "Irakurketaren bitartez ikasi egiten dela", ohartarazi nahi diete gurasoei. Norbere burua zein gainontzekoak hobeto ezagutu eta ulertzeko egokia dela eta ondorioz, harreman pertsonalak sortu, hobetu eta aberasten dituela jakinarazi dute. Horretaz gain, kontzientzia kritikoa sortzen laguntzeko ere ona dela azaldu dute. "Ona eta txarra bereizten eta arduratsuagoak izaten laguntzen du", azpimarratu dute Debaguneko ordezkariek.

Irakurtzeak dituen onurak erakusteaz gain, adin tarte bakoitzerako lau liburu proposatu dituzte eskuorrian.

Irakurketak dituen onurak aipatu eta zenbait liburu proposatzen ditu

Egitasmo hori Bergaran, Oñatin, Arrasaten eta Aretxabaletan jarriko da martxan

## gure artekoak

**FORD CONNECT** > Ford etxeak automobil modelo honen bertsio berritua merkaturatu du 2007an. Ibilgailu mistoen segmentuan sartzen da, izan ere, ibilgailu industrial edo etxeko ibilgailu moduan erabiltzeko egokia da.

**Iñaki Altuna** > Berria Garajeko saltzailea

# "Espazio handia dauka eta automobil oso gogorra da"

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Automobil industrialen segmentuan sartzen den arren, automobil mistoa da; hau da, lanerako automobil egokia da, baina, baita, familia batendako, baserritar batendako edo abentura zale batendako ere. "Espazio handia dauka eta horrek automobil apropos egiten du umeak dauzkatenendako, mendira, eskiatzera edo asteburu pasa sarritan joaten direnendako edo bestelako kargak erabiltzen dituztenendako; askotariko jendearen beharrizanak asetzen ditu". Horixe azaldu digu Iñaki Altunak, Bergarako Berria Garajea etxeko arduradunak.

"Automobil gogorra da eta horren adierazle da automobilaren txapak duen bermea, 10 urtekoa", gaineratu digu Altunak.

Gainera, automobila altua da eta oso egokia da mendiko bidetan ibiltzeko; noski, ez da mendiko automobilak bezala ibiltzen.

**GIDATZEKO EROSOTASUNA**

Gidatzerako orduan turismo bat bezain erosoa da. Gainera, oso isila da, dena tapizatuta dator eta.

Eserlekuak behera botatzeko aukera ematen du eta maletategi osoa altura bakarrean geratzen da. Horrek karga eramateko erraztasuna ematen du.



Iñaki Altuna, Bergarako Berria Garajean, Connect automobila erakusten. A.I.

### Kombi motza FT 210S 1.8 75 ZP TDCi

| | |
|---|---|
| Prezioa | 12.700 eurotik hasita |
| Luzera | 4,308 metro |
| Zabalera | 1,795 metro |
| Maletategia | 2.700 litro(1) |
| Kontsumoa | 6,3 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 160 km/h(3) |
| Otik 100era | 12,2 seg. |
| CO2 isurketak | 166 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**AUKERA ZABALA**

Motorretan aukera zabala dago: 75, 90 eta 115 zaldi. Bestalde, luzerari eta altuerari dagokionez ere hainbat aukera ditugu eskura. Batetik, bertsio motza eta luzea dauzkagu (4,308 m eta 4,555 m); bestetik, bi altuera dauzkagu aukeran.

Atzeko eserlekuetako ateetako bat lerragarria da eta bestea ere halakoxea eskatzeko aukera dago. Maletategiko ateari dagokionez, bi motatakoak daude aukeran: gora jasotzen den ate bakarra edo aldamenetara zabaltzen diren bi ate.

## etxeko leihotik



**Eneko Azkarate** > GOIENKARIAko zuzendaria

# Zubiak, biribilguneak eta harresiak

Zubiak balio dute elkartzeko, lotzeko, komunikatzeko, hurbiltzeko… Errepideetako biribilek ere erraztu egiten dute ibilgailuen joan-etorria. Zubi eta biribil asko eraiki dituzte azkenaldian gurean, batez ere biribilak, eta azken hauek bidegurutzeetako gurutze-bidea samurtu egin dute.

Garraioez gabiltzanean ez ezik, aurkarien arteko hurbilketaz jarduteko ere erabiltzen dugu zubi berba. Konnotazio positiboak ditu. Gustuko dut. Biribilak ere gustuko ditut errepideetan, batzuetan txarto erabili arren.

Harresiak, ostera, ez ditut gustuko. Pertsonen arteko inkomunikazioa adierazteko erabiltzen dugu berba hori. Konnotazio negatiboak ditu. Berlingo harresia da adibiderik esanguratsuena.

> "Bergarako parke urbano ederretako harresiak ez ditut gustuko"

Eta nire herriko, Bergarako, parke urbano ederretako harresiak ere ez ditut gustuko: Usondo, Errotalde, Errekalde edo Arrizurikoak. Herritarrenganako itxidura dira. Horregatik, ez dut ulertzen lehengoak bota beharrean, horma berriak zelan eraikitzen diharduten Ibargarain egin dituzten etxe berrien ingurunea urbanizatzerakoan. Polit eta erabilgarriagoa izango litzateke Arrizuri parkea kalera zabalduta.

**> Liskartsua** gertatu zaie agintaldi amaiera Txabarriri eta bere Foru Gobernuari. Halere, emankorra izan da haien kudeaketa lana. Gauza on asko egin dituzte, sekula baino gehiago gurean.

**> Gipuzkoa Hiriak** debagoiendartu egin du ahaldun nagusi zarauztarra. Aurreko diputatu nagusi guztiak baino gehiagotan etorri da eta ez AP-1 dela eta bakarrik. Hurrengoa ere ikusi nahiko nuke sarri.

## begi-bistan



**Urkuluko urtegia badoa gora (Aretxabaleta)**
**2007/03/27**

**Argazkia:** Oihana Ugarte.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Lehortea genuela eta denok kezkatuta jarri gintuzten, baina, bukatu dira arazo horiek. Atzo, eguena, %87 zen Urkuluko ur maila. Astelehenetik 3 puntu egin zuen gora ur-mailak.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Goio Arana**
DISEINUGILE GRAFIKOA

Herritar talde batek egindako proposamena onartu du Arrasateko Udalak eta San Josepe harrobian zer egin erabakitzeko ideia lehiaketa egingo du. Lehiaketak logotipoa dauka; Goio Arana diseinugile grafiko arrasatearrak egin du logotipo hori.



**Ibai Linazisoro**
ESKIATZAILEA

Astuneko Alebin Txapelketan, orain dela bi aste, txapeldun geratu zen Ibai Linazisoro bergararra, Alebin II mailan. Mikel Linazisoro Ibairen anaia, bestalde, Alebin I mailan, bigarren postuan geratu zen. Estatu osoko eskiatzaileek parte hartu zuten Astuneko Txapelketan.



**Jon Izagirre**
IKASLEA

Elgoibarko IMH institutuak, gaur, egubakoitza, egitekoa zen ekitaldian, aipamen berezia egin nahi izan dio Jon Izagirreri; ikasle onenaren bigarren saria, hain zuzen ere, jasotzekoa zen Izagirre. Industria Ekipoen Mantenimenduko Goi Mailako zikloa ikasi du.

Gestio duina eta emankorra egiten ahalegindu dela dio Koldo Azkoitia EAJko diputatuak (Aretxabaleta, 43 urte). Legealdia amaitzear dagoela eta, egindako lanaren balorazioaren eta etorkizuneko erronken gainean galdetu diogu. Gipuzkoa Hiria gauzatzeko bidean, azpiegituretan eta gizarte politikan egindako inbertsioak azpimarratu ditu Azkoitiak.

**Koldo Azkoitia** > Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatua

# "Gipuzkoarragoak sentitu gaitezke orain, ildoa oreka lortzea izan delako"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Diputazioko bozeramalea eta Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatua dugu Koldo Azkoitia aretxabalatarra. Amaitzear dagoen legealdia orokorrean oparoa izan dela dio Azkoitiak, Debagoienarentzat bereziki. Gipuzkoa Hiria egitasmoa gauzatzea izan da helburu nagusietako bat.**

**Legealdia amaitzear dela eta, zein balorazio egiten duzu?**

Aldundiaren ikuspegitik oso legealdi berezia izan da. Diru sarreren gehikuntzak hainbat esparrutan inbertsio handiak egin ahal izatea ekarri du eta diru gehien azpiegituretan eta gizarte politikan inbertitu da. Urtetan Debagoieneko eskaera izan den azpiegituretako loturen hobetzea gauzatu ahal izan da: AP-1 autobidea, Bergara ekialdeko saihesbidea, Elgetako saihesbidea, Bergara eta Elgetako arteko bidearen konponketa edo Arrasate mendebaldeko saihesbidea. Azpiegiturei dagokienez, sekulako erronka genuen eta behin betiko urratsa eman da. Gizarte gaietan, beharrak gero eta handiagoak direla kontuan izanik, bikoiztu egin dira inbertsioak legealdi hasieratik, eta nolabait esateko gure eskualdea lehenengo tokian egon da. Horren lekuko, eskualde osorako Aretxabaletan egoitza berri bat egiteko hitzarmena sinatu dugu duela gutxi. Eta ez ohiko inbertsio planaren bidez beste hainbat egitasmoeri aurre egin ahal izan diegu, Arrasateko edo Bergarako kirolgune berriei edo Bergara, Antzuola eta Aretxabaletako kultur eremuen egokitzapenei, esaterako. Foru Aldundiak inon egin badu esfortzu berezia legealdi honetan, gure ibarrean izan da.

**Erradiografia bat eginez gero, zeintzuk dira gure puntu indartsuak eta hutsuneak?**

Enpresa mundua eta lan egiteko kapazitatea nabarmenduko nituzke, ez bakarrik mugimendu kooperatiboaren aldetik. Horrek agian beste hainbat esparru horrenbeste ez lantzea ekarri du. Debagoienean bizitzeko motibazioa piztu behar dugu, biztanleriak behera egin du-eta azken urteotan. Aisialdirako eskaintzak hobetu eta turismoa bultzatu daitezke eta elkarrekin lan egiteko perspektiba berreskuratzea ezinbestekoa da. Tranbiarekin pausu garrantzitsua eman daiteke zentzu horretan. Debagoiena EAEko laugarren hiria izaten lagunduko digu tranbiak.

**Zelan dago proiektua? Gainerako azpiegiturekin aurreikusitako epeak beteko dira?**

Trazaketa bukatuta dago eta eraikitzeko proiektua bukatzen denean, adjudikatuko dira obrak. Lanak aurten hastea aurreikusten da eta urteko bigarren zatian posible izango da. AP-1 autobideari dagokionez, 2008ko lehen hiruhilekoan Maltzaga eta Gasteiz lotuko ditu. Marin eta Araba arteko tunela zen puntu kritikoenetako bat, eta hori gainditsuta, epeak beteko dira. Bestalde, Arrasate mendebaldeko saihesbideko proiektua eginda dago eta aurten adjudikatuko dira obrak. Eta, azkenik, Beasain-Durango ardatza osatzeko, Bergara eta Zumarraga arteko zatiko lanak laster hasiko dira eta hiru urte barru-edo bukatuko da Arrasaterainoko zatia. Hor gertatzen da bizkaitarrek Supersur delako errepideari eman diotela lehentasuna baina Gipuzkoako zatia badoa aurrera.



Koldo Azkoitia aretxabaletarra, Diputazioan duen bulegoan. GOIENKARIA

DEBAGOIENA

**"Aldundiak inon egin badu esfortzu berezia legealdi honetan, gure ibarrean izan da"**

TRANBIA

**"Debagoiena EAEko laugarren hiria izaten lagunduko digu tranbiak"**

ERRONKAK

**"Debagoienean bizitzeko motibazioa piztu behar dugu, aisialdia edo turismoa bultzatuz"**

**Debagoiena Hiria aipatu duzu lehen eta Gipuzkoa Hiria izan da legealdiko leloa. Gipuzkoarren artean barneratuta dago ideia hori?**

Ikuspegi ezberdinak egon daitezke. Udalak eta eskualdeak daude eta antolaketa horretan denok gara Gipuzkoako partaide. 2.000 biztanletik beherako 47 udalerri dira eta herri horietan bizitza kalitatea hobetzeko plus bat egitea beharrezkoa zen. Ildoa lurraldetasunezko oreka bilatzea izan da eta gipuzkoarragoak sentitu gaitezke orain. Lehen desoreka zegoen aberastasuna sortutako lekuetan ez zelako inbertitzen. Betidanik uste hori izan dugu Debagoienean. Diru banaketak orekatu dira ekintza eta inbertsioen aldetik eta Debagoiena gertuago jarri dugu gainerako eskualdeekin, egindako proiektuekin eta baita ere garraio publikoan egindako lanarekin. Kalitatezko jauzia eman dugu garraio publikoarekin eta Debagoienean Arrasateko estazio intermodala gauzatzea falta da, autobusarekin zein tranbiarekin barneko zein kanporako loturak sendotzeko.

**Biztanleria gero eta zaharragoa da. Zer nolako ondorioak ekarriko ditu horrek?**

Klima aldaketaren kontuarekin gertatzen den bezala, ez gara arazo horretaz konturatzen. Alderdi ekonomikotik zein nortasunaren aldetik sekulako aldaketak ekarriko ditu horrek, inmigrazioak bezala. Jaurlaritzaren partetik badaude laguntza jaiotze tasa bultzatzeko baina hori sustatzeko politikak bideratu beharko lirateke etorkizunean. Erronka handia dugu aurrean.

**Bukatzeko Hondakin Partzuergoa eratzea sinatu berri dute Diputazioak eta mankomunitateek. Debagoienean, zer dago aurreikusita?**

Eragin mugatuak izango ditu, gestioaren antolaketan nolabait esateko Debagoieneko Mankomunitateak lanak eginak dituelako. Dena dela, birgaitze eta birziklapen mailan, Gipuzkoan, Estatuko emaitzarik onenetakoak baditugu ere, Europako beste hainbat herrialderen mailara iristeko lana egiteko daukagu oraindik.



zabalik

Andoni Urtzelai

# Korrika

Korrikarekin emozionatu egiten naiz. Badu hunkitzen nauen zera epiko bat. Elur artean doazen lau korrikalariren argazkia ikusten dut eta bihotza saltaka hasten zait, Arabako lautadan doazen bi korrikalari adoretsuen argazkia ikusten dut eta negar-zotinka hasten naiz, gaueko ordu txikietan errepide galdu batean doazen korrikalari apurren argazkia ikusten dut eta *Gora Euskadi, redios!* esaten hasten naiz uluka, nire hizkuntzaz eta nire herriaz harro.

Baina badaude hain inpresio onik ematen ez didaten bestelako argazki batzuk ere. Hemengo argazki honetan independentzia eskatzen duen pankarta daroa lagun talde batek. Hango hartan AHTren aurkako leloak ikusi daitezke. Presoak eta gaztetxeen aldekoak horko argazki horretan, tortura eta poliziaren aurkakoak beste hartan. Eta zer nahi duzue ba nik esatea, sloganen anabasa guzti honek nekatu egiten nau. Badakit Korrika erabat ekimen herritarra dela, eta ondorioz, edozelako errebindikaziok izan behar duela lekua bertan, baina aizu!, utziozue herritarrei arnasa puska bat hartzen...

> **"Korrikarekin emozionatu egiten naiz. Badu hunkitzen nauen zera epiko bat"**
>
> **"Zer nahi duzue ba nik esatea, sloganen anabasa honek nekatu egiten nau"**

Hara, joan den Durangoko azokak, liburu eta disko azoka beharrean Globalizazioaren aurkako foroa zirudien, (manifak egunero, enkarteladak, era guztietako pankartak nonahi…), eta, beste adibide bat jartzearren, Bizkaiko bertso txapelketako finalak (bertsolari guztiek De Juanaren aldeko kamiseta bera jantzia zuten), gestoren asanblada bat.

Errebindikazioen porrusalda honek mezu nagusia ezkutatzea baino ez dakar. Eman diezaiogun gauza bakoitzari bere lekua, fokalizatu ditzagun mezuak ekimenen arabera, finean, egin dezala errebindikazio bakoitzak bere bide propioa, gainontzean, eta Korrikaren kasura itzuliz, zaila baitaukagu mundu oso bat euskarara biltzea.

Edozelan be, eta Iruñean elkar ikusiko dugulakoan… eutsi lekukoari!

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## IBARREAN ERE TURISMOA EGIN DAITEKE

**Irakurle batek Aste Santuan turismo bulegoek izango duten egutegi eta ordutegia jakin nahi izan du. Malagako lagun batzuk datozkio bisitan datorren astean eta Debagoiena erakutsi nahi diela azaldu du lagun horrek.**

Domekan, martxoak 31, hasi eta apirilaren 15era arte Aste Santuko oporraldietako eskaintza egingo dute gureko turismo bulegoek; hau da, Oñatikoak, Eskoriatzakoak, Bergarakoak, Leintz Gatzagakoak eta Arantzazun dagoen Debagoieneko interpretazio zentroak.

Eskoriatzakoaren ordutegia izango da: jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 127:00-20:00; astegunetan, 09:00-14:00 eta zapatutan, 17:00-14:00.

Oñatikoaren ordutegia, berriz, hauxe izango da: astegunetan, 10:00-14:00 eta 15:30-19:30; zapatutan, 10:00-14:00 eta 16:30-18:30 eta domeka eta jai egunetan, 10:00-14:00.

Bergarako bulegoak honako ordutegia izango du: apirilaren 1ean, 8an eta 9an 11:30-14:30 eta gainontzeko egunetan 10:30-14:00 eta 16:30-19:30. Apirilaren 15ean, berriz, itxita egongo da.

Leintz Gatzagakoaren kasuan, astegunetan 09:00-13:00 eta 16:30-20:00 egongo da zabalik eta aste bukaera eta jai egunetan, 10:00-14:00 eta 17:30-21:00.

Arantzazuko Santutegian dagoen Debagoieneko interpretazio zentroari dagokionez, egunero egongo da zabalik, 10:00-14:00 eta 15:30-18:30. Hala eta guztiz ere, martxoaren 31n goizez itxita egongo da.

> **Galdera egiteko:**
> Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
> - Telefonoz: 943 25 05 01
> - Faxez: 943 25 05 13
> - Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
> - Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## KORRIKAREN AZKEN JAIRA JOATEKO AUTOBUSA

**Gazte koadrila batek domekan Iruñan egingo duten Korrikaren azken jaira joan nahi duela eta zera galdetu digute: autobusik jarri dute Iruñara joateko?**

Bada, bai. AEKk autobusa jarri du Debagoienetik Iruñera joan nahi duten herritarrei garraiobidea errazteko. Txartelak 10 euro balio ditu eta eros daiteke zapatura arte: Eskoriatzan, Inkernu tabernan; Aretxabaletan, Loramendi elkartean; Arrasaten, AED elkartean eta AEKn; Oñatin, Laixan elkartean eta Bergaran, Arrano tabernan.

Domeka goizean honako ordutegian abiatuko da autobusa: Eskoriatzan 09:00etan, geltokitik; Aretxabaletan, 09:05ean, geltokitik; Arrasaten, 09:15ean, geltokitik; Oñatin, 09:30ean, Korreos ondotik eta, Bergaran, 09:45ean, geltokitik.

Buelta 19:00etan izango da (egunean zehaztuko da lotzeko lekua).

marrazkiz

Unai Busturia




blog

# Ilargia parean tokatu!

Pello Zabala
www.berria.info/blogak/pellozabala

Ibai eta erreka, denak gainezka. Hainbeste egin al du bada?

Datu xorta bat nahi nuke begien aurrean paratu, ea gauzak argitzeko balio dezakeen, erreparatu nahi diona ase aukeran jar dadin. Urtarrileko ilberritik hona, 66 egun joan zaizkigu. 551 litro utzi dituzte Arantzazuko aldapa larri hauetan. Elurretakoak ez beste guztiak agudo jo dute itsasorantz: elurrarenak mantsoago ibili dira. Urtegiak betetzeko lain bada, dirudienez.

551 litro horietatik, 185 elur zuritan iritsi zaizkigu, bi saiotan, nahiz eta bigarren elurtea zuria bezain beltza ere izan den. Ez dio alferrik atsotitzak: "Edurra zuria dela, keba! edurra baltza da!"

Illargi amandrea, zeruan ze barri? –Zeruan berri onak orañ eta beti", aspaldiko erranairu zaharra, kultura bezala kultu mota bat ere berekin bildu duena. Ez dira txarrak, ez, hiru ilberri segidoko hauek ekarri berriak: portatu den neurrian portatu baita ilargia, bere hiru koska hauetan, ura estimatzekoa eta aberastasun baliosoa dela kontuan badugu. Halaxe, kontuan gordetzeko tamainakoak honako datu pozgarri hauek:

- Urtarrileko ilberriak, bere ondorengo 6 egunetan: 108 litro, gehienak elurretan.
- Otsaileko ilberriak, bere 4 egunetan: 109 litro, denak euritan.
- Martxoko ilberri San Josetakoak, 6 egunetan: 135 litro, gehienak elurretan.

Apunteak hartu nahi dituenak, hor dauka pagotxa!

plazara

Iñaki Galdosen ustez, arazo larria dugu Autonomia Erkidegoa antolatzeko orduan. Haren esanetan, arazoari irtenbidea emateko EAJ da urratsak eman behar dituena "gainerako alderdiek garbi daukagulako gure antolaketa eredua". Dena dela, susmoa du EAJ ez dela ausartuko zezenari adarretatik heltzen, "duela 20 urte gai honek berak EAJren zatiketa ekarri zuela kontuan izanda".

Iñaki Galdos *

# Euskal Herria nola antolatu

Duela lau urte, 2003ko irailean, Gipuzkoako alkate aukeratu berri bat Foru Aldundira joan zen estreinako aldiz, bi diputaturi zita eskatuta. Urduri zegoen, berarentzat esperientzia berria baitzen etxe dotore hartako pisu noblean alkate gisa sartzearena.

Lehenengo bilera laburra izan zen oso. Diputatuak alkateari esan zion, eskuartean ekarri zuen gaia Eusko Jaurlaritzaren esku zegoela lege berri baten arabera. Bigarrena ez zen luzeagoa izan: oraingo honetan, Foru Aldundiaren barne antolaketa berriaren arabera, beste diputatu bati zegokion beste gai horri buruz erabakitzea.

Kontatu dudan hau bitxikeria hutsa izan daiteke askorentzat, baina, nire ustez, bere horretan ondo baino hobeto erakusten du arazo larria daukagula Erkideko Autonomoa antolatzeko orduan.

Beste adibide bat: azken aste hauetan, eztabaida sakona izan dugu alderdien artean Sozietateen Zergaren inguruan. Eta zergari berari buruz egon den dialektikaz gain, sakonean beste eztabaida bat ere agertu da, hau da, gai honen inguruan eskumenak dituzten edo izan beharko lituzketen erakundeen inguruko eztabaida hain zuzen. Eta ikuspegi foralistagoa dutenentzat gai hau adostu eta onartzea soil soilik Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien esku badago ere, beste askoren ustez badaude tresnak –kasu honetan, 1989ko Armonizazio Legea– eta arrazoi politikoak gaia Eusko Legebiltzarraren esku uzteko.



OXEL ARRIETA

Arazoa bikoitza da: alde batetik politikoa, ideologikoa, Euskal Herriaren barne antolaketari buruzko ikuspegi ezberdinak daudelako sakonean. Bestetik, onartu beharko dugu, indarrean dagoen legedia kontuan hartuta, nahiko egoera kaotikoa daukagula, lehenengo adibidean erakutsi dudan bezala. Eta askotan ez daukagula garbi zein erakunderi dagokion gai bat konpontzea. Edo, okerragoa dena, garbi izanda ere, erakundeek ez diotela jaramon handiegirik egiten eskumen banaketa horri, eta bakoitzak nahi duena egiten duela.

Bigarren hau agian errazago konpon daiteke. Hala, ni batez ere lehenengoak kezkatzen nau.

**"Sozietateen Zergari buruz, sakonean agertu da gai honen inguruan eskumena izan beharko luketen erakundeen inguruko eztabaida"**

**"Arazoa bikoitza da: politikoa, ideologikoa eta legedia kontuan hartuta, egoera kaotikoa"**

Duela hogeita bost urte, Garaikoetxea lehendakari zela, Lurralde Historikoen Legea onartu zen. Bi ezaugarri nagusi zituen lege hark: alde batetik, Arabako eta Bizkaiko Diputatu Nagusi ziren Gebara eta Makuaren presioagatik, askok nahi baino indar eta eskumen gehiago hartu zituzten Foru Aldundiek. Bestetik, EAJ barruan zeuden jarrera erabat kontrajarriak estali eta saihesteko, lege erabat nahasia idatzi zuten, gai askoren irakurketa bikoitzak ahalbideratuz.

Hogeita bost urteren bueltan guztiek onartzen dute egoera jasanezina dela, gure erakundeen arteko harremanak –udalak barne– erabat nahasten ari dena. Halaber, denek onartzen dute bi urrats berri eman behar ditugula laster, egoerari buelta emateko: erabaki politikoa hartu eta erabaki horren arabera etorkizunerako gauzak argiago utzi. Gonzalez de Txabarri Diputatu Nagusiak ere berriki onartu du gai honen inguruan ez duela zentzurik pandoraren kutxa zabaltzeak baina ezta ostrukarena egiteak ere.

Kontua da, oraingoan ere, EAJ-ren esku dagoela urrats horiek ematea, gainerako alderdiek garbi daukagulako gure antolaketa eredua. Eta kontuan izanda duela hogei urte gai honek –beste batzuen artean– alderdiaren zatiketa ekarri zuela, beldur naiz ez direla ausartuko zezenari adarretatik heltzen.

*EAko Gipuzkoako presidentea da Iñaki Galdos

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Gehiegi larritzen gara eguraldi kontuekin?

| | |
|---|---|
| BAI | %33,3 |
| EZ | %66,6 |

**> EZ DUT USTE**
Ez dut uste gehiegi larritzen garenik. Eguraldia nahasi xamar dabil, halaxe diote adituek ere, eta oso kontuan hartzeko gaia dela uste dut.
**Ainara**

**> BAI**
Niri ere kontuan hartzeko gaia dela iruditzen zait, baina pixka bat katastrofistak ere bagarela uste dut. Komunikabideek erruaren zati bat dute. Elurra egiten duenean, esaterako, bonbardatu egiten gaituzte, azkenean, benetan egindakoa baino elur gehiago egin duelako sentsazioarekin lagatzen gaituzte herritarrok.
**Miren**

**> LARRITZEKOA DA**
Ez gara gehiegi larritzen, justua larritzen garela uste dut. Ni larri egon naiz azken egunetan. Erreka ondoan bizi naiz eta egindako elur eta euriarekin larri nengoen gainezka egingo ote zuen.
**Aitor**

**HURRENGO ALEKOA: Zerbait aldatuko zenuke zuren itxuran?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

## Europa dugu maite

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
www.eibar.org/blogak/amatino

Euskaldunok badakigu euskarak batzen gaituela eta uste dugu Euskaltzaindia dela zazpi lurraldeok elkartzen dituen erakunde bakarra. Baina, Euskaltzaindiaz gainera, bada beste erakunde bat Euskal Herri guztia biltzen duena: Europako Batasuna.

Zenbaitek besterik uste arren, Euskal Herrian beti izan da nagusi europarzaletasuna, bai behintzat orain 90 urteko abertzaleek Suitzako Nazioen Biltzarrean parte hartu zutenetik.

Geroztik, 1933ko Aberri Egunaren leloa "Europa" izan zen; Europaren alde egin zuen gerra aurreko euskal gobernuak, eta azken 50 urteotako itun europar guztien alde agertu izan dira beti gure alderdirik handienak, Erroma, Maastricht, Amsterdam nahiz Niza izan. Eta, ez ahaztu gero, europar konstituzioaren erreferendumean ere, baiezkoa atera zela irabazle Hegoaldean zein Iparraldean.

Jakinekoa da euskal abertzaletasunaren eskizofrenia. Batetik, nahiago du europarra izan, espainiarra edo frantsesa baino, baina, aldi berean, ez du sumatzen aurrez aurre duen Europa hori nahikoa denik. (...).

Ni Euskal Herri guztia bere magalean biltzen duen Europaren alde nago, gure mugak hautsi dituen Europaren alde, pezeta eta frankoa baztertu dituen Europaren alde. Eta, gurago nukeen Europa lortzeko, uste dut oztopoak ez daudela Bruselan edo Strasburgon, Parisen eta Madrilen baizik.

koplak

Irati Agirreazaldegi

## Euria eta ura, denon ardura

Nola martxoan izan genuen
mendi gainetan elurra.
Apirilean izotza dator
urtegietan, beldurra.

Elur malutak lehenengo eta
gero euri zaparrada,
ezingo gara kexatu behintzat
uragatik baldin bada.

Urkulu husten ari zela ta
sortu zen hamaika kezka.
Orain ibaiak eta errekak
ikus daitezke gainezka.

Euri eskean entzun ditugu
hainbeste errogatiba;
eta orain nahi ez bada ere
euria gogoz ari da.

Orain eguzki, orain euria
a ze nolako nahastea.
Ez da batere harritzekoa
denok eztulka hastea.

Tanta lodiek eragin dute
inguru hontan ardura.
Inoiz euririk ez du egiten
jende guztian gustura.

# Hau ere gertatzen ari da

**Juan Antonio Iturbe**
(Gertu Gae-ren izenean)
Antzuola

Ordezkaritza politikoa eta diru publikoa gestionatzen dituzten pertsona eta alderdiek, zintzotasun probatukoak eta erabaki partehartzaile eta demokratikoen garante beharko lukete izan.

Azken lau urteotan balore hauek larriki urritu dira Antzuolako udalean, eta efikaziaren aitzakiarekin Antzuolako Udal Etxegintza S.A. erabiltzen ari dira alderdi jakin baten interesak kudeatzeko.

Antzuolako Udal Etxegintza S.A.-ren estatutuak aldatuz geroztik (2005eko maiatza) erakunde honen administrazio kontseiluak hartzen ditu aurretik, Udal batzordeetan eta Plenoetan hartzen ziren zenbait erabaki.

Enpresa honen administrazio kontseilua Jose Angel Zabalok, Jose Ignacio Beltranek eta Dina Muxikak osatzen dute eta esan beharra dago 2005eko uztaileko plenoan bestelakorik onartu bazen ere, Gertu gae-ko ordezkariak ez garela bilera bakar batera ere gonbidatuak izan. Bestalde, Antzuolako Udal Etxegintzaren obren "bukaeran", Udalaren papera, gustatu edo ez, egindako obrak onartu eta sortutako zorrak hurrengo urte luzez ordaintzea izango da.

Hau dena larria izanda ere, larriagoa da gure ustez, PNVk ez daukala proiektu argirik gure herriarentzako eta benetan arduratzen duen gauza bakarra, egiten dena egiten dela, eurek kontrolatzen dituzten aparatuek eta enpresek egin dezatela da.

Eta bestela ea nola ulertzen diren ondorengo arduragabekeria eta utzikeria hauek.

- Ipurtikako industrialdea Arau subsidiarioetatik ezabatu, arau hauen oreka erresidentzial\Industrial garapena total aldatuz. (Ondorioa: etxe berriak a tope eta enpresak Bergarara).

- Beasain-Durango errepidera ez dugu sarrera-irteerarik izango, Urretxun eta Bergaran ez bada. Ez dakigu nondik pasako den eta erabiltzaileok peajea ordaintzeko asmoak ere badituzte. (Antzuola *corredor de comunicaciones* bezala definitzen dute).

- Agindu eta propaganda asko, baina herrirako sarrerek lehen bezala jarraitzen dute.

- Antzuolatik Bergararako oinez bideak ez du Arizti parean aurrerapenik izan (zubi peatonala) eta bitartean, Eskusarten, Diputazioak izugarrizko dirutzak gastatu ondoren, lehen baino oztopo gehiago daude. Oinezkoak bost axola Diputazioari.

- Antzuolako Udal etxegintzaren gestio gastuak (Gespublik), gehi alkatearenak, gehi alkate ordearenak, gehi zinegotzi eta hiru alderdirenak, asko gehitu dira azken urtetan.

- AHT ere pasako da gure gainetik eta bitartean, Udalak lau urte erabakigarri pasa ditu inongo debate eta erabaki gunerik proposatzeke. (Berriz ere *corredor de comunicaciones*).

- Lau urte luzez 537 herritarren hitza, Udalean baztertua eta mesprezatua izan da.

- Sagastiko parkearen aldeko plataformak 756 sinaduraren babesarekin aurkeztutako eskaerari ezezko borobila eman zion Udalak, eta ondoren eskatutako herri kontsulta bidez erabakia hartzeko proposamenari ere bai.

- Egoera kaxkar honen aurrean, Ezker Abertzaleak exijitzen du: eztabaida eta parte hartzea bultzatuz gestio demokratikora bueltatzea, interes pertsonalak eta alderdi interesak alde batera utzita.

Azkenik, PNV eta EAri eskatzen diegu herritarren aurrean azken urteetako gestioen emaitzak era publikoan eztabaidatzea.

# Txuri-urdinak Realarekin

**Jokin Urtzelai** > Oñati

Beltz daude gauzak Realarendako, baina argiago ikusiko ditugu zapatuan Levanteri irabaziz gero. Nork pentsa zezakeen orain dela gutxi, Reala salba zitekeenik. Nik ez, behintzat. Asko dira orain ere, jada, Reala bigarren mailan ikusten dutenak. Baina ni itxaropentsu naiz eta Reala maite dutenak edo bigarren mailan ikusi nahi dutenak kutsatu nahi ditut nire itxaropenarekin.

Horregatik animatu nahi dut jendea hemendik eta denboraldia amaitu bitartean Realak Anoetan jokatuko dituen partiduak ikustera joateko, eta taldea animatzeko. Oso ideia ona iruditu zait, portzierto, Arrasateko lagunarte guztiak irteera antolatu izana biharko partidua ikustera Anoetara joateko. Animatu zaitezte zeuek ere!

# Kalitateko enplegua

**Izaskun Vega eta Joserra Landa**
(ESK sindikatuko kideak)
Arrasate

Laster batean Udal hauteskundeak izango ditugu, eta uste dugu hauteskunde programak egiten ibiliko direla Udal hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politikoak, eskaini behar dituzten proposamenen arabera herritarrek botoa emateko baten alde edo beste baten alde.

Arrasateko herritarrak garenez, eta ESK sindikatuko kide ere bai, Hauteskunde Kanpaina hasi baino lehen, gure ikuspegia azaldu gura dugu, guri zuzenean eragiten digun gai bati buruz: Udalaren menpean dagoen enplegua.

- 1990eko hamarkadaz geroztik pribatizazioa nagusituko da, hau da, zerbitzu publikoen kudeaketa enpresa pribatuei birkontratatuko diete.

- Arrasateko Udala ez dago errealitate horretatik libre. Horrela, zuzenean kontratatutako plantilaren %71raino iritsi dira langile birkontratatuak.

Zuzenean kontratatutakoak, berriz, 210 dira Udalean bertan, Aukean eta Iturbiden. Horietatik %50 emakumeak dira eta %50 gizakumeak.

Birkontratua duten pertsonak 149 dira, etxeko laguntza zerbitzuan, Iturbide egoitzan, bide garbiketako zerbitzuan, lorategien mantentze zerbitzuan, Udal eraikinak garbitzeko zerbitzuan, kiroldegiko garbiketa zerbitzuan, Uarkape pilotalekua garbitzeko zerbitzuan, hiri garraioko zerbitzuan, Iturbideko garbiketa eta sukalde zerbitzuan, Udalaren ur sarea kudeatu eta zaintzeko zerbitzuan... Lan horietan gehienak dira emakumeak, birkontratua duten pertsonen %76.

Udalbatzar berria eratu zutenean 2003an, ikaragarri igo zituzten alkatearen eta zinegotzien soldatak. Alkateak gaur 5.691 euroko soldata gordina du hilean, guztira 14 soldata epean, 79.674 euro urtean, (lehengo 991.000 pezeta hilean edo 13.885.577 pezeta urtean). Eusko Jaurlaritzako sailburuorde baten soldata berbera da. Udalaren soldata kobratzen duten zinegotziek 2.872 euroko soldata gordina jasotzen dute hilean, 14 soldata epean (hau da, lehengo 477.955 pezeta hilean edo 6.691379 pezeta urtean).

Zuzeneko kontratua duen klinika laguntzaile batek 23.650 euro irabazten du urtean.

Soldata horiek eta birkontratuan dabiltzan langileek irabazten dituztenak parekatuko ditugu, eta hona hemen emaitza: Iturbide egoitzako laguntzaileek: 15.974 euroko soldata gordina urtean. Udal eraikinetako garbiketakoek: 14.709 euroko soldata gordina urtean. Lorategietako langileek: 17.116 euroko soldata gordina urtean. Etxeko laguntza zerbitzukoek: 6,7 euroko soldata gordina orduko.

Laburtuz:

- Alkateak ia 5 bider gehiago kobratzen du edozein langileren aldean.

- Zuzenean kontratatutako emakume langileek %48 gehiago irabazten dute zeharka kontratatutako emakume langileek baino.

- Zeharka kontratatutako gizakumeek %14 gehiago kobratzen dute egoera bereko emakumeek baino.

Aipatu dugun lan egoera hori dela-eta, ESK sindikatutik eskatzen diegu alderdi politiko guztiei proposamen hauek sartzeko euren hauteskunde programetan:

- Zerbitzuak zuzenean kontratatzea.

- Zerbitzua birkontratatuz, kontratazio lehiaketen baldintza agirietan berdindu edo parekatu ditzatela birkontratatutako langileen lan baldintzak eta soldatak eta Udalaren mende dauden langileen hitzarmenaren lan baldintzak eta soldatak, eta horrela, lehentasuna izateko irizpide sozialak eta ez zerbitzua merkeenari ematearenak.

# Aberri Eguna 2007

**Ander Rodríguez**
(Eta Ezker Batua Berdeak taldeko Batzen korronteko beste 15 kide)
Debagoiena

Aurtengo Aberri Eguna delaeta, Ezker Batua Berdeak taldeko Batzen korrontearen izenean zera adierazi nahi dugu:

Oztopo guztien gainetik, bake eta normalizazioaren aldeko apustu irmoan jarraitzen dugu. Horrek, bestelako ondorioen artean, indarkeriarik gabeko etorkizunerantz eramango gaitu, non Euskal Herri anitza aitortua izango den, non ezker berregituratzailearen gehiengo politiko eta soziala ahulenen alde behin betiko hedatua izango den.

Nortasun esentziei muzin egiten diegu. Nazioaren eraikuntza sozialak baino ez gaitu mugitzen, ezkerreko ikuspegia. Eta honekin batera, Euskal Herriko ezker ezberdinen sektore abertzale eta euskaltzaleak batzearen ideiarekin bat egiten dugu, elkarrenganako aitortzatik sentsibilitate ezberdinen elkarbizitzarantz; autodeterminazioan, ekosozialismoan eta aniztasunean bat egingo lukeen espazio politikorantz, bukatu gabeko edo eta gaizki itxitako eztabaiden sintesi historikoa izango litzatekeenerantz, alegia.

Aurrean dugun Aberri Egun honetan, halaber, bi Estatu eta hiru esparru, administratibo-juridikoki zatitzen duten euskal herriaren aniztasuna aintzat hartzen duen espazio politiko baten alde hausnarketa egitera dei egiten dugu. Bertan, ezberdinak ez ezik kontrakoak diren sentsibilitate nazionalak bizi direla gogoan izanik, guztiak ere ordea, propioak; eta Nafarroako errealitatea entitate politiko subirano bezala aitortuz, non nafarrek hartuko baitituzte beren etorkizunari buruzko erabaki oro. Espazio politiko horrek, akaso, Euskal Erkidegoko, Nafarroako eta Iparraldeko entitateen gizarteek berorren etorkizuna aske erabakitzeko ibilbidea kudeatu beharko du, esklusiorik gabe, bortxarik gabe. Are gehiago, gizartea, alderdiak eta erakundeen arteko harreman demokratiko eta partehartzailea sustatu beharko du; xede sozial, ekonomiko eta ingurugiroarekin loturiko guztiak praktikara eraman beharko ditu, alderdi, koalizio eta ezkerreko mugimendu ekologista, feminista, antimilitarista edo eta sozialak uztartuz; giza eskubide guztiekiko errespetua estu-estuki jarraitu egin beharko du ere, salbuespenik gabe, irakurketa partzialik gabe.

Eta helburu benetan zail baina itxaropentsu hori erdiesteko ETAri dei berezia: Irlandakoari eutsi eta indarkeriaren estrategia antzua ahaztu, herri honetan gori-goriandiren prozesuak garatzen utziz, berau eta gainontzeko guztiak.

Iraganaren mamuak uxa ditzagun. Goazen amaigabeko eztabaidak azkentzera, frentismoen gainetik, inkomunikazioaren lubakiak estaltzera. Langileria oinarri, gehiengo sozialaren aldeko zeharkako kultura politiko, sozial eta sindikal berriari hel diezaiogun behingoz. Ekin diezaiogun eta has gaitezen pentsatzen Aberri Egun bateratua ospatzeko kapaz den gizarte heldu batekin.

Batzen taldeko gizonemakumeok bagabiltza.

# ZUZENKETA

Joan zen astean, Aretxabaletako tartean, Loramendi ikastolako andereñoak izenearekin kaleratu genuen argazki zaharra. Argazkian hiru andereño agertzen ziren: Arantza Iza, Kristina Gomez eta hirugarrena aipatzea ahaztu zitzaigun, Matilde Sainz. Izarekin batera ikastolaren sorreran hartu zuen parte berak ere.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:**
**943 25 05 01**
**Faxa:**
**943 25 05 13**
**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


kutxaempresas
Loading...
“Biharkoa prest baduzu buruan zabiltza lasai munduan”
Internet etengabe berritzen ari da, kutxaempresas.net ere bai.
Internet berrasmatzen. Baita kutxaenpresak-en webgune berria ere, sarearen abantaila guztiak kutxaenpresen eskaintza zabalari gehitzeko prestatua.
-> Intuiziozko nabigazioa.
-> Diseinu gaurkotua.
-> Neurrira egindako produktuak eta zerbitzuak.
-> Aholkularitza. Enpresa-txostenak, dirulaguntzak, ikastaroak …
-> IInformazio eguneratua. Eguneroko prentsa, azken albisteak, burtsa, …
-> Astialdia. Bidaiak, zinerako sarrerak, mugikorrak birkargatzea …
-> Eta, jakina, Kutxanet-erako zuzeneko sarbidea.
www.kutxaempresas.net
kutxa
zer nahi duzu bihar?

# "Dentsitometria ekiditeko ohitura onak ditugu hemen"

**Aktibitate fisikoa eta elikadura on bat jarraituta hezur-dentsitometria ekidin daitekeela dio Alfredo Otalora ginekologoak. Zentzu horretan, Euskal Herriko ohiturak onak dira**

40 urte inguru daramatza lanbidean Alfredo Otalora ginekologoak; horietatik 30 urtetik gora ibarrean. Gipuzkoa edadeko pertsonez beteriko lurraldea dela eta ondorioz, gero eta hezur-dentsitometria kasu gehiago daudela azaldu du. Gaixotasunaren nondik norako guztiak azaldu dizkigu Otalora medikuak.

**Zer da zehazki hezur-dentsitometria?**
Hezurrek duten dentsitatea aztertzen duen metodo radiologikoa da. Hezurrek duten kaltzio kopurua eta ahulak diren hezurrak hausteko duten arriskua aztertzen du, hain zuzen. Bizkarrezurrean mikrohausturak izateko edo bestelako hezurrak apurtzeko arrisku altua sortzen du gaixotasun horrek. Bizkarrezurreko mikrohaustura horien ondorioz, pertsona nagusiak zentimetro batzuk txikitzen dira denborarekin.

**Zergatik da hain kontuan hartekoa?**
Hezur-deskaltzifikazioak ez duelako inolako sintomarik. Golpe txiki batekin haustura dagoenean baino ez da igartzen. 70 urte inguruko emakume bat hil dezake, arazoak ematen dituzten ebakuntzak eragiten dituztelako esandako haustura horiek.

**Noiz agertzen dira arazoak?**
Normalean, menopausia igaro eta gero. Bost bat urte beranduago gutxi gorabehera. Horregatik, menopausiarekin batera oso inportantea da kontrolak egiten hastea.

**Hortaz, emakumezkoei eragiten die gizonezkoei baino gehiago.**
Emakumeei, askoz gehiago. Bestalde, adinaren arabera ere eragiten du gaixotasun horrek. Adinean aurrera egin ahala, kopurua handitzen joaten da. 65 urtetik gorako andreetan, portzentajea %25ekoa da. Kontuan hartu behar da, gaur egun, Gipuzkoan jende nagusi asko dagoela.

**Beste toki batzuetan baino kasu gehiago azaltzen dira hemen?**
Ez. Euskal Herriko ohiturak onak dira gaixotasun honendako. Mendia eta ibiltzea gustuko dugu eta gainera, ondo elikatuta gaude. Faktore horiek positiboak dira hezur-masa aberatsa izateko. Eguzki ordu gutxi ditugula eta edadetuak garela dira herri honetako faktore negatibo bakarrak.

**Horietaz gain, zeintzuk dira arrisku faktore ohikoenak?**
Adina eta mugikortasunaz gain, kaltzio eta D bitamina gutxiko elikadurek ere arriskua sortzen dute. Larruazal argia, baxua eta judua izateak ere eragina izan dezake. Kaltzio gutxiko herria da juduena.


Alfredo Otalora ginekologoa, hezur-dentsitometria aztertzen duen tresnaren ondoan.

> "65 urtetik gorako andreetan, gaixotasuna dutenen portzentajea %25ekoa da"

> "Larruazal argia, baxua eta judua izateak eragina izan dezake gaixotasuna garatzeko"

**Jende askok jotzen du kontsultara gaixotasun hori dela-eta?**
Bai. Gehienbat, hezurretan duten kaltzioa kontrolatzera. Hori dentsitometro batekin aztertzen da. Osasunkontzentziazio handia dago hemen eta hori oso ona da.

**Nola ekidin daiteke hezur-dentsitometria?**
Aktibitate fisiko bat egiten eta elikadura egokia jarraitzen. 60 urtetik gorako emakumeentzako jarduera fisiko onena dantzatzea da. Egunero ordubetez dantza egiteak onura asko dakartza. Paseoan ibili edo igeriketa egitea ere ona da. Esfortzu larregi eskatzen ez duen edozein kirol mota egokia da.

> "Aktibitate fisiko bat egiten eta elikadura egokia jarraitzen ekidin daitekeen gaitza da"

> "Jarduera fisiko onena dantzatzea da. Kontserbazko arraina jatea ere ona da"

**Zein elikagai gomendatzen dituzu?**
Barazkiak, frutak eta kontserbazko arraina. Azken honek kaltzio kopuru altua du. Baita esneki deskrematuak, pasta nahiz fruitu lehorrak ere, kakahueteak izan ezik.

**Hezurren kalitatea zain ezazu.**
**Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.**

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
**Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39




**> ARRASATE**
San Joseperen gaineko ideia lehiaketa aurrera doa **> 18**




**> ARETXABALETA**
*Lucio Garay, ez itxi* oihu eginez manifestazioa egin dute langileek **> 31**



**> ESKORIATZA**
Etxebizitza tasatuen kalifikazio eta baldintza berak etxabeendako **> 34**



**> ELGETA**
Intxortako Atea eskultura bere lekuan jarriko dute **> 37**

**OÑATI** > EKAINEAN ESTREINATUKO DUTE EGOITZA BERRIA

# Udaltzainek egoitza berria izango dute laster, Santa Ana parean

**ERAIKINA**
460 metro koadro ditu eraikin berriak eta hiru zatitan banatzen da

**MATERIALA**
Bi motor eta 14 walkie-talkie berri izango dituzte gero

**PLANTILLA**
Udaltzain kopurua handitu gura du Udalak eta deialdiak aurten egingo ditu



**ZABALIK** Fatxada nagusitik izango du sarrera udaltzainen egoitza berriak eta atea zabalik egongo da beti. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > OÑATI
Oñatiko udaltzainek egoitza berria izango dute laster. Santa Ana antzokiaren parean dagoen eraikinean egongo dira, lehen Ertzaintza egondako tokian. Aste honetan ekarri dituzte altzariak. Dagoeneko eraikin berriko aldagelan aldatzen dira udaltzainak eta autoa hango garajean sartzen dute, baina ekaina baino lehen ez dute erabat estreinatuko.

**MATERIAL BERRIA**
Duela zortzi hilabete inguru hasi ziren egoitza berria txukuntzen. Garbitu eta margotu egin dute batez ere, barruko distribuzioa lehen zegoen bezala utzi dute. Egoitza berriak 460 metro koadro ditu guztira: beheko solairuan harrera gela, bulegoak eta garajea egongo dira eta lehen solairuan aldagelak, bilera gela eta sukaldea jartzeko tokia.

Egoitza berriarekin batera, bi motor eta 14 walkie-talkie berri ere izango dituzte udaltzainek. Egoitza eta inguruak kontrolatzeko, berriz, kamerak jarriko dituzte. "Udaletxeko arku zentralean bat udaletxeko sarrera kontrolatzeko. Beste bana izkinetan, bat kale Barrira begira eta bestea Atzeko kalera. Fokuak dauden zutabean ere egongo da beste bat eta beste bi merkatu plazan. Gure eraikinean ere jarriko ditugu. Denak egoitza berritik zuzenduko ditugu", azaldu du Jose Antonio Vazquez udaltzain buruak. Obren aurrekontua 263.000 eurokoa izan da, zabalik duden komun publikoak barne.

**PLANTILLA HANDITU**
Bederatzi udaltzain daude egun Oñatin eta egungo egoitza txiki gelditu zaie. Gainera, plantilla 11-12ra igo gura du Udalak. "Urtarriletik aurrera, udaltzainek kudeatuko dituzte isunak, ez Jaurlaritzak. Bestalde, kontratu gara auzoetara ez direla gura bestetan heltzen eta hori ere kontuan gura dugu udaltzain kopurua gehituz", dio Lurdes Idoiaga alkateak. Bestalde, Udalaren asmoa da zapatu arratsaldeetan ere udaltzaingo zerbitzua egotea uztaila alderako. "Dendariek ez ezik, beste batzuk ere eskatu digute eta denborarekin egubakoitz eta zapatu gauetan ere jarriko dugu zerbitzua, baina oraindik antolatzeke dago", dio alkateak.

BARRUKO XEHETASUN BATZUK



Egoitza berriko aldagelak erabiltzen hasi dira dagoeneko udaltzainak. Gizonendako eta emakumeendako aldagelak dituzte, dutxa eta guzti.



Sarreran, harrera gela txiki bat dute, herritarrarekin lasaiago hitz egiteko. Salaketak horrela eskatzen badu, ordenagailua dagoen gela baten jasoko dute denuntzia.

UDALTZAINEN ZEREGINAK

## Jendearen konfiantzarekin lanean

Bi txandetan egiten dute lana Oñatiko udaltzainek: goizez eta arratsaldez. Eguneroko zeregina zehaztuta izaten dute, ikastetxe eta lantegietako sarrera eta irteera orduak zaintzea, adibidez. Baina istripu, sute edo antzerako egoerek lehentasuna izaten dute. "Trafikoa zaintzen egiten ditugun orduetan, baina, ez dugu trafikoa bakarrik kontrolatzen. Arreta jartzen diogu, adibidez, ikastetxe inguruetan droga edo antzerakoak saltzen egon daitezkeenei", dio Jose Antonio Vazquez udaltzain buruak. Bestalde, herritarrekin harreman zuzena eta hurbilekoa dutela dio udaltzain buruak eta hori ona dela uste du berak. "Gugan konfiantza du jendeak", dio Vazquezek. Kalean aurkitutako arropak, giltzak, patineteak, entzumen aparailuak edo diru zorroak ere udaltzaingoan uzten dituzte oñatiarrek. Behin, baita ordezko hortzak ere. "Bizilagunak alfonbrak desorduetan astintzen dituelako kexatzera ere etortzen dira", dio.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 24 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Domeka, 25 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Astelehena, 26 | Español | Araba etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Martitzena, 27 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Eguaztena, 28 | Etxeberria | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Eguena, 29 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Egubakoitza, 30 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 24 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 25 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 26 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 27 | Urrutikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 28 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 29 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 30 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 24 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 25 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 26 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 27 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 28 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 29 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 30 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 24 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 25 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 26 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 27 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 28 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 29 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 30 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)............943 46 11 11
DYA (Antzuola)............943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)............943 76 55 76
Suhiltzaileak............943 78 28 00
Ertzaintza............943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala............943 03 53 00
- Antzuola............943 76 62 23
- Aramaio............945 44 53 40
- Aretxabaleta............943 71 19 59
- Bergara............943 03 54 00
- Elgeta............943 03 54 00
- Eskoriatza............943 71 44 52
- Leintz Gatzaga............943 71 47 46
- Oñati............943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola............943 76 62 46
- Arrasate............943 79 14 39
- Aretxabaleta............943 71 18 63
- Bergara............943 77 91 06
- Eskoriatza............943 71 44 07
- Leintz Gatzaga............943 71 47 46
- Oñati............943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA............902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate............943 79 12 22
- Aramaio............945 44 50 33
- Aretxabaleta............943 77 12 64
- Bergara............943 79 12 22
- Eskoriatza............943 71 40 59
- Oñati............943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea............943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)............943 78 15 12
Nekazaritza ganbera............943 76 10 15
Zerga Bulegoa............943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate............943 77 11 43
- Bergara............943 76 44 42
- Oñati............943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio............945 44 53 35
- Arrasate............943 77 16 77
- Aretxabaleta............943 71 26 28
- Bergara............943 76 56 41
- Elgeta............943 76 82 84
- Eskoriatza............943 71 53 28
- Oñati............943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola............943 76 60 65
- Aramaio............945 44 53 74
- Arrasate............943 77 01 05
- Aretxabaleta............943 71 10 27
- Bergara............943 77 91 58
- Eskoriatza............943 71 46 88
- Leintz Gatzaga............943 71 47 46
- Oñati............943 78 03 53

Udalak
- Antzuola............943 76 62 46
- Aramaio............945 44 50 16
- Arrasate............943 79 09 00
- Aretxabaleta............943 71 18 62
- Bergara............943 77 91 00
- Elgeta............943 76 80 22
- Eskoriatza............943 71 44 07
- Leintz Gatzaga............943 71 47 46
- Oñati............943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 24**
Egubakoitzetik zapatura igarriko dugu hobekuntza, batez ere, zapatu arratsaldean hasita. Tenperaturek ere gora egingo dute, dezente.



**Domeka, 25**
Nahiko eguraldi polita aurreikusten da, zertxobait txukunduko du-eta. Alde handia igarriko dugu azkeneko egunekiko.

### EUSKAL HERRIAN

Gaur, egubakoitza, euri lardatsa eta mendebaldeko haizea izango ditugun arren, datozen egunotan hobetu egingo du dezente. Batez ere, ikusiko dugu hori zapatu arratsaldetik aurrera. Hala, domeka bera nahiko polita geratuko zaigu, nahiz eta gar-bi-garbia ez izan.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Eguena, 15 — **1 ºC**

**MAXIMOA** Eguena, 15 — **20 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **142,9 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 14** | 17 ºC | 6 ºC | 0 l/m² |
| **Eguena, 15** | 20 ºC | 1 ºC | 0 l/m² |
| **Egubakoitza, 16** | 16 ºC | 8 ºC | 0 l/m² |
| **Zapatua, 17** | 12 ºC | 3 ºC | 0 l/m² |
| **Domeka, 18** | 16 ºC | 5 ºC | 22,4 l/m² |
| **Astelehena, 19** | 7 ºC | 6 ºC | 52,3 l/m² |
| **Martitzena, 20** | 6 ºC | 2 ºC | 68,2 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MARTXOAN

| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **12** | **19** | **25** | **3** |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> Fruta-arbolak txertatzen ikasteko ikastaroa**
Itsasmendikoi Fraisorok eta Arrasateko Udalak antolatu dute. Bihar, zapatua, izango da, 09:00etatik 15:00etan, Udalako Ingurumen eskolan. Prezioa 18 euro dira. partehartzeko ezinbestekoa da Mendikoi Fraisorora deitzea (943 69 21 66).

ELGETA
**> Ezker abertzaleak herri batzarrerako deia egin du**
Gaur, egubakoitza, egingo dute batzarra, 20:15ean, udaletxean. Egoera politikoaz eta Udal hauteskundeez jardungo dute.

ESKORIATZA
**> Sagardotegira irteera antolatu du Aitzorrotz Kultur Elkarteak**
Apirilaren 21ean egingo dute irteera –itzulera 22:00etan izango da–. Txartelak dagoeneko salgai daude Inkernu tabernan. Autobusen eta bazkariaren prezioa 35 euro da.

ANTZUOLA
**> Elikaduraren gaineko ikastaroa KZgunean**
Elikadura segurtasuna delako ikastaroa egingo dute apirilaren 19an, 17:00etatik 18:00etara. Dagoeneko eman daiteke izena.

BERGARA
**> Sabel dantza ikastaroan izena emateko azken eguna da gaur**
Oraindik plazak daude. Apirilaren 20tik 29ra izango da ikastaroa, 18:30etik 20:30era. Agorrosinen. Izena emateko jo kultura etxera.

ARETXABALETA
**> Klown ikastaroa antolatu du jaiki elkarteak**
12 orduko ikastaro trinkoa izango da: apirilaren 21ean egun osoz eta 22an, goizez. Prezioa 35 euro dira, 25 ikasle eta langabetuen kasuan. Izena emateko jo Aretxabaletako Azkena tabernara edo Arrasateko Aker Tatoo dendara apirilaren 18a baino lehen. 10 euroko fidantza laga beharko da.

ESKORIATZA
**> 1957an eta 1958ko urtarril eta otsailean jaiotakoen irteera**
Udan, ekainaren 9an egingo dute irteera Arratiara. Interesatuek honako telefonoetara deitu dezakete: 619 21 97 53 edo 943 71 50 42.

DEBAGOIENA
**> Aldundiaren udalekuetako zozketan parte hartzeko epea zabalik dago**
Zazpi eta 13 urte bitarteko neska-mutikoen kasuan martxoaren 22tik apirilaren 4ra arte eman ahalko da izena; 14 urtetik 17ra artekoen kasuan, berriz, apirilaren 19tik 26ra. Izena gazte bulegoetan edo *www.gipuzkoa.net/oporraldi* web orrian eman daiteke. Kanpainaren berri ere hortxe jaso daiteke

ANTZUOLA
**> Elkarteek webgunea lortzeko aukera dute KZgunean**
Webgunea izateko aukera eman nahi die KZgunek herriko elkarteei. Web orria erabat doan lor dezakete eta bi hizkuntzatan –euskaraz eta gaztelera z– nahi beste informazio sartzeko aukera izango du elkarte bakoitzak. Informazio gehiagorako deitu 943 79 94 44 (Aitor) zenbakira edo *antzuola-@kzgunea.net* helbidera idatzi.

BERGARA
**> 1927an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
Apirilaren 14an egingo dute, Lasa jatetxean, 14:00etan. Izena emateko 20 euro sartu beharko dira honako zenbakian: 3035 0009 18 0091115902. Apirilaren 10a da azken eguna.

BERGARA
**> Eski irteera Aste Santuan Pol-Polen eskutik**
Apirilak 6tik 14ra bitartean Alpeetara, Val Thorens-era irteera antolatu du Pol-Poleko eski sailak. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian edo *pol-pol.menditaldea@hotmail.com* helbidean.

DEBAGOIENA
**> Lankidetza ikastaroak udan, Hego Amerikan eta Afrikan**
Bakerako Lankidetza Batzarrak (BLB) Hegoaldeko herrialdeetako lankidetza ikastaroak antolatu ditu udarako: Guatemalan, Hondurasen, Marokon, Senegalen, Tunisian, eta abar. Argibideak 94 444 32 07 telefonoan edo *www.acpp.org* helbidean.

OÑATI
**> KZgunea itxita egongo da Aste Santuan**
Oporrak direla eta apirilaren 2tik 10era egongo da itxita.

ARANTZAZU
**> Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzu berezia etzi, domeka, hasiko da martxan**
Berrikuntza nabarmenarekin dator zerbitzua: urte bukaera arte mantenduko dute, iaz ez bezala. Domeka eta jai egunetan egongo da, ordubetero, 07:30ean hasi eta 20:00ak arte. Joan-etorriko txartela euro bat kostako da. Oñatin hiru geldialdi egingo ditu: Olakuan, Euskadiko etorbidean eta Korreosen.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

# Klima aldatzen dabilela uste duzu adituek dioten moduan?



**Tirso Martinez**
Langilea
Aretxabaleta

Bai, argi eta garbi. Gauza benetan harrigarriak gertatzen dabiltza, esaterako, lehortea lehenengo eta euri sasoi luzea gero. Jendeak aldatzen dabilela dio kalean, eta neu ere horretan nago.



**Mari Carmen Carrasco**
Langilea
Aretxabaleta

Bai, zalantza barik. Negu txarra izan dugu, lehorra eta epela; eta orain, udaberrian, eguraldi onaren zain gaudenean euria iritsi zaigu. Lehen moduko eguraldirik, behintzat, ez daukagu orain.



**Marije Antia**
Langilea
Aretxabaleta

Baietz esango nuke. Lehen zirimiria izaten genuen nagusi, zirimiria hasiz gero ezin geratu. Orain ez du hainbeste euri egiten, eta ni, neu, gusturago nabil. Hala ere, lehortea ez da komeni.



**Salvador Boyero**
Erretiratua
Aretxabaleta

Eguraldia beti aldatzen da, baina era berean sekula ez. Lehen moduan egiten duela euria esango nuke, baina lehen baino hiru aldiz gehiago xahutzen dugu. Behar bada zirimiri gutxiago dugu.



**Vicenta Jambrina**
Langilea
Aretxabaleta

Bai. Ni hona etorri nintzenean bizitzera euri asko egiten zuen, eta orain askoz gutxiago. Negua lehorra eta epela izan da; lehen elur gehiago egiten zuen, baina batez ere euri gehiago.

txaloak eta txistuak




M.A.

## Aretxabaletako sarrera arriskutsua da

Herritarrak kexu dira Aretxabaletako iparraldeko sarreraz. Errepidea oso egoera eskasean dagoela salatzen dute. Gero eta zulo gehiago sortzen ari direla eta aurretik daudenak etengabe handitzen direla diote. Gauean, gainera, argirik ez dagoela gaineratu dute.

asteko datua

# 53

Debagoieneko 53 kilometro zeharkatu zituen Korrikak. Lehen aldian 35 eta bigarrenean 18 egin zituen. Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Aramaio, Arrasate, Oñati, Antzuola, Bergara eta Elgetako ehun talde baino gehiago izan ziren.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

usteak uste

Larraitz Zeberio

## Gidaria loak hartu zuen

Ahizpak auto-istripua izan du asteburuan. Bikotea zortzi urteko umearekin zihoan autoan kontrako noranzkoan zetorren banaketa-furgoneta bateko gidaria loak hartu zuenean. Furgonetaren kontrola galdu eta aurrez aurre harrapatu zituen ahizpa, koinatua eta iloba. Ez ziren gaueko ordu txikiak, arratsaldeko 16.00ak ziren. Zorionekoak gara, izan ere bete beharreko agiri guztiak bete, autoari baja eman eta egin beharreko mediku azterketa guztiak egoki egin izan dira. Honekin esan nahi dut ahizpa, koinatua eta iloba ondo daudela. Ubeldura handiak dituzte gorputzean, bizkarreko eta lepoko minez kexu dira oraindik ere eta hartutako sustoa gainetik kendu ezinik dabiltza baina... ondo daude. Kontua zera da, zergatik hartu zuen loak gidari profesional hura? Ertzainek egindako kontrol guztien emaitzak negatiboak izan ziren. Ez zegoen ez edanda ezta drogatuta ere. Berak zioen moduan "loak hartu nau, besterik ez". Esan gabe doa kuluxka hori garestia irten zitekeela. Iruditzen zait txofer izatea ere ez dela inongo mauka. Askotan gehiegi estutzen dituztelakoan nago. Eta, pentsatuko duzue, ez dela nire asmoa hura zuritzea.

5 galdera...

## Oskar Elizburu

AEKko arduraduna
Arrasate

**1. Joan den astean Korrika pasa zen ibarretik. Zein izan zen jende gehien batu zuen kilometroa?**
Arrasate erdialdekoa, Arbolapetatik AEKren biribilgunearen zatiraino. Harrera beroa jaso du toki guztietan. Azpimarratzekoa da, kuriositate moduan, ezpeletatarrek, konpartsaren izenean, aitonak, semeak eta bilobak parte hartu zutela. Oso polita izan zen.

**2. Mozorroak eta aldarrikapenak ez dira falta izan edizio honetan...**
Hala da. Aretxabaletan hasierako korrikalari moduan azaldu ziren. Harrigarriena Udanan gora iritsi zen, bi mamu agertu zirenean. Inork ez daki nondik atera eta zeintzuk diren. Denetariko aldarrikapenak izan ziren, bestalde. Abiadura Handiko Trenaren aurkakoak, amnistia eta presoen aldekoak, eta euskararen normalkuntzaren aldekoak, beste askoren artean.

**3. Bizkorregi joan dela entzun izan da toki askotan...**
Beti pasatzen da bizkor. Aurten, kontuan hartuta goitik behera zetorrela, pausuak bizkorrago egin ditu ohituta dagoenak, eta besteak itota ibili dira. Furgonetakoak kontrolatu egin behar du hori eta normala denez, beti ez dute asmatzen. Nik uste dut, hala ere, jendeak gutxi entrenatzen duela.

**4. Ibarrera atzerapenarekin sartu da. Zerbait aurreratzea lortu zen?**
Bai. Gurean sartu zen lehen aldian ordu erdiko atzerapena zuen eta bost bat minutu errekuperatu genituen. Bigarrenean, Deskargatik Elgetara 25 minutu errekuperatu ziren. Hor bizkor joan zen.

**5. Zerbait berezia egin da emakume euskaldunak omentzeko?**
Bai. Sinadura bilketa arrakastatsua egin da atxikimendua adierazteko. Eskoriatzan hango emakumeen taldea omendu eta lekuko guztiak emakumeek eraman zituzten. Aretxabaletan, berriz, hiru irakasle omendu zituzten.



Apirilaren 14an ospatuko dute 32. urteurrena

Gaixoak eta alkoholikoen senideek parte hartuko dute

Zenbait gaixok euren esperientzia azalduko dute

**OSPAKIZUNA** > ALKOHOLIKO ANONIMOEN URTEURRENA

# Alkoholiko Anonimoek 32. urteurrena ospatuko dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Alkoholiko Anonimoen Arrasateko zentroak 32. urteurrena bete duela-eta, apirilaren 14an ospakizuna egingo dute udalerrian.

Bi batzar egingo dituztela iragarri dute. Batetik, Alkoholiko Anonimoen taldekideek eta bestetik, alkoholikoen senideek (Al-Anon taldeak).

Ekitaldiak 17.00etan hasiko dituzte.

**BERBALDI PUBLIKOA**

Horrekin batera, iragarri dute hainbat gaixok ere parte hartuko dutela berbaldi batean eta bizi izandako esperientzien berri emango dutela. Hori hasiko da 19:30ean, Kulturaten.

Bukatzeko, lagun arteko afaria egingo dute gaixotasunak eragindako pertsonen artean. Hala, Arrasatekoekin batera, Gipuzkoatik etorritako beste hainbat alkoholikok ere parte hartuko du ekimenean.

**GIPUZKOAN 36 TALDE**

Arrasateko Alkoholiko Anonimoen taldea deitzen da Arrasate Taldea. Esandako moduan, orain dela 32 urte sortu zen. Eta gaur egun 10-12 bat lagunek parte hartzen du gaixoen batzarretan. Taldekide batek honako adierazpenak egin ditu, taldeko esperientziaren gainean: "Sufrimendu esperientziak entzun nituen, bai eta zelan aurre egin halakoetan. Ikusi dut ere batzuk zela egiten duten alde handik, uste dute-eta osatuta daudela, eta gero ikusi dut norantz zihoan haien bizimodua, izan ere, senar-emaztearekin apartatu egin dira, edo kartzelan daude, ospitalean eta, beste batzuk utzi egin gaituzte betiko".

**NORA JO**

Arrasate Taldean parte hartu nahi izanez gero, bi bide daude horretarako. Gaixoen senideek (Udalaitz deitzen da Arrasateko senideen talde hori) batzar itxiak egiten dituzte, eguenetan, 20:00etan, Arrasate pasealekuko hirugarren atarian, behean. Gaixoak, berriz, batzen dira leku berean, baina martitzenetan. Haien batzarrak ere itxiak izaten dira.

Edozelan ere, halako talderen baten sartu nahi izanez gero edo informazioa behar izanez gero, harremanetarako bidea beste bat da: 629 14 18 74 telefonoa.

**BESTELAKO TALDEAK**

Arrasateko taldeaz gainera, gure ibarrean badaude talde gehiago, eta batzuk gainera, Arrasatekoa baino lehenago sortutakoak, Bergarako Intxorta taldea da horietako bat. Eskoriatzan, berriz, San Pedro Taldea dago eta Oñatin Aloña Taldea. Horiez gainera, Elgetan ere bazen lehen beste talde bat, baina hura itxi egin behar izan zuten.

## "Batzar hartan geratzearen helburu bakarra zen edateari uzteko gogoa, bai eta alkohol barik bizitzen ikastea"

**U.M.** > ARRASATE

**Alkoholiko anonimoen taldetik helarazi dute gaixoetako batek kontatutako esperientzia bat.**

"Gaixo alkoholikoa naiz eta Alkoholiko Anonimoetan nabil osatzen. Taldeetara heldu baino lehen, alkoholiko berba iruditzen zitzaidan bizitzan dagoen egoerarik txarrena. Horregatik, denbora luzea eman nuen aitortu habe alkohol arazoak nituela. Esaten dute ez ibili kopak edaten! Nire kasuan harrokeriagatik, alkoholak nirekin jolasten zuen, bai eta nire familiarekin eta nire ingurunearekin ere. Beti esaten uzteko gauza nintzela, baina egun hori ez zen sekula iristen. Geroago eta arazo handiago nuen.

Egun batean, emazteak esan zidan nirearen arazo berbera izan zuten batzuen laguntza eskatu zuela, eta haiek lortu zutela edateari uztea, eta haiekin berba egin nezakeela ea zelan lortu zuten edateari uztea. Talde horietako pertsona batekin berba egitea onartu nuen. Pertsona hark esan zidan bera ere alkoholikoa zela, edozein gaixotasun aipatzen duzun modu berberean, eta esan zidan alkoholismoak ez duela sendabiderik.

Hala ere, esan zuen motelduta zuela, izan ere, urte batzuk zeramatzan mozkortu barik. Esan zidan alkohol arazoak ditugun pertsonok edaten dugula gure borondatearen kontra; bere kasuan ere, nirean bezalaxe, dena zen promesa, baina berak bakarrik ezin zuen lortu edan barik egotea, eta niri ere horixe gertatzen zitzaidan. Esan zidan ez galdetzeko nire buruari banaizen edo ez naizen alkoholikoa.

Bilera batera joateko gonbitea egin zidan, denen artean edateri uzten lagunduko zidaten-eta. Orduan etorri ziren erantzunak.

Bilera horretara joan nintzen, zerbait ezezaguna, sekta baten antzekoa iruditu zitzaidan; baina oker nengoen guztiz.

Dena libre utzi zidaten; edatea edo uztea, han geratzea edo handik joatea. Ez zuten eskatu ez afiliatzeko ezta dirurik ere. Bakarrik adierazi zidaten, gura izanez gero, esateko izena. Besteak beste, inork ere ez zuelako esan behar ni han izan nintzela. Ez zegoen ez politikarik ezta erlijiorik ere. helburu bakarra zegoen han geratzeko: edateari uzteko gogoa, bai eta alkohol barik bizitzen ikastea. Programa hori zen gizonezkoendako zein emakumezkoendako.

## 600 euroko 60 kupoi saldu zituen Jesus Vidal Oncekoak

Jesus Vidal gazteak lau hilabete besterik ez daramatza ONCEko kupoiak saltzen, baina dagoeneko sari politak eman ditu Arrasaten. Azkena, martxoaren 23ko kupoiarekin eman zuen. 8.970 zenbakiarekin, hain justu ere. Halako 60 kupoi saldu eta bakoitzari 600 euro tokatu zitzaizkien. Gainera, justu hilabete lehenago, otsailaren 23an, *kuponazo*a eman zuen Arrasaten: 175.000 euro.

Biztanleen Arreta Zerbitzuaren kanpoko aldean edo kontzezinon dagoen Iamai taberna inguruan ibiltzen da saltzen.




IKER BARANDIARAN

> LANTEGIAK

### Polmetasako langileak geroarekin kezkatuta daude

Polmetasa fabrikako langileak lantegiaren etorkizunarekin kezkatuta dabiltzala jakinarazi dute.

Are gehiago, lantegiaren gaur egungo orubean eraiki behar dituzten etxebizitzen gainean prentsan publikatutako artikuluak direla-eta, honako ohar hau helarazi dute: "PMG Polmetasa SAUko langile taldeak zera adierazi nahi du: gaur egun hirigintza hitzarmenaren gainean udaletxe eta etxegilearen artean akordiorik ez dagoela.

Akordio ezak PMG Polmetasaren langile taldean zalantza handiak sortu ditu eta Arrasateko enpresaren jarraikortasuna kolokan jartzen du.

Ondorioz, konponbidea bilatzeko asmoz udaletxeko talde politiko guztiekin ta etxegilearekin elkarrizketak abiatzeko neurria hartu da, besteak beste".

**HIRIGINTZA** > SAN JOSEPE HARROBIAREN LURSAILA APROBETXATZEKO EKIMENA

# San Joseperako ideia lehiaketa maiatzean abiarazi ahal izango dute

## Behin betiko ideia aukeratu aurretik, herritarrei euren iritzia galdetuko diete

## Kalkulatzen dute Gabonak arteko astia uztea enpresek ideiak aurkezteko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Aurrera doa San Josepe harrobiarekin lotuta zortzi arrasatearrek bultzatutako ideia lehiaketa antolatzeko egitasmoa. Hala adierazi du Aitor Orobengoak, proiektuaren bultzatzaileetako batek. Dagoeneko erakundeen babes handia lortu dutela azpimarratu du hark: "Proiektuarekin zerikusia izan dezaketen elkarteekin egon gara (ingeniari eta arkitekto elkargoekin eta arkitektura eskolako zuzendariarekin). Proiektuari itxura profesionala ematearren egin dugu hori. Gainera, lehiaketa zuzena eta gardena egin nahi denean, halakoekin harremanetan jartzea komenigarria da baldintza orriak idatzi eta lehiaketaren nondik norakoak zehazteko".

Orobengoak gaineratu du zenbait erakunderen babesa ere lortu dutela: Foru Aldundiarena eta Eusko Jaurlaritzarena, alegia.

Bestalde, nabarmendu du berebiziko garrantzia duela Arrasateko Udalaren babesak: "Proiektu hau ez da pribatua, hiritar talde batena; osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrak. Hori horrela, ideia lehiaketaren deia Udalak egingo du eta horren ondorioz, ideia lehiaketan saarituko duten proiektuak udalerriko arauak bete egin beharko ditu, besteak beste".

### MAIATZAREN AMAIERA

Orobengoak jakinarazi du oraindik hilabeteko lana geratzen zaiela babesak-eta lortzen,"baina aurreikusten dugu maiatzaren amaierarako guztia gertu egongo litzatekeela".

Deialdi zabala egingo dute. "Normalean halakoetan ingeniaritza eta arkitektura enpresak aurkezten dira, baina edozeinek egin ahal izango ditu proposamenak. Hori bai, proiektu oso berezia denez arkitektura, ingurumena, energia eta ingeniaritza lotzen dituelako, ez du ematen arkitektura mailako proposamenak bakarrik aurkeztuko dituztenik. Gura ustez, proposamenak taldean osatu beharko dituzte, aipatutako lau atalak ondo uztartzeko".



**UNIBERTSITATEA** Seulen, ingurumen arkitektura erabilita, unibertsitatea egin dute, mendi barruan. GOIENKARIA

Horrez gainera, Orobengoak gaineratu du ideia lehiaketarako laguntza eskaini duten elkargo eta erakundeek ere lehiaketan parte hartzeko dei egingo dutela "bereziki ingeniari eta arkitektoen elkargoak hitz eman dute euren bitartez deia zabalduko duela, ahalik eta oihartzun handiena izan dezan".

### GABONAK ARTEKO EPEA

Maiatzaren amaierarako lehiaketa deitzea aurreikusteaz gainera, hortik aurrerako epeak ere zehaztuta dituztela kontatu digu Orobengoak: "Esan genezake ideia lehiaketaren helburua dela maiatzaren amaieran lehiaketa deitzea. Gero, aukera utziko dugu ekainean, uztailean eta abuztuan jendea etor dadin harrobia ikustera. Eta gure asmoa da Gabonak arte-edo izan dezatela astia proposamenak landu eta aurkezteko. Gero hasiko ginateke epaimahaiarekin lanean eta gero egingo genuke herri galdeketa".

### HERRITARREN IRITZIA JASO

Izan ere, Arrasaten, halako zerbait egiten den lehen aldia da. Proiektu berezia eta ezohikoa izateaz gainera, herriarendako eta herritarrendako ere garrantzitsua dela uste du talde bultzatzaileak.

Hori guztia kontuan hartuta, proiektuaren bultzatzaileek ezinbestekoa ikusten dute herritarren iritzia ere jasotzea eta hori zela egin ere pentsatuta dute: "Aukera izango dugu lehiaketaren azkeneko urratsean jendearen iritzia jasotzeko. Berba eginda dugu Jaurlaritzarekin eurek duten tresna bat erabiltzeko: *e-democracia*.

Hala, batetik, egingo dugu erakustaldi bat proposamenak erakusteko. Herritarrei galdetu egingo zaie zeintzuk diren euren ustez egokienak. Baina beste galdera baten bitartez, Arrasateko jendeari galdetuko diogu, baita ere, zelako beharrak aurreikusten dituzten herrirako, harrobian bete litezkeenak. Modu horretan, ideia lehiaketan parte hartu duten profesionalen iritzia izateaz gainera, herritarren iritzia ere izango genuke".

### INTERNET BIDEZ

Jaurlaritzari ere ondo iruditu zaio ideia hori eta *e-democracia* San Joseperako ideia lehiaketan erabiltzeari baiezkoa eman dio. Izenak dioen moduan, Internet bidez erabiltzeko tresna da *e-democracia*. Hau da, herritarren boza Internet bitartez jasoko dute.

### IDEIAK UZTARTU PROIEKTUETAN

Eta ez hori bakarrik. Herritarren iritzia oso kontuan hartzeko asmoa dute: "Bigarren itzuli horretan, ideia hoberenak aukeratu, herritarrek emandako iritziak kontuan hartu eta hiruzpalau lehiakideri aukera emango zaie azken proposamena egin dezaten, jasotako ideia hoberenak kontuan hartuko lituzkeenak eta baita ere herritarren iritzia. Izango litzateke azkeneko buelta bat ideiak borobiltzeko. Eta hortik aukeratuko litzateke proiektu onena. Guk nahi duguna da hau herri proiektu bihurtzea, hortaz, ezinbestekoa da herriari galdetzea duen iritzia".

### HARROBIAREN EZAUGARRIAK

Gutxi gorabehera, 1.200.000 metro kubiko ditu San Josepe harrobiak. Beste modu batean esplikatu digu Orobengoak: "Horrek esan nahi du garai batean New Yorken zeuden dorre bikietatik bat osorik eta bigarrenaren %60 sartuko litzatekeela orain harrobia dagoen lekuan. Hala, gure helburua da bolumen hori ahalik eta modu egokienean erabiltzea; ingurumen arkitektura deitzen den horren bitartez, mendiaren magalaren profilera gerturatzen den proiekturen bat lantzea, erabilera publiko eta pribatuak uztartzen dituenak eta ingurumenaren zaintza eta energia aprobetxamendua lantzen dituena".

### 2008AN ITXIKO DUTE

Harrobiaren egoerari dagokionez, Orobengoak argitu du harrobikoek eskubidea dutela 2008ko amaierara arte AP1 autobidearen tuneletik ateratzen duten harria lantzen jarraitzeko. "Egiten dutena da harria xehe-xehe egin eta harekin porlana sortu, gero berriro tuneleko obretan erabiltzeko. Horrez gainera, lehenagotik ere badute harria metatuta eta hura lantzeko eskubidea ere badute".

Beraz, urte eta erdi barru itxiko dute San Josepe Bi harrobia. 50 urte baino gehiagoan ibili dira harrobian lanean.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



**UDALA** > OHIKO OSOKO BILKURA

# Mesedeetako eskolaren auzian, Udala bitartekari

Asteleheneko osokoak onartu zuen ezin izango dela espekulatu Mesedeetako Andre Mari ikastetxearen lurrekin

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Hamar puntuko gai-zerrendaren barruan, udalbatzarrak astelehenean onartu egin zuen Mesedeetako Andre Mari ikastetxeko langile eta gurasoek aurkeztutako mozioa. Hain zuzen ere, hezkuntza zentro hori ixteko arriskuan dagoela-eta, babesa eskatu zioten Udalari. Eta Udaleko alderdi guztiek aho batez onartu zuten ikastetxekoen eskaera.

Laburbilduz, bi puntu onartu zituzten zinegotziek: batetik, eskolak duen lurzoru hura ez dutela birkalifikatuko, modu horretan, Mesedeetako erlijio ordenak ezin izango du lur haiekin espekulatu eskola ixtea erabaki arren.

Eta bestetik, erabaki zuten Udalak bitartekari lanak egitea erlijio ordenaren eta eskolako langile eta gurasoen artean, hezkuntza jarduerari jarraikortasuna emateko ahaleginean laguntzeko.

Eskolako langile eta gurasoen ordezkariak aretoan izan ziren eta haiek modu positiboan baloratu zuten udal erabakia. Edozelan ere, azpimarratu zuten oraingoz ez dutela erlijio ordenaren aldetik albiste berririk eta dakiten bakarra dela, egoera aldatu ezean, 2008an itxi egingo dutela Mesedeetako Andre Mari eskola.



**ORDEZKARIAK** Ikastetxeko langileen eta gurasoen ordezkariak ere izan ziren osoko bilkuren aretoan. U.M.




**HAUTAGAIAK** Ezker Batua-Zutik koalizioaren hautagaiak, aurkezpenean. U.M.

**POLITIKA** > UDAL HAUTESKUNDEAK 2007

# Joseba Ugalde Zutik-Ezker Batua koalizioaren alkategai

Ezker Batua eta Zutik batera aurkeztuko dira lehenenego aldiz, "Arrasateko ezkerra batzeko"

**U.M.** > ARRASATE

Joseba Ugalde (Ezker Batua-Berdeak) zerrendaburu dela, Ezker Batua-Zutik koalizioak beste honako zazpi hautagai aurkeztu ditu maiatzerako udal hauteskundeetara begira: Ander Rodriguez (EB-Berdeak), Julia Monge (Zutik), Jose Antonio Baz (EB-Berdeak), Pilar García (EB-Berdeak), Malen Errasti (Zutik), Juan Ramon Garai (Zutik) eta Jabier Abalde (Zutik).

Hala aurkeztu dute oraingo astean bi alderdietako ordezkariek. Azaldu zuten, besteak beste, Zutik eta EBren koalizioaren zergatia dela, "orain arte batera egindako lanari jarraipena" ematea. Guztiondako etxebizitza duinen, hirigintza jasangarriaren eta Urkulu, Udalatx eta Ekutioren alde egindako lana aipatu zuten adibide moduan.

Gaineratu zuten "euskal ezkerreko indarrek gizartean benetan" duten pisua azaldu behar dutela. Eta oro har, behar handienak dituzten pertsonen defentsa egiteko "indar handiagoa" izango dutela.

Bestalde, jakinarazi zuten koalizioan Aralarren presentzia lortzen ahalegindu arren, ez dela gauzatu, "gure intentzio eta desioen aurka". Hauteskundeen ostean hiru alderdien arteko "lankidetza berreskuratzea" espero dutela gaineratu zuten.

Joseba Ugalde (Arrasate, 1951) alkategaia hiru legegintzalditan zinegotzi izan da.

**POLITIKA**> UDAL HAUTESKUNDEAK 2007

# "Udalean bere lekua eskuratzeko eskubidea" erreklamatu zuen ezker abertzaleak

"Francoren garaietatik hona, Arrasateko Udalgintzaren historian, legealdi goibel, ilun, makur eta ezkorrena" bezala definitu dute




**KULTURATEN** Aurpegi ezagunak eta berriak aurkeztu zituzten Herri Anitzan. T.MADINA

**U.M.** > ARRASATE

2003-2007 legealdiaren gainean ezker abertzaleak egin duen diagnosia aurkeztu du Herri Anitzak. Labur esanda, zera diote: "Gobernantza noraezean ibili da, ez gobernu ez oposizio". Politikarien soldatak %171 igo dutela salatu zuten eta zera ere bai: "Autokrazia, autoritarismoa, izan dira gobernatzeko estiloa bultzatu dutenak". Halaber, udaletxea "herritarrei itxi" egin dietela azpimarratu zuten eta zera nabarmendu: "Hirigintza mailan gauzatu diren esku-hartzeak ezin eskandalagarriagoak izan dira, Arrasate Marbellarekin konparatzera iritsi arteraino".

"Euskara Korporazioaren hizkuntza bezala ia desagertu egin" dela ere salatu zuten, eta besteak beste, udal aldizkaria "propaganda politikorako tresna bihurtu" dutela. Salaketa gehiago egin ostean, ezker abertzaleak lanean jarraituko duela nabarmendu, eta zera erreklamatu dute: "Herriko lehen indarra izanik, Udalean bere lekua eskuratzeko eskubidea".

**ELKARTASUNA**> OPORRAK BAKEAN

# Gurasoak behar dituzte ume saharararrak ekartzeko

Izena emateko epea Aste Santu ostera arte luzatu du Sahararen aldeko Nubi elkarteak

**U.M.** > ARRASATE

Oraingo astean bertan egin du batzar informatiboa Nubi elkarteak, Oporrak Bakean egitasmoaren berri emateko. Udako hiru hilabeteetan Saharako kanpalekuetatik Arrasatera umeak ekartzeko familiak lortzeko beharra ere bazuen Nubik. Eta esperantza ere bai, gutxienez, iaz ume saharararrak etxean izan zituzten familia guztiak azalduko zirelakoan asteleheneko batzarrera.

Baina ez da horrela izan. Nubiko kide Agurne Juldainek azaldu digu asteleheneko batzarrean izan zirela "iazko batzuk eta berri bat, informazio eske". Bestela esatearren, bost familiak eman dute izena Tindoufeko kanpalekuetako umeren bat hartzeko. Eta gehiago behar dituztela azpimarratu du Juldainek: "Iaz Arrasatera etorri ziren hiru ume momentuz harrera familia barik daude. Gure elkartearen helburua da, gutxienez, iaz Arrasatera etorri ziren umeak gurera etortzea aurten ere".

Hori horrela, beste horrenbeste familia behar dituzte Arrasaten: hiru. "Dena den, umeak hartzeko gertu familia gehiago baldin badago, etor daitezela", gaineratu du.

**IZENA EMATEKO**

Beraz, Oporrak Bakean egitasmoan parte hartzeko interesa izanez gero, Nubi elkartekoekin harremanetan jarri behar da, Aste Santu ostea baino lehen, honako telefonoan: 685 72 48 16 (Agurne Juldain).

**HEZKUNTZA** > UDABERRIKO III. MUSIKALDIA

# Tirri Tarrak emango dio bukaera III. Musikaldiari

Tirri Tarrak, Goikobaluk eta Sotto Voce Orkestrak ikuskizuna egingo dute domekan

Gaur, egubakoitza, eta bihar Kulturaten eta parrokian kontzertuak egingo dituzte



**TIRRI TARRA** 33 urtetako ibilbidea du Tirri Tarra taldeak. TIRRI TARRA

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Udaberriko III. Musikaldiak bere azken txanpa ospatuko du asteburu honetan. Izan ere, gaur, egubakoitza, bihar eta etzi musika emanaldiak egingo dituzte herrian.

Gaur, egubakoitza, Conductus Ensemble taldea izango da San Juan Bataiatzailearen parrokian, 20:00etan. Zuzendaria Andoni Sierra da, eta honako piezak eskainiko dituzte: *J.S.Bach* eta *S. Juan Nekaldia*, hain zuzen ere. Bakarlariak honako hauek izango dira: Isabel Alvarez sopranoa, Jose Hernandez Pastor kontratenorea, Ismael Moreno tenorea eta Miguel Ramon baxua.

Bihar, zapatua, Josu Okiñena piano jotzaileak eta Razvan Suma biolontxelo jotzaileak kontzertua egingo dute Kulturateko areto nagusian, 20:00etan.

Razvan Suma Errumaniako biolontxelo jotzaile ezagunena da; eta Josu Okiñenak ibilbide luzea du pianoa jotzen. Larrauri, Ginastera eta Piazzollan piezak joko dituzte, besteak beste.

Domekan, Musikaldia bukatzeko, Tirri Tarrak, Goikobalu abesbatzak eta Sotto Voce Orkestrak *Luz negra/Argi beltza* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian, 20:00etan.

Tirri Tarrak 33 urteko ibilbidea dauka. Folkloretik musika garaikidera salto egin zuten. Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin, musika sinfonikoa eta elektronikoa batuko dituzte.

**MUSIKA**

## Des-Kontrol AEBetara bidean dago dagoeneko

Ingelesez eta euskaraz bina abesti grabatu berri dituzte egunotan

**I.B.** > ARRASATE

Des-Kontrol street punk talde arrasatearrak lau abesti grabatu ditu Donostiako Elkar estudioan, eta Jean Phocasek egin ditu teknikari lanak.

Grabatutako kantuetako bi ingelesez abestu dituzte atzerriko merkatuari eusteko. Hain zuzen ere, AEBn eta Erresuma Batuan argitaratuko dituzte street punk bilduma bitan.

Gainontzeko biak euskaraz abestu dituzte, eta biak taldeak berak koordinatutako *25 hits of Mondra underground sounds* bilduman sartuko dituzte: *Makina lehertu arte* kantu berria eta Decibelios taldearen *Vientos de libertad*, hain zuzen ere.

**ZAZPI EMANALDI AEBETAN**

Bestalde, bihar, zapatua, New Yorken izango dira. Horrez gain, ondorengo egunetan, Boston, Santa Cruz, Monterey, San Francisco, Sacramento eta Watsonvilleko musika zaleek talde arrasatearra zuzenean ikusteko aukera izango dute.

**MUSIKA** > PUNK ROCK ETA STREET PUNK KONTZERTUA

# AEBetako Hudson Falcons gaztetxean

Gaur, egubakoitza, AEBetako Hudson Falcons eta Aggressive Kombat arrasatearrak agertokian

**I.B.** > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, New Jerseyko (AEB) Hudson Falcons eta Aggressive Kombat talde arrasatearrak kontzertua egingo dute Arrasateko gaztetxean, 22:00etan.

Hudson Falcons taldeak ibilbide luzea dauka musikaren alorrean, eta honako hau bigarren aldia da Europan barrena bira egiten dutena. Oraingoan, Suiza, Alemania, Italia, Slovenia, Hungaria, Kroatzia, Austria, Txekia, Polonia, Suedia, Finlandia, Belgika, Herbereak eta Euskal Herria bisitatuko dituzte.

Punk-rocka egiten dute, melodia askorekin, eta zuzeneko oso indartsuak ematen ditu hirukoteak. Musika adituek hala definitu izan dituzte: Stiff Little Fingers, Devil Dogs eta Bruce Springsteenen arteko nahasketa bat balitz moduan. Springsteenen antzekotasuna abesteko moduagatik aipatuko dute. Taldekoek, ordea, punk-rocka egiten dutela diote, baina egia da mota askotako eraginak dituztela.

**STREET PUNK ARRASATEARRA**

New Jerseyko hirukotearekin batera, Aggressive Kombat arrasatearrak izango dira. Street punka egiten dute, eta orain dela gutxi *Etorkizun iluna* izeneko diskoa kaleratu dute, Madrilgo True Force diskoetxearekin.



**MELODIA ZAINDUTA** Hudson Falcons taldeak punk-rocka egiten du, eta melodiei garrantzia handia ematen diote. GOIENKARIA

> ATLETISMOA

### Martin Berrizbeitia lehenengo Lasarte Oriako milian

Joan den asteburuan Lasarte Oriako 4. milian izan zuten Arrasateko atletek hitzordua. Hala, kadete mailan Martin Berrizbeitiak esprint ederra eginda lehenengo zeharkatu zuen helmuga.

Infantiletan lehiatu ziren Andoni Perez, Rafa Cordero, Iñigo Uribarren, eta Josu Revuelta. Hala, azpimarratzekoa da Andoni Perezek egindako bigarren postua. Alebinetan 10. sailkatu zen Garazi Berrizbeitia, eta Junior mailan hirugarren sailkatu zen Markel Blanco.

> ESKUBALOIA

### Asteburuko kontrario Basauri, lau puntura

Euskadiko Txapelketan mantentzeko etxeko lanak eginda, Ford Mugarrik kategoria horretan esperientzia hartzen joateko baliatuko ditu geratzen diren norgehiagokak.

Oraingo asteburuko kontrario Internacional Basauri bosgarren lekuan dago, Arrasateko taldeak baino lau puntu gehiagorekin.

**SASKIBALOIA** > IGOERA FASEA

# Opor ostean Mugarri Alkesak kontrario zuzena izango du zain: Gasteizko Baskonia

Igoera faseko liderra mendean hartuta erakutsi du Mugarri Alkesak zer egiteko gauza den (76-71); maiatzaren 14an itzuliko dira lanera

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Arrasateko Mugarri Alkesa saskibaloi taldeak oporraldi ezohikoa izango du Aste Santuan, oraingo asteburuan hasiko dutelako atsedenaldi hori, eta apirilaren 14an itzuliko dira lanera. Zapatuan erdietsitako garaipenak lasaitasuna eman die, izan ere, sailkapenean ondoan dagoen Baskonia dagoeneko garaipen bat gutxiagorekin dago-eta. Gasteiztarrek orain dela hamabost egun egin zuten kale; Mugarri Alkesak, berriz, Consmetali irabazita ez dio utzi Baskoniari tartea txikitzen.



**ESTU-ESTU** Consmetalen kontra azken segundora arte egon ziren lehian. J.A

**PARTIDU GARRANTZITSUA**

Aste Santuko oporraldia eta gero jokatuko dute Baskoniak eta Mugarri Alkesak elkarren kontra, eta hori izango da orain arte jokatu duten norgehiagoka garrantzitsuenetako bat. Bi talde horiek dabiltza azken fasera sailkatzeko bigarren postuagatik lehian, eta momentuz, Arrasatek du abantaila.

Hala, Mugarri Alkesa joan den urtean egindakoa errepikatzeko bidean da.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Celaya-Abokajarro | 0-2 |
| Iriztu-Cipris | 3-3 |
| Billy & The Cowboys-THC | 7-7 |
| Betrayer-HLB 108 | 0-2 |
| Saukelu Abian-Dublin Irish Pub | 10-1 |
| Iluntz-Equs | 6-4 |
| Lasagabaster-Mc Awen Dauen | 4-1 |
| Iturriotz Taberna-Cicatrus | 2-3 |

**PARTIDUAK**

| Martxoak 31, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** McAwen Dauen-Betrayer. | **Iluntz** |
| **12:00** Saukelu-Iluntz Tab. | **Betrayer** |
| **13:00** Abokajarro-Billy&The Cow. | **Saukelu** |
| **16:00** Dribling-Iriztu | **Cicatrus** |
| **17:00** Cicatrus-AT Celaya | **Iriztu** |

| Apirilak 1, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** THC-Dublin | **Pippol** |
| **12:00** HLB 108-Pippol | **THC** |
| **13:00** Cipris Tab.-Equs Tab. | **HLB 108** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Saukelu Abian | 40 | 15 |
| 2. | AT Celaya | 35 | 15 |
| 3. | Dribling | 34 | 14 |
| 4. | Betrayer | 26 | 14 |
| 5. | Cipris | 27 | 15 |
| 6. | Iluntz | 29 | 15 |
| 7. | Iriztu Taberna | 25 | 15 |
| 8. | HLB 108 | 27 | 15 |
| 9. | Lasagabaster | 26 | 15 |
| 10. | Abokajarro | 23 | 15 |
| 11. | Manhattan Pippol | 17 | 14 |
| 12. | Iturriotz Taberna | 16 | 15 |
| 13. | McAwen Dauen | 14 | 15 |
| 14. | Dublin Irish Pub | 12 | 14 |
| 15. | Billy & The Cowboys | 11 | 15 |
| 16. | Equs | 9 | 15 |
| 17. | Cicatrus | 9 | 15 |
| 18. | THC | 5 | 15 |

### Apirilaren 22an jokatuko dituzte atzeratutako norgehiagokak

Lasagabasterrek eskatuta, oraingo asteburuan norgehiagoka bat atzeratuko dute, Lasagabasterrek eta Iturriotzek jokatu behar dutena. Hori horrela, dagoeneko sei talde egongo dira partidu bat gutxiago jokatuta. Antolatzaileek dagoeneko erabaki dute noiz jokatuko dituzten atzeratutako zeingehiagoka horiek; Aste Santua eta gero izango da, apirilaren 22an.

Horrekin batera esan, joan den jardunaldian antolatzaileek ez zutela talde edo jokalaririk zigortu behar izan; hori ez da egunero gertatzen.

## Arrasatek bihar hasiko du Kopa Txapelketa

Joan den astean hasi behar zuen Arrasatek Kopa Txapelketa, baina elurra zela-eta, Gasteizen egin beharreko debuta atzeratu egin zuten. Hala, oraingo asteburuan jokatuko dute Gaztedik eta Arrasatek lehenengo norgehiagoka (zapatua, 16:30, Gasteizko Gamarra zelaian). A multzoan dago Arrasate, eta Gasteizko taldearekin batera, Irun, Bera-Bera (Donostia), Ordizia, Atletico de San Sebastian eta Hernaniren kontra jokatu beharko dute.



GOIENKARIA

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

nire bidaia hura

## Josu Errasti

Txina > 2005eko urritik 2007ko otsailak arte

# "Neskek ez dakite edertasunaren kontzeptua zer den, oso naturalak dira txinatarrak"

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

**Curriculuma osatzeko asmoz joan zen Josu Errasti arrasatearra Txinara. Shangain emandako urte eta erdian txinoa ikasi du. Klase artean, bidai mordoa egin ditu .**

2005eko urriaren 10ean, urte eta erdi iraungo zuen abentura hasi zuen arrasatearrak. 20 miloi biztanle inguru dituen Shangai hirian hartu zuen ostatu. Hasieran, sei hilabetez egoteko asmoa zuen, unibertsitatean txinoa ikasten eta aldi berean lan egiten. Hala ere, hizkuntza ikasteari eman zio lehentasuna.

Lehen hilabeteak "etsigarria" izan baziren ere, ikasten jarraitzea erabaki zuen. "Ulertu ere justu samar egiten nuen", azaldu du Errastik. Hurrengo hilabeteetan nabarmen egin zuen hobera, inolako arazorik gabe hizkuntzarekin. Goizean lau ordu egiten zituen unibertsitatean. Arratsaldean bere kabuz ikasten zuen, baita kirola egin ere.

Hango bizimodua erabat ezberdina dela dio arrasatearrak. "Hango kulturak ez dauka zerikusirik hemengoarekin", azpimarratu du. Arrasatearraren iritziz, "oso naturalak" dira eta ez diote irudiari kasu handirik egiten. "Neskek ez dakite edertasunaren kontzeptua zer den", azaldu du. Ildo horretatik, higiene-arazoak ikusi dituela dio.

**ARROZA, BAZKARIEN OINARRI**

Bazkaltzerakoan, bestalde, horren ezagunak diren zotzekin egiten dutela gogorazi du. "Zu horrela moldatu behar zara, han ez dagoeta sardexkarik", esan du. Euskal Herrian ogiak duen garrantzi bera du han arrozak.

Jatetxeak ere edonon aurki daitezkeela adierazi du. Horren harira, kontu handiz ibili beharra dagoela dio, kale erdian dauden postu gehienetan ez direlako oinarrizko higiene neurriak betetzen. Erosketak egiterako orduan ere, txinatar batekin joatea eta tratua egitea gomendatu du Errastik, bestela produktu beragatik gehiago ordaintzeko arriskua dago-eta.



Irudian, Josu Errasti arrasatearra.

**"Eski estazioetako materiala zaharkituta zegoen, hemengoekin alderatuta"**

**"Gui Lin zonaldeak harritu ninduen, oso menditsua eta polita iruditu zitzaidan"**

Bestalde, bidaiatzeko ere aprobetxatu du. Lehen irteera Sanyara egin zuen. Han munduko Buda eskultura altuena ikusi zuen, besteak bete. Eskiatzen ere izan zen. Arrasatera egindako joan-etorri batean, etxeko botak hartu zituen eta lau egun eman zituen eskiatzen.

**30 GRADU ZERO AZPITIK**

Egun horietan 30 gradu zero azpitik egin zituela adierazi du. Haizea egon ezean, tenperatura horiek jasangarriak direla jakinarazi du. Irteera horrekin lotuta, gainera, estaziotako materiala oso "zaharkituta "zegoela gogoan du.

Hong Kong ezagutu zuen beste batean. Hiru egun pasa zituen han. Hango jendea edukazio onekoa zela azaldu du. Horrez gain, bazkariaren kalitatea ere Shangaikoa baino hobea zela dio. Ostatua hartzea, berriz, ekonomikoki indartsuena den Txinako hiri hartan garesti samarra zela dio.

Guang Zhou, Macao, Pu Tuo irlan eta Gui Lin bisitatzeko aukera ere izan zuen. Azken zonalde horrekin harrituta bueltatu zen arrasatearra, "Oso menditsua eta polita iruditu zitzaidan", azpimarratu du.

Etxera behin betiko etorri aurretik, Thailandiara eta Indonesiara joan zen. Azken irteera hori bertako lagun batekin egin zuen. Irlako toki esanguratsuenak erakutsi zizkion lagun horrek.

Joan den otsailaren 12an iritsi zen Errasti Arrasatera. Urte eta erdi kanpoan eman ostean, betiko bizimodura berriro ohitzea kostatzen ari zaiola onartu du. Ehunka argazki gordetzen ditu, baita oso oroitzapen onak ere, mundu osoko lagunak egin ditu-eta denbora tarte horretan.



Josu Errasti Txinako Mendi Horiko gailurrera igo zen herrialdetik egindako irteera batean.

bere ustez



**Jokin Etxebarria**

## Tengo gambas, tengo chopitos...

Batzuek agian gogoan izango dute zenbaki izena duen Espainiako itsuen erakundeak ateratako iragarki hura. Gerora, beste iragarki batek janari sanoa egitera bultzatuko gintuen *"tapitek"* tripatxoa hazten zutelako. Baina, *"tapita"* horiei agur esatea ez da erraza. Gure kulturaren zati bati agur esatea bezalakoa izango litzateke.

Lagunekin gure tradizioko beste erritu bat -poteoa- egiten gabiltzan bitartean pintxo batekin tripak betetzea bezalako plazer askorik ez dago. Euskal Herritik kanpo, pintxoaren tradizioa taparenean bihurtzen da. Ohitura honek, baina, badauka ezberdintasunik. Handiena: leku gehienetan ez dela ordaintzen.

**"Tapek agian, ez dute pintxoen elaborazioa, baina poltsikoak ederki igartzen du aldea"**

Tapek agian, ez dute pintxoen elaborazioa, baina poltsikoak ederki igartzen du aldea. Bada, asteburu honetan, Ezkarain egon naiz. Bertan famatua da taberna bat eskatutako tragoaz patata frijitu platertxo bat ematen dizutelako. Konprobatzera joan ginen neska eta biok eta halaxe egiten dutenik ezin ukatu. Hori bai, guri ez zitzaigun platertxorik iritsi.

Agian, gainean generamatzan txamarrek euskaldunak ginela argi erakusten zutelako, eta Euskal Herrian tapak ordaindu egiten direnez...

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82




UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**OSPAKIZUNA** > ERRAMU ZAPATUA

# 100 postutik eta animaliatik gora Erramu Zapatuko ferian, bihar

Horrez gainera, Jardunek maskota aurkeztuko du, Kilometroetakoek txosna eta denda izango dute eta ALCERek informazio mahaia jarriko du

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Dena gertu dute dagoeneko bihar, zapatua, Erramu Zapatu eguna ospatzeko. Ganadu erakusketa, artisauak, trikitilariak, txorimalo lehiaketa, haurrendako jolasak eta bertso jaialdia egongo da aurten, besteak beste.

**TOKI ALDAKETA**
Udalak antolatutako egitarauan, postuen leku aldaketa da nobedaderik nabarmenena. Domingo Irala kalea hankaz gora dagoenez, Ikerleku kalean (Novedades zinemaren kantoia) jarriko dituzte Domingo Iralan urtero egoten diren postuak. Errege seminarioan, Ibargarain, Fraiskozurin, Simon Arrietan, plazan eta Muniben ere egongo dira postuak.

Guztira, artisauen 47 postu egongo dira, hiru talogile koadrila, elikagaiak salduko dituzten 56 postu eta 80 behi buru, besteak beste. Animalia horiez gain, oiloak, oreinak eta pottokak ere egongo dira. Ganadu erakusketa dela eta, Ibargarai kalea itxita egongo da ibilgailuendako arratsaldera arte.



**FERIA** Bihar, zapatua, ospatuko duten aurtengo Erramu Zapatu eguna. GOIENKARIA

**JARDUNEN MASKOTA**
Bestalde, 25 taldek eman dute izena txorimalo lehiaketan parte hartzeko. 12:30ean izango da sari banaketa eta ostean, maskota aurkeztuko du Jardun elkarteak. Kilometroen aldeko lantalde batek txosna jarriko du seminarioan. Txosnaren ondoan, udaberri eta udako arropen denda jarriko dute eta arratsalderako, haur jolasak antolatu dituzte Jardunekin batera, Muniben. Giltzurrun gaixoen elkarteak, berriz, mahaia jarriko du Peñalba ondoan.

## Udaletxea ezagutu dute herriko ikasleek

Udaletxea bertatik bertara ezagutu dute San Martin ikastetxeko hirugarren mailako ikasleek. Argazkian ikusten den moduan, gobernu batzordeko gela nolakoa den ikusi zuten ikasleek, adibidez. Udaletxeko bisita gidatuaz gain, Victoriano Gallastegi alkateari elkarrizketa egin zioten ikasleek eta besteak beste, zinemari buruz galdetu zioten.

Orain, udaletxean ikusitakoari eta ikasitakoari buruzko lan bat egingo dute ikasleek, eraikineko argazki eta guzti.



SAN MARTIN AGIRRE IKASTETXEA

**TEKNOLOGIA** > ETENGABE IKASTEN JARRAITZEKO

## Formaziorako web gunea sortu du Miguel Altunak

Debagoieneko formazio ikastaro guztiak sartu dituzte sarean

**O.E.** > BERGARA
Etengabeko formaziorako web gunea jarri du sarean Miguel Altuna Institutuak: *www.bizikasi.com*. Bizitza osoan zehar ikasten eta formatzen jarraitzeko aukera ematen du web gune horrek. Horregatik, Bizikasi izena jarri diote proiektuari. Haurreskolatik hasi eta erretiro ostera arteko formazio aukerak batzen ditu, Debagoiena osokoak. Edonori zuzendutako web gunea da baina batez ere lan merkatutik urruti daudenendako, etorkinendako edo langabezian denbora asko daramatendako, adibidez.

**AHOLKULARITZA ZERBITZUA**
Bizikasi proiektu horren web gunea Oskar Gesteriak diseinatu du eta formazioari buruzko informazioa jasotzen du hainbat ataletan banatuta. Baina horrez gain, bitartekari bat ere eskaintzen du aholkularitza zerbitzua emateko. Saretik, telefonoz edo ikastetxera joanda lortu daiteke aholkularitza zerbitzu hori. Bergaran eta Tolosan jarri dute abian Bizikasi proiektua eta beste bailaretara zabaltzea nahi dute.

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65


POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

**ENPRESAK** > Q SARIA LAZPIURRENDAKO

# Urrezko 'Q'-a jaso du eguenean Lazpiur enpresak

EAEn zazpi industria enpresek dute sari hori eta Lazpiur da Bergarako bakarra

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Lazpiur enpresak urrezko 'Q'-a jaso du. Iaz jakin zuen enpresa horrek saria emango ziotela eta atzo, eguena, eman zioten ziurtagiria. Urrezko 'Q' txikiak ere banatu zituzten langileen artean. Ana Agirre industria sailburua, Xabier Alkorta Euskaliteko presidentea eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea egon ziren ekitaldian. Enpresaren instalazioak bisitatu zituzten eta urrezko intsignia txikiak banatu ostean hitzaldia eman zuten, Miguel Lazpiurrekin batera.



**SARIA** Ana Agirre industria sailburua urrezko 'Q'aren ziurtagiria ematen. O.E.



**LAN ASKO** Oraindik lan dezente dute egiteko seminarioan; argazkian Diputatu nagusia eta alkatea hura ikusten. GOIENKARIA

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Errege Seminarioan hiru azterketa egingo dituzte

Errege Seminarioko auditoriumaren akustika aztertuko dute eta haren gaineko azterketa geoteknikoa eta arkeologikoa ere egingo dituzte

**UBANE MADERA** > BERGARA

Errege Seminarioko auditoriumeko lur mugimendua eta zimentazioaren azterlan geoteknikoa egitea onartu zuen udalbatzarrak aho batez asteleheneko osokoan. 29.800 euro bideratuko dituzte horretarako. Hala, orain lehiaketa deitu dute azterketa hori zeinek egin adjudikatzeko. Proposamenak aurkeztu behar dira apirilaren 16a baino lehen, Udaleko Erregistro Orokorrean.

Bestalde, udalbatzarrak onartu zuen, baita ere, auditoriumaren akustika (erreberberazio denboraren neurketarekin) aztertzeko lana ere egitea. Kasu honetan adjudikazioa ere erabaki zuten: Eko Ingenieria Acustica SL enpresak egingo ditu. 6.266 euroko aurrekontua eta 45 eguneko epearekin.

**ARKEOLOGIKOA**

Horren harira, aretoan zeuden Bergara Aurrerako kideek galde eta erreguen tartean adierazi zuten komenigarria litzatekeela edozein azterketa egin baino lehen, azterketa arkeologiko bat ere egitea: "Iruñean Gaztelu plazan gertatu zena hemen ez errepikatzeko". Alkateak erantzun zien azterketa hori egiteko asmoa badutela.

Bestalde, Bergara Aurrerakoek salatu zuten, besteak beste, Udala dabilela proiektuak onartzen aurrekontua egin barik duenean. Alkateak esan zuen laster aurkeztuko dutela aurrekontua.

> ETXEBIZITZAK

**San Antonion egingo dituzten 30 etxebizitza tasatuetarako 66 eskaera jaso dituzte Suradesan**

Orain arte 66 eskaera jaso dituzte San Antonioko 30 etxebizitza tasatuen zozketarako. Horietatik 57 bergararrek egindakoak dira eta beste bederatziak, Arrasatekoek. Suradesan apirilaren 4ra arte eman daiteke izena eta Bergarako Udalean, apirilaren 10era arte.

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

**TURISMOA** > HERRIKO ONDAREA ERAKUSTEA HELBURU

# Bisita gidatuak Aste Santuan

## Turismo Bulegoa maiatzaren 1era bitartean egongo da zabalik, udaletxeko sarreran

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Udal Turismo Bulegoa atzo zabaldu zuten eta maiatzaren 1era bitartean izango da zabalik udaletxeko sarreran. Ohikoa denez, bisitariei informazioa eskaintzeaz gain, Aste Santuan zehar bisita gidatuak antolatuko dituzte, bisitariei zein herritarrei zuzenduta. Azken urteotan bezala, Bilboko Nis enpresa arduratuko da Turismo Bulegoa eramateaz eta bertan bi lagun arituko dira lanean: Kati Gallardo eta Miren Iturrikastillo. Dagoeneko 11. urtez zabaldu dute Turismo Bulegoa Aste Santuari begira. Lehen aldiz 1995eko udan zabaldu zuten bulegoa.

**SASOI APROPOSA**

Xabier Aranburu udal museologoaren hitzetan, "Aste Santua sasoi aproposa da bisitariak jasotzeko eta halaxe baieztatu dugu azken urteotan. Estatuko bisitariak dira nagusi, Kataluniakoak batez ere. Madrildik ere jende dezente etorri izan da. Ikusi behar zer nolako erantzuna jasotzen dugun aurten baina baikorrak gara".

Turismo Bulegoa ondoko ordutegian izango da zabalik: 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Domekan eta jaiegunetan goizez bakarrik egongo da zabalik, 11:30etik 14:30era. Hala ere, Ostegun eta Ostiral Santuan goizez eta arratsaldez zabalduko dute, bisitari gehien orduan izaten delako. Argibidetarako 943 77 91 28 telefonora deitu dezakezue. Ondoren, udarako, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean zabalduko dute.



**ONDAREA** Herriko ondarea ezagutzeko bisita gidatuak eskatzeko aukera dago Bergarako Turismo Bulegoan. GOIENKARIA



GOIENKARIA

## Edurne Erañaren olio erakusketa

Edurne Erañaren margo erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan, martxoaren bukaerara arte. Hamaika olio jarri ditu ikusgai, paisaiak, erretratuak edo natura hilak tartean. Erañak urte dezente darama pintatzen: Simon Arrietaren eta Miguel Okinaren eskutik hasi zen margolaritzan, eta Moises Egurenek animatuta arte ikasketak egin zituen Bartzelonan. 25 urte darama marrazketa eta pintura erakusten. Nahikarira etorri aurretik, Elgetako Espaloian ere erakusketa egin berri du.

> MARGOAK

### Daniel Txopitearen margo erakusketa Aroztegi aretoan ikusgai, apirilaren 15era arte

Daniel Txopitea (1950-1997) margolariaren erakusketa zabalik dago Aroztegi aretoan, apirilaren 15era arte: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; domeketan, 12:00etatik 14:00etara .

> LITERATURA

### Koldo Eleizalde lehiaketa deitu du Udalak: ipuinak, komikiak, bertsoak eta antzerkia

Koldo Eleizalde 22. Literatur Lehiaketa deitu du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Bertso eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte, eta horiez gain ipuin eta antzerki lehiaketak izango dira. Lanak entregatzeko epea apirilaren 20ra arte dago zabalik. Argibideak 943 77 91 79 telefonoan edo *ljimenez@bergara.net* helbidean.

> MUSIKA

### Rose Tattoo hard rock taldeak emanaldia egingo du domeka gauean Jam aretoan

Rose Tattoo taldearen emanaldia izango da domekan Jam aretoan. Ateak 20:00etan zabalduko dituzte. Sarrerak salgai daude: 22 eurotan aurrez erosiz gero eta 25 eurotan domekan bertan Jameko leihatilan erosiz gero.

JOXAN
ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

> TXIRRINDULARITZA

## Zikloturistek 76 kilometroko irteera dute domekan

Domeka honetarako irteera prestatu du Bergarako txirrindulari elkarteak. Hitzordua 09:00etan dago jarrita, San Martin plazan.

Bergara atzean utzita Oñatirantz abiatuko dira txirrindulariak. Aztiria, Segura eta Liernia zeharkatu ostean, Ormaiztegira iritsiko dira. Eitzagatik Zumarragara iritsiko dira eta Udana mendatea gainditu ostean, Bergarara bueltatuko dira. Guztira, 76 kilometro egingo dituzte domekan herriko zikloturistek.

> IGERIKETA

## 0 eta 3 urte bitarteko ikastaroan plaza libreak geratzen dira

0 eta 3 urte bitartekoen igeriketa ikastaroan 16 pertsona eman dute izena. Jende gehiagok izena eman nahi badu posible da oraindik. Interesatuta dagoenak Agorrosinera joan behar du eta han orri bat bete behar du.

Guztira, bost talde daude. Astegunetan bi, 16:30an, bat astelehen eta eguaztenean eta bestea martitzen eta eguenean. Asteburuetan, berriz, hiru talde daude, goizez. Ikastaroak ordu erdiko iraupena du. Argibideak: 943 77 70 95.

> TXIRRINDULARITZA

## Jon Odriozolak irabazi du Lokatzaren zozketa

Joan den domekan izandako Gorlako igoerako zozketaren zenbaki saritua jakinaraztera eman du Lokatza Ziklismo Eskolak. 58 zenbakia izan da irabazlea.

Jon Odriozola izan da aurtengo zozketako irabazlea. Errioxako ardo kaxa bat eta urdaiazpiko ederra irabazi eskuratu ditu Odriozolak. Lokatza Ziklismo Eskolak eskerrak eman nahi dizkie zozketan parte hartu zuten guztiei.

**FUTBOLA** > ERREGIONAL MAILA

# Tolosaren kontra lehiatuko dira bergararrak Agorrosinen

Sailkapenean aurrera egin nahiz mailaz jaisteko aukera gutxi ditu Bergarak. Hori dela-eta, "nahiko erlaxatuta" daudela dio entrenatzaileak



**ETXEAN SENDO** Josu Agirrezabal, Usurbilen aurkako partiduan. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Erregional mailako taldeak etxean jokatuko du zapatu honetan, Tolosaren aurka. Norgehiagoka 16:30ean hasiko da Agorrosin ekintza gunean.

Bost jardunaldi baino ez dira falta liga txapelketa amaitzeko. Bergararrak taularen erdialdean aurkitzen dira, zortzigarren postuan. Igo nahiz jaisteko aukera gutxi dituztela eta, futbolarien artean "motibazio falta" dagoela jakinarazi du entrenatzaile Neka Galanek. "Nahiko erlaxatuta gaude", dio.

**SEGURARI IRABAZI ZION**

Pasa den asteburuan hiru puntu lortu zituzten Segurako mutilen aurka. 0-2 irabazi zuten. 35 puntu dauzkate. Lehen postuak Amaika Bat, Zumaiako eta Eibartarrak taldeentzat dira. Berdinduta daude 53 punturekin. Zapatuko partiduaren ostean, Aste Santuan atsedena izango du taldeak.



GOIENKARIA

## Sariak lortzen jarraitzen dute Ariznoakoek

Lan bikaina egin zuen Ariznoa taldeak joan den astean izandako Eskola Arteko B txapelketan. Alebin mailako taldea nagusitu zen. Alegia, Irene Odriozola, Irene Ramos, Andrea Rubio, Esther Cabo eta Michelle Rajadok osatutakoa. Infantiletan ere lehenak izan ziren Onintza Legorburu, Jone Larrañaga, Ane Alberdi, Amaia Irastorza eta Eukene Bastarrika. Banakoetan Ane Miren Muguruza eta Jennifer Pineda gainontzekoen aurrean gailendu ziren eta Onintza Legorburuk bigarren postua eskuratu zuen.

**labegaraieta**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Irubide - Errota Gain | 3-8 |
| Tiki Taka - Niu Tim | 1-7 |
| Teatekh - Irish Pub | 6-4 |
| Belengua - K. Piperrak | Atsedena |

**PARTIDUAK**

| Apirilak 1, domeka | Epaileak |
|---|---|
| 09:30 K. Piperrak - Teatekh | Belengua |
| 10:30 Irubide - Belengua | Niu Tim |
| 11:30 Niu Tim - Errota Gain | Irubide |
| Tiki Taka eta Irish Pub | Atsedena |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Errota Gain | 37 | 13 |
| 2. | Niu Tim | 36 | 13 |
| 3. | Teatekh | 27 | 13 |
| 4. | Tiki Taka | 16 | 14 |
| 5. | Irish Pub | 15 | 14 |
| 6. | Irubide | 10 | 13 |
| 7. | Belengua | 6 | 13 |
| 8. | K. Piperrak | 4 | 13 |

## Liga jokoan dago txapelketaren azken jardunaldian

Asteburu honetan liga txapelketako azken jardunaldia jokatuko da. Liga jokoan jarraitzen du, Niu Tim eta Errota Gain taldeen artean. Azken hauek asteburu honetako partiduan berdinketa lortzearekin nahikoa dute aurtengo txapeldunak izateko. Azken partidu honen ostean sari banaketa egingo da. Lehenak eta bigarrenak kopa jasoko dute. Ez horiek bakarrik; atezain eta golegile onenarendako sariak izango dira baita. Momentuz, golegile onena Niu Tim taldeko Iñaki Corral futbolaria da. 31 gol sartu ditu aurtengo txapelketan. Urrun geratzen da bigarrena: Errota Gaineko Aitor Antonek 24 gol egin ditu.

Atezainei dagokionez, Jose Angel Torres doa lehen postuan. Errota Gain taldeko atezainak 23 gol jaso ditu orain arte.

Sari banaketaren ondoren, luncha egongo da kiroldegian. Jendea joateko deia egin dute antolatzaileek, jardunaldi interesgarria eta erabakigarria delako. Onenak irabaz dezala!

Osasuna + edertasuna + ongizatea =
ELITium
Tratamendu pertsonalizatuetan onena
Tratamendu erosoak eta ez erasokorrak:
• Estresaren aurkakoa
• Zelulitisaren aurkakoa
• Sendotzailea
• Likidoen erretentzioa
• Zirkulazio arazoak
• Drainatzailea
• Izter lodiak
Estetika zentroa Igaro
Zure gorputza udarako presta ezazu!
Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
MUJIKA BURDINDEGIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GOIENKARIAren PUBLIZITATE GEHIGARRIA

# Kulturate

Egubakoitza / 2007ko martxoaren 30a / **Arduraduna:** Monika Belastegi / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga



Melina Lopez arrasatearraren 'Sentsazioak' bildumako eskultura

AZALA: OXEL ARRIETA / ARGAZKILARIA: XABIER URTZELAI

*Kulturaren alde*
*beste urrats bat!*

kultur:
ate:

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

AMENABAR

■ OBREN BILAKAERA

# Lau urte eta ia zazpi milioi euro inbertitu dituzte

UBANE MADERA

**Frantziskotarren komentu zaharra erosi eta hura eraberritu du Udalak azken lau urteotan. 6.849.564,06 euro inbertitu eta arrasatearrendako kultura etxe berria sortu du: Kulturate. Bere izenak adierazten du helburua eta filosofia: "erabat zabalik dagoen espazio kulturala".**



Eraikin zaharberrituaren aurreko aldean parketxoa ere egin du Udalak, Aramaio erreka bistan utzita. IKER BARANDIARAN

**Gipuzkoako Foru Aldundiak 901.500 euro eman ditu Kulturate egiteko**

**Eusko Jaurlaritzak beste 200.000 euroko laguntza eman zuen**

**Obra bi bider atzeratu zen: egiturarengatik eta klaustroengatik**

2002ko ekainean hasi eta 2006ko urrira arte ibili dira obrak egiten frantziskotarren komentu zaharra eraberritu eta kultura etxe izateko. Aurreko legegintzaldian hasi ziren, beraz. Zarauzko Amenabar enpresari esleitu zizkioten lanok.

Hasiera motela izan zuten obrek. Diputazioak eraikinaren fatxadek monumentu izaera dutela esan, eta babestu egin behar zirela adierazi zion-eta Udalari. Baina, obrak hastean ikusi zuten egitura ez zela uste bezain sendoa, eta urtetan egindako bestelako obrek zalantzan ipintzen zutela monumentu izaera. Aldundiari galdetu zioten atzera baina hark paretak babesteko esan zien berriro.

Beraz, eraikinaren egitura sendotu egin behar izan zuten lehenengo eta gainera, beste zailtasun bati ere aurre egin behar izan zioten: klaustroetako eustormak gordetzeko Udalaren eta Diputazioaren eskaerari. Horrek guztiak ekarri zuen denboran atzeratzea eta aurrekontuaren handitzea. Gainera, proiektuak beste aldaketa bat ere jasan zuen aurrerago: klaustroak estaltzeko beharrak eragindakoa.

**ARRASATEKO ENPRESAK ETA BESTE**

Azkenean, 2006ko urrian ikusi zen lan guztiaren emaitza: Kulturate. AZK enpresak diseinatutako irudi korporatiboak adierazten duen moduan: Kulturara zabalik dagoen atea. Ibarreko beste enpresa bat arduratu da errotulazioaz: Zaldibar Errotulazioak, hain zuzen. Eta ibarrekoa da, baita ere, bulego altzariak ipini dituen BZ Sistemas. Horiez gainera, ibarreko beste enpresa batek ere egin du lan Kulturaten: Antzuolako Erreka enpresarenak dira sarrerako ate automatikoak. Apur bat urrunagoko Omega Elevator enpresa gasteiztarrak ipini ditu igogailuak. Eta Minado enpresa donostiarrak ipini ditu aparailu elektronikoak.



Ia 30.000 liburu dituzte gaur egun Kulturaten. XABIER URTZELAI

- **10.453**
  **Bazkide**
  **Hamar mila bazkidetik gora ditu Kulturatek, edo hobe esanda, Kulturateko biblioteka zerbitzuak.**
- **6**
  **Langile**
  **Sei langile ditu Kulturateko bibliotekak (haur liburutegia eta fonoteka-hemeroteka, barne). Zazpigarrenak, berriz, Santa Marinako auzo liburutegian dihardu. Horrez gainera, kultura etxeak beste langile bat dauka erakusketak zaintzeko eta bestelako lan batzuk egiteko.**
- **8**
  **Udal teknikari**
  **Zortzi udal teknikarik ere Kulturaten lan egiten dute: Kultura, Euskara eta Hezkuntza Sailetako teknikariek, alegia.**
- **28.503**
  **Liburu**
  **Ia 30.000 liburu dituzte; 250 aldizkari eta 1.819 disko konpakto. 1.293 VHS eta 1.283 DVD ere bai.**
- **6.849.564,06**
  **Euro**
  **Ia zazpi milioi euro kostatu du Kulturate eraikitzeak.**
- **1580**
  **Komentuaren hasiera**
  **Juan de Araoz eta Uriartek (Arrasate, 1525), testamentua eta kodizilioa utzi zuen San Frantziskotarren komentua sortzeko. Mexikoko mehatzetan aberastu zen hura eta bere lagun Esteban Garibaik aholkatu zion Teologoen Eskola-komentua sortzeko.**

ZALDIBAR
ERROTULAZIOAK
Argidun errotuloak • Letra gorpuzdunak • Errotulazio itsasgarria
• Grabatuak • Fresaketak • Seinalizazioa
Torrebaso pasealekua, 6-F Pab. 20540 ESKORIATZA Tel.: 943 71 57 53 Faxa: 943 71 57 54
zaldibar@ibercom.com


## ERAIKIN BERRIAK ZERBITZUEN ESKAINTZA GEHITU DU

# Zerbitzu ugari gune bakar batean





MONIKA BELASTEGI

**Kulturara hurbiltzeko ate gisa definitu dute arduradunek Kulturate eta hurbilketa horretarako zubi lana eraikinak eskaintzen dituen zerbitzuek egiten dute: biblioteka, areto nagusia, klaustroa, erabilera anitzeko gelak, informatika gela eta pintura gela dira, hain justu, kultura etxeak eskainitako zerbitzuak.**

Egungo premietara egokitzen den kultura etxea egitea izan dute xede udal arduradunek. Helburu hori gauzatzeko asmoz diseinatu dituzte Kulturateren instalakuntzak, eta nola ez, eskaintzen dituen zerbitzuak.

Areto nagusia, erakusketetarako klaustroa, pintura gela, erabilera anitzeko lau gela, informatika gela eta liburutegia dira Kulturatek eskaintzen dituen zerbitzuak.

Areto nagusiari dagokionez, orotariko aurkezpen, hitzaldi eta kontzertuetarako prestatuta dago. Interesa duen edonork erabil dezake, gainera, dagokion eskaera egin eta gero.

Klaustroari dagokionez, erakusketak egiteko pentsatuta dago, nahiz eta beste erabilera batzuk ere onartzen dituen.

Pintura gelaren kasuan, margo ikastaroak egingo dituzte. Irailean irekiko dute berriz matrikulazio epea margotzen ikasi nahi duten guztiendako.

Erabilera anitzeko lau gela ere baditu Kulturatek. Bi handiagoak eta beste biak txikiagoak dira. Batzarrak, ikastaroak... beharraren arabera dagokion erabilera emango zaie lau geloi.

> **Fonoteka, bideoteka, hemeroteka, eta ikasketa gela ere baditu bibliotekak**

Informatika gelan 15 ordenagailu daude. Interesa dunen eskura daude baina ikastaroak antolatuko dituztela ere aurreratu dute udal arduradunek.

**BIBLIOTEKA**

Hainbat gunetan banatuta dago biblioteka. Helduen bibliotekari dagokionez, Monterronen baino ordenagailu gehiago dago –bederatzi, Interneterako; lau, bibliotekako katalogoa kontsultatzeko eta bat egunkari zein aldizkari elektronikoak irakurtzeko–. Inprimagailuak ere jarri dituzte eta baita bi fotokopiagailu ere.

Fonoteka ere badu bibliotekak: CDak, musikaren gaineko DVDak eta liburu eta aldizkariak daude. Laster, gainera, CDak entzuteko aukera egongo da.

Bideoteka zerbitzua egunero dago zabalik eta filmez gain, zinemaren gaineko liburuak daude. Baita filmak ikusteko lau pantaila ere. Hemerotekari dagokionez, bederatzi egunkari eta 250 aldizkari ditu.


Erabiltzaileen erosotasuna aintzat hartu dute eraikin berrian. XABIER URTZELAI

Haur eta gazteendako gunea ere badu biblioteka berriak. Batetik 6 urtera artekoen haurtxoteka dago, eta harengandik banatuta, gazteen gunea. Bi ordenadore daude lanak egin ahal izateko. Azkenik, ikasketa gela bat ere badago helduen bibliotekaren alboan. 40 bat lagunendako lekua du.

Liburutegiko materiala etxera eraman –mailegua doan dazein Internet erabiltzeko bazkide izan beharra dago. Beste berrikuntza bat: biblioteka itxita dagoenean sarrera nagusiaren alboan horretarako apropos jarri duten postontzian utz daitezke maileguan hartutakoak.

MINADO MO
Bulego ekipamendua


Iribar plaza, 2. lokala 5 behea 20.018 Donostia Tel.: 943 45 72 45 / Faxa: 943 47 03 71
minado@comercialminado.com
BANATZAILE OFIZIALA: OKI PRINTING SOLUTIONS KYOCERA

OMEGA
ECA Empresa Registrada 1816/ER/R/09/01 · 011/ER/R/07/99 · 001/PR/R/07/99
Omega Elevator, s.a.
Megalift Gearless igogailu elektrikoak, makina gelarik gabe.
•
Igogailu hidraulikoak
Igogailuak auzo-komunitateetan jartzea
•
Igogailuen berritzea
Tel.: 945 29 03 08 www.omegaelevator.com Vitoria-Gasteiz

■ KULTURA ETXE EREDUGARRIA

# XXI. mendeko kultura etxea, egungo premietara egokitua

IKER BARANDIARAN

**Koldo Mitxelenako arduradunek eredugarritzat dute Arrasateko Udal Biblioteka, liburutegien arteko mailegu sistemaren bidez material asko ibiltzen dutelako. Horrez gain, Kulturateren instalazioekin eta zerbitzuekin txundituta gelditu dira Donostiako bibliotekaren arduradunak.**


Herritarrek harrera ona egin diete kultura etxe berriaren instalazio eta zerbitzuei. XABIER URTZELAI

Kulturateren instalazio eta zerbitzuek zeresan handia eman dute. Udal Biblioteka bakarrik kontuan hartzen badugu, oraingoak Monterrongoa hirukoiztu egiten du tamainan. Udal Bibliotekaz gain, eraikin berean, Udaleko hainbat sailen bulegoak, erakusketetarako klaustroa eta berbaldi zein ikuskizunen aretoa daude.

Udaleko arduradunek nabarmendu dute XXI. mendeko biblioteka eta kultura etxea egiten saiatu direla, eta uste dutela herritarren premiak beteko dituela. Kulturate erreferente bihurtu da Debagoienean; eta kanpokoen arreta ere deitu du. Hain zuzen ere, Donostiako Koldo Mitxelenako arduraduna kultura etxearen lanak ikusten izan zen; eta eraikina bukatuta zegoenean ere joan zen ikustera. Bietan harrituta gelditu zen ikusitakoarekin.

**KULTURA ETXE EREDUGARRIA**
Are gehiago, Koldo Mitxelenako arduradunek lehendik ere eredugarritzat dute Arrasateko Udal

> **Kulturateko Udal Bibliotekak Monterrongoa hirukoiztu egiten du tamainan**

Biblioteka bi arrazoi nagusirengatik: bata, liburutegien arteko mailegu sistemaren bidez material bolumen nabarmena eskatu eta erabiltzen dutelako; eta bestea, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko ekimen ugari antolatzen dituztelako urtero. Horrek guztiak erraz ditzake udal agintariek Koldo Mitxelenaren eta Kulturateren artean bultzatu gura duten elkarlana gauzatzeko aukerak.

**ERABILERA HORRETARAKO DISEINATU**
Kulturate Monterrongo instalazioekin konparatzen badugu, bilakaera ikaragarria da. Monterron jauregiak ez zuen irisgarritasunik bermatzen; eta egoitzak berak ez zion udal zerbitzuari hazteko aukerarik ematen. Arrazoi horregatik herritarrei eman beharreko zerbitzuak erabat mugatuta zeuden.

Oraingo eraikina, berriz, biblioteka eta kultura etxe izateko diseinatuta dago. Hala, espazioari garrantzia eman diote, bai erabiltzaileen eta baita fondoaren mesederako.

Udal arduradunek argi dute biblioteka izan behar dela informazio iturri guztiak eskuragarri jarri behar dituen zerbitzu bat; eta, era berean, elkartzeko gune bat.

Horren baitan oso garrantzitsuak dira teknologia berriak. Hala, bibliotekan lehen baino askoz ordenagailu gehiago jarri dituzte; eta wi-fi sistema ere jarri dute eraikinean. Horrez gain, fonoteka eta hemeroteka guneei garrantzi handiagoa eman diete.

bz sistemas

San Andres auzoa 2, A1 Pab. • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 17 65 • Faxa: 943 79 73 24
bzsistemas@bzsistemas.com
www.bzsistemas.com



bulego altzariak

## ZORTZI LANGILE DAUDE GUZTIRA

# Langileak, zerbitzuen funtsa

MIRIAN BITERI

**Zortzi langile ditu Kulturatek. Eraikin berrian eskaintzen diren zerbitzuen muina dira horiek. Behar zehatzak ditu bere gain bakoitzak, batzuetan lankideena ere egin beharra duten arren. Euren zereginaz jardun dute.**



Ezkerretik eskubira Birjinia Elortondo, Mertxe Perez de Ciriza, Adela Bikandi, Olatz Bartolome eta Uxue Landa. MIRIAN BITERI

Kulturateko langile bakoitzak zerbitzu zehatzak ditu bere menpe. Mertxe Perez de Ciriza da bibliotekako zerbitzu guztien arduraduna.

Maileguaz Birjinia Elortondo arduratzen da. Kulturateko sarreran topatuko du erabiltzaileak Elortondo. Materialaren mailegua eta harreran informazioa eskaintzen du. Adela Bikandik, bestalde, helduen liburutegian egiten du lan eta, beste gauza batzuren artean, bazkide txartelen zerbitzua du bere gain.

Uxue Landa informatika gelako arduraduna da eta Olatz Bartolome hemeroteka nahiz bideotekakoa. Talde horren parte da ere Asun Agiriano, haur liburutegikoa. Argazkian, hala eta guztiz ere, ez da azaltzen, GOIENKARIAk langileak bisitatu zituenean jai zuelako. Nerea Mendizabal auzo-liburuzaina ere ez da argazkian agertzen, amatasun baja hartu du-eta.

**LANPOSTU FINKOA**

Monterronen langile kopuru bera zegoen, erakusketen antolaketa bere gain duena izan ezik. Lanpostu berria da hori. Orain behinekoa bada ere, plaza finkoa atera gura du Udalak aurten.

Kulturate Monterron baino erosoagoa dela esan du Perez de Zirizak, baina erabiltzaileen kopurua handiagoa dela eta lan gehiago dagoela ere bai. Astelehenetik barikura egiten dute lan, 10:00-13:00 eta 16:00- 20:30 ordutegian. Zapatuan goizez dago zabalik.



■ HAINBAT ARRASATEARREN IRITZIA JASO DUGU

# Zer iruditzen zaizu ireki berri duten Kulturate?



## JOSE ANGEL SASIGOITI

**LANGABETUA**

Beharrezkoa zela uste du eta ondo dagoela, "ez da Gasteizkoaren modukoa, baina poliki badoa aurrera". Egunero joaten da liburuak irakurtzera, baina ez da bazkide. Berak uste du, oraindik gauza asko falta zaizkiola eraikinari, "Monterron baino handiagoa da, baina txikia Arrasate bezalako herri baterako eta gehiago eskaini behar du".



## IÑAKI MARTIBA

**IKASLEA**

Kulturate aprobetxatu daitekeela uste du Iñakik: "Monterronekin ondo ibiltzen zen jendea, baina agian behar zen egoitza berria". Kanpotarra den arren, ikaslea denez, sarritan joaten da liburutegira ikastera. Bere iritziz, "nahiko ondo dago, aukera asko eskaintzen ditu eta lasaia da, baina ordutegia estu samarra da, 20:30ean ixten dute eta".



## AINHOA ETXABE ETA OLATZ UREDERRA

**LANGILEAK**

Oraindik ez dira izan Kulturaten, baina asmoa egokia dela eta oso leku polita jarri dutela pentsatzen dute. Biek ala biek ez dute ohitura handirik liburutegira joateko, "ez dugu denborarik". Monterron ezagutzen zuten eta kultura etxe berria ezagutzeko gogoa ere badute, "esaten dute oso ondo dagoela eta denetarik duela: ordenagailuak, zenbait areto, eta abar." Arte erakusketak ikustera joango direla esaten dute, gaur egun ikusgai dagoena telebistan ikusi zuten eta jakin-mina piztu zitzaien biei. Gainera, lehen Harresi Aretora joaten ziren koadroak ikustera. Batak ez du bazkide egiteko asmorik ez delako Arrasaten bizi, baina besteak lehenagotik zuen liburutegiko txartela.



## KONTXI IÑARRA

**ETXEKO ANDREA**

Oso polita dela eta oso ondo geratu dela dio. "Beharra zegoen: Monterron txiki zegoen, zahartuta zegoen eta igogailurik ere ez zuen". Orain, astean behin edo bitan joan ohi da liburutegi berrira irakurtzera. "Eskaintza handiagoa da: liburu eta ordenagailu gehiago daude eta oso leku atsegina da", esan du Iñarrak.

ERREKAKO ESPEZIALISTEK, AUTOMATISMOEN ETA ATE AUTOMATIKOEN FABRIKATZE PROZESUAN, SEGURTASUNA BERMATZEKO, EGOKIAK DIREN SOLUZIOAK GARATZEN DITUZTE.
BEREZKO INGENIARITZAN DUGUN 25 URTEKO ESPERIENTZIAK GURE LANA BERMATZEN DU. PRODUKTU SORTA BATEN DISEINUAREKIN SOLUZIO EZIN HOBEAK ESKAINTZEN DITUGU, BEZERO BAKOITZAREN BEHARRAK ASETUZ.

ERREKA AUTOMATISMOAK
ERREKA ATE AUTOMATIKOAK

zure zerbitzura





ERREKA
Automatismos
Puertas Automáticas

www.erreka.com

MONDRAGON COMPONENTES


Gipuzkoar batek jostun izateko
eta josturarik gabeko soinekoa
egiteko asmoa izan zuen.
Eta klasikoen artean sartu zen
abangoardiaren atetik.
Gaur, gipuzkoarrok kultura sortu
eta bizitzeko guneak
ari gara eraikitzen.
Gipuzkoarrok asmoak
eraikitzen ditugu.
Tabacalera (Donostia)
Frontones Oteiza (Azkoitia)
Leidor (Tolosa)
Cuevas de Ekain (Zestoa)
Gipuzkoa hiria
gero eta hurbilago!

mingainari tiraka

Lili Manrique > Tabernaria

# "Patata-arrautzopila oso gustuko dut"

MIRIAN BITERI > BERGARA

**Lili Manrique kolonbiarra ezaguna da Bergaran. Lanean ibili da zenbait tabernetan eta baita denda bat edo bestean ere. Duela hilabete inguru udal frontoiko tabernaren ardura hartu zuen. Harekin egon gara hizketan.**



**Gustuko duzu tabernari izatea?**
Bai. Sei urte daramat zerbitzatzen, Bergarara iritsi nintzenetik. Jaioterrian hotel batean egiten nuen lan eta hemen antzeko bidea jarraitzea erabaki dut.

**Zerbait txarra edukiko du lan horrek...**
Bai, ordutegia. Ostalaritzak egun osoa eskatzen du. Frontoiko tabernan, hala ere, nahiko ordutegi ona daukat.

**Pintxozalea zara?**
Bai. Patata-arrautzopila oso gustuko dut. Bezeroentzat prestatzen ditut baina, ahal dudanean nik ere pintxoak jaten ditut.

**Ardoa edo garagardoa?**
Garagardoa. Zuritoak edaten ditut. Ardoa ez zait larregi gustatzen.

**Nori eskainiko zenioke zurito bat?**
Martinez de Eulate pilotariari. Bestela, aurretik izandako tabernetako nagusi bati ere gustura aterako nioke edateko zerbait.

**Taberna barruan edo terraza batean esertzea nahiago duzu?**
Eguraldiaren arabera. Orain, barruan hobe, kafe bero batekin. Udan, berriz, aire librean nahiago dut.

**Frontoia taberna ondoan daukazu. Pilotazalea zara?**
Gero eta gehiago. Denbora apur bat lortzen dudanean, partiduak ikustera joaten naiz. Gainera, egun horietan oso giro ona egoten da tabernan. Kirol osasungarria eta dibertigarria iruditzen zait pilota.

**Frontoietan erretzeko debekua dago. Nola ikusten duzu?**
Ondo ikusten dut. Nik ez dut erretzen eta taberna batean hamar orduan egoteak onura gutxi ekartzen dizkit.

hau be badaukogu

## 'Mihiluze' programan bikain aritu dira Maddi Elortza eta Itziar Campos bergararrak

**ETBko *Mihiluze* programan izan dira Maddi Elortza eta Itziar Campos bergararrak. Ondo moldatu da bikotea, finalera iristea lortu du-eta. Programara iristea ez da lan erraza izan. Aranzadi ikastolako bosgarren mailako ikasle gehienek nahi zuten han parte hartu. Zozketaren bidez, 20 lagun baino ez ziren geratu ETBko *casting*-a egiteko. Maddi Elortza eta Itziar Campos aukeratu zituzten. Hilaren 13an Donostiara joan ziren grabatzera. Aktore ezagunekin egon ziren han. Irudian, Anjel Alkain ospetsuarekin azaltzen dira. Pozik bueltatu ziren Donostiatik, bina opari-rekin: *Mihiluze*ko kamiseta eta MP4 dotorea.**



GOIENKARIA

bere ustez



Ainhoa Agirreazaldegi

## Euskara salbu balego

Gure herrian, bi urtez behin, lasterketa erraldoia antolatzen da. Aurtengoak, esaterako, 2.356 kilometro izango ditu, eta 600.000 lagunetik gora partaide. 24 ordu korrika, 10 egunez. Une batzuetan, adin eta mota guztietako 500 korrikalari; une askotan 50; bakan batzuetan 5.

Lekuko bat pasatzen da eskuz esku eta kilometroz kilometro korrikalarien artean; lekuko horren barruan Korrika helmugara iristean irakurriko den mezua doa. Ordura arte sekretupean gordetzen den mezua. Antolaketan ehunka boluntariok lan egiten dute.

**"Euskara salbu balego ere, ziur naiz Korrika antolatuko litzatekeela. Beharko genuke"**

Hau guztia zertarako, eta euskara-eskolak emateko dirua bil dadin. Erakunde publikoek, sosak, hizkuntzan baino gusturago inbertitzen baitituzte bestelako eraikuntzetan. Baina ez horretarako bakarrik. Gure hizkuntzaren kontzientzia piztea ere helburu du lasterketak.

Bada, herri horretantxe bizi gara gu, euskaradunok. Korrika da euskararen eta euskaldun askoren paradoxa, metafora, eufemismoa... Zer ez da korrika? Hunkigarria bai, behintzat!. Euskara salbu balego ere, ziur naiz Korrika antolatuko litzatekeela. Antolatu beharko genuke. Asko eskatzen du, baina gehiago ematen

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



**ZUZENDARITZA BATZORDEA** Joan zen eguenean elkartu zen Basotxo erretiratuen elkarteko zuzendaritza sartu berri diren kideekin karguak banatzeko. M.A.

**ERRETIRATUAK** > ZUZENDARITZA BATZORDEA

# Martin Zaloña, Basotxoko presidente

Itziar Errasti izango da presidente ordea, Jose Maeztu idazkaria eta Antonio Garcia diruzaina

Zuzendaritza batzordean sartu berri diren bost bazkideetatik hiru emakumeak dira

**MIRARI ALTUBE**> ARETXABALETA

Martin Zaloña izendatu dute Basotxo erretiratuen elkarteko presidente. Ondo ezagutzen du Zaloñak elkartea, dagoeneko urtebete egin du eta zuzendaritza batzordean.

**HIRU EMAKUME**

Orain dela aste bi egin zuen Basotxo erretiratuen elkarteak batzar orokorra. Urteko gorabeherak azaldu zizkieten orduan bazkideei, eta zuzendaritza batzordea osatzeko kide berrien izenak aipatu. Hala ere karguak banatu barik utzi zituzten, eta joan zen eguenean elkartu ziren horretarako.

Zaloñak beteko ditu presidente lanak, eta hona alboan izango dituenak: Itziar Errasti presidente ordea izango da, Jose Maeztu idazkaria, eta Antonio Garcia diruzaina. Bokalei ere banatu dizkiete ardurak: Benito Arnaiz bidaien arduraduna izango da, eta Francisca Sasiain ordezkoa; Jose Mari Roldan kultura gaiekin arduratuko da, eta Itziar Errasti eta Carlos Gutierrez gizarte gaiekin. Aipatutakoez gain Juanita Jauregi ere badago batzordean. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna mantendu gura izan dutela aipatu zuten kideek, eta hautatu dituzten bostetatik hiru emakumeak dira. Aukeratutako kideek urte bi egiten dituzte zuzendaritza batzordean.

**927 BAZKIDE**

Joan zen eguenean elkartu zen batzorde osoa lanean hasteko. Presidenteak, idazkariak eta diruzainak urtebete egin dute zuzendaritzan eta sartu berriei elkartearen gaineko gorabeherak argitu zizkieten: urtean antolatu beharreko bidaiak eta ikastaroak, diru kontuak, Udalarekin harremanak… Udaberrian sartu gara eta laster hasiko dira hara eta hona bidaiak antolatzen.

Basotxok 927 bazkide ditu. Baten batek bazkide izateko interesa izanez gero Basotxok Errekabarren kalean duen egoitzatik pasatu besterik ez du, eta hona eraman beharrekoak: NANaren kopia, telefono zenbakia eta kontu korrontearen zenbakia. Urteko kuota 5 euro da.

**EUSKARA** > HIZKUNTZA POLITIKA BERRIA

# Ofizialtasunaren lege berria eskatu zuten aurkezpenean

Europako beste edozein hizkuntzak duen eskubidea bermatu eta aitortzea eskatu zuten

**M.A.**> ARETXABALETA

Hizkuntza politika berri baterako proposamena aurkeztu zuen Batasunak astelehenean. Orain arte egindakoarekin hautsi eta euskarak bizi iraun gura badu beste politika bat behar duela aipatu zuen Inaxio Agirrek, Aubko Gipuzkoako zerrenda buruak. Eta hizkuntza politika nazionala, burujabea eta bakarra aldarrikatu zuen.

**ZAZPI LAN ILDOKO PROPOSAMENA**

Europako edozein hizkuntzak duen eskubidea bermatu eta aitortzea eskatu zuten "berreskuratzeko derrigorrezkoa da-eta". Hala, euskarak ofiziala izan behar duela aipatu zuten, euskaraz biziko den gizartea gura badugu.

Euskararen lege berriak bost printzipio eskatzen ditu Batasunaren esanetan. Tartean, euskal herritar guztiek euskaraz jakitea, eta Euskal Herri osoan erabiltzeko eskubidea izatea. Orain arte ahaleginak egin direla aitortu zuen Agirrek, baina hori baino askoz gehiago behar duela euskarak gaineratu zuen. Horregatik zazpi lan ildo zehaztu zituzten: ofizialtasunaren lege berria indarrean jarri; herritarren euskalduntasuna bermatu –eskoletan, etorkinen artean…–; udalerri euskaldunen garapen iraunkorra; administrazio eta zerbitzu publikoak euskaldundu; lan mundua; hedabideak eta kulturgintza; eta azkenik hroi guztiori aurrera eramateko baliabideak jarri.



**BERBALDIA** Inaxio Agirrek azaldu zuen hizkuntza politika berria. M.A.




**MANIFESTAZIOA** Aluminios de Precision lantegi aurrean hasi zuten protesta ekitaldia langileek eguaztenean. M.A.

**INDUSTRIA** > MANIFESTAZIOA

# 'Lucio Garay, ez itxi' oihu eginez manifestazioa egin dute langileek

Manifestazioa lehen ekintza izan da herritarrei arazoaren berri emateko; gehiago etorriko dira

Langileek diote Udalak 8 mila metro koadroko pabilioia eskaini badio zergatik alde egin gura duen

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Manifestazioa egin zuten Aluminios de Precision (Lucio Garay) lantegiko langileek eguaztenean, hilak 28. "Lucio Garay, ez itxi" oihu eginaz lantegian duten arazoaren berri eman gura izan zieten aretxabaletarrei.

**ERANTZUNAREKIN HASERRE**

Eguaztenean, bertan, elkartu zen enpresa batzordea Jose Uribesalgo ugazabarekin. Otsailean baieztatu zien Burgosen zabalduko duela lantegia –Joserol SA izeneko talde industrialak–, eta Aretxabaletako langileek eurekin zer gertatuko den jakin gura zuten. "Gezurrak esan dizkigu", adierazi digu ELA sindikatuko metal arloko arduradun Iñaki Arrietak. "Sindikatuetako ordezkariokin ez du elkartu gura izan, nahiz eta otsailean horretan geratu, eta enpresa batzordeari esan dio Burgosko lantegira joateko aukera izango dutela langileek, etxea jarriko dietela han, eta beste kontu batzuk. Guztia gezurra".

Hori ikusita asanblada egin zuen komiteak eguerdian langileekin, eta manifestazioa egiteko erabakia hartu zuten guztien artean.

**EKINTZAK GOGORTZEN**

Ugazabari mezu zuzena bidalita *Uribesalgo: Lucio Garay ez itxi* lantegiko langile asko atera ziren protesta ekitaldira, 70 inguru. Aretxabaletako kaleetan ibili ostean lantegi aurrean egin zuten elkarretaratzea. "Manifestazioa lehen ekintza besterik ez da izan, herritarrei arazo bat daukagula jakinarazteko. Baina gero eta ekintza gehiago egingo ditugu, eta gogortzen joango gara", gaineratu du Arrietak. Enpresa batzordean hiru sindikatutako ordezkariak daude: ELA eta LABeko bina, eta CCOOko bat. Bilera egingo dute ekintza egutegia zehazteko.

**PABILIOI BERRIA ESKAINITA**

Aluminios de Precision lantegiko langileak, 80 inguru, oso kezkatuta daude egoerarekin. Era berean, haserre daude komunikabideen bitartez jakin zutelako enpresa Burgosera eroateko asmoa zuela ugazabak. Enpresa batzordeak dio Uribesalgori azalpenak eskatutakoan zera erantzun ziela urtarrilaren 29an: Aretxabaletakoa zahartuta geratu dela eta Burgosen berria egin beste aukerarik ez duela izan.

Erantzunak erantzun, langileak ez daude konforme, eta bi galdera bota zituzten eguaztenean: "Udalak 8 mila metro koadroko pabilioi berria eskaini badio lehen dituen 5 mila metro koadrokoaren truke, eta oraingo 80 langileekin lanean jarraitzeko aukera badu, zergatik alde egin gura du? Ez du gurako ba *pelotazo*a egitea 80 familiengan pentsatu barik?"

GOIENKARIAtik ahalegindu gara lantegiko ugazabarekin zein alkatearekin berba egiten esandako guztia konfirmatzeko baina ez dugu lortu.

**PARROKIA** > HITZORDUAK

# Aste Santuko egunak gertatzen hasiko dira

Martitzenean, apirilak 3, elkarteko adiskidetze sakramentua egingo dute, 19:00etan

**M.A.** > ARETXABALETA

Apirilaren 5etik 9ra Aste Santua ospatuko dute kristauek. Egun horiek gertatzeko hainbat elizkizun dituzte egunotan.

**ERRAMU DOMEKA**

Etzi, apirilak 1, Erramu domeka ospatuko dute. Erramuen bedeinkapena egingo dute 09:00etan agustindarren komentuan, eta 11:30ean parrokian. Eta gero, 18:30ean, bezperak otoitz egingo dituzte komentuan.

Bestalde, apirilaren 8an zein 15ean bataiatuko dituzten umeen gurasoek batzarrak izango dituzten hilaren 2an eta 3an, 19:00etan, parrokiako lokaletan. Martitzenean, ostera, elkarteko adiskidetze sakramentua ospatuko dute. 19:00etan da, parrokian, eta egun horretan batutako dirua Eritreara bidaliko dute.

> LIBURUTEGIA

## 'Erreka Mari' txotxongilo emanaldia astelehenean

Apirilaren 2an, astelehena, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko dugu. Hori gogoan izan du Udal liburutegiak, eta jai itxura emateko egunari txotxongilo emanaldia antolatu du. Panpinez blai taldeak, *Erreka Mari* ipuin ezaguna antzeztuko die umeei txotxongiloen bidez, Euskal Herriko azken lamiaren istorioa hain zuzen. Astelehenean bertan izango da, 18:00etan, liburutegian. 4 eta 8 urte arteko ume eta gaztetxoendako dago gomendatuta ekitaldia.

> LUDOTEKA

## Eriz magoaren ekitaldia martitzenean

Aste Santuko oporrak hartu aurretik egin ohi duten moduan umeendako ekitaldia antolatu du Algara ludotekak. Eriz magoa hurreratuko da ikuskizuna eskaintzera, eta ume guztiek izango dituzte ateak zabalik, ludotekako bazkide izan edo ez. Martitzenean, apirilak 3, izango da ekitaldia, 17:30ean, Kurtzebarri eskolan.

Bestalde, apirilaren 21erako, zapatua, liburu truke azoka antolatu dute ludotekan. 11:00etatik 13:30era izango da.

> GAZTELEKUA

## Futbolin txapelketa jokatuko dute domekan, apirilak 1

Etzi, apirilak 1, futbolin txapelketa jokatuko dute Atxagazte gaztelekuan.

Aste Santuko jai egunetan, ostera, itxita egongo da, apirilaren 6tik 9ra hain zuzen. Pazko astean, hilaren 10etik 15era zabalduko dute, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte inor ez dadin aspertu: argazki lehiaketa, mendi irteera, jaialdia eta beste batzuk. Gainera, hilaren 15ean eta 21ean play station txapelketa jokatuko dute.

GARBITU KOOP. ELK.

*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak*
*Obra bukaerako garbiketak*
*Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak*
*Kristalen garbiketak*

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21

**EUSKARA** > LORAMENDI EE-REN EGITARAUA

# Berbaldi asko eta ikastaroak dakartza Loramendik

Bidaia eta espedizioak, alergiak, apiterapia eta beste kontu asko izango dituzte berbagai

Euskal dantzen, sendabelarren eta bizikletaren gainean gehiago jakiteko ikastaroak



**MUS TXAPELKETA** Urbaltz elkartean jokatu zuten domekan, eta zortzi bikote izan ziren norgehiagokan. LORAMENDI

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Apirila eta uztaila bitarteko egitaraua gertu dauka Loramendi Euskara Elkarteak, eta bazkideek laster jasoko dute diptikoa etxean. Berbaldiak izango dira nagusi, sei guztira, eta ikastaroak ere ugari: hiru zehaztuta eta beste hiru data zehazteko dutela. Hortaz badugu non aukeratu.

**SEI BERBALDI**

Aste Santuko oporrak pasa ostean izango dugu lehen hitzordua, apirilaren 26an. Euskal Herrian bizikletan egindako itzulia azalduko dute Rosa, Mikel eta Ekik, *Nire lehen bidaia* hain zuzen. Maiatzaren 3an, eguena, EHNEko kide Onintza Ostolazak, *Gizarte segurantza eta nekazariak* berbaldia eskainiko du. Eta maiatzaren 10ean, Askapena taldeak munduko hainbat herritara brigadista joanda oporrak zela pasatu azalduko digu. Maiatzaren 24an, alergien gainean jardungo du Atxen Aranzabal alergologoak, eta 31n, G-IIra egindako espedizioaren gaineko argibideak emango dituzte Mikel Sasiain aretxabaletarrak, Andoni Ormazabalek eta gainerako taldekideek. Ekainaren 7an, izango da azken berbaldia, apiterapiaren gainekoa hain zuzen, Luis Mari Intzaren eskutik.

**SEI IKASTARO**

Maiatzaren 14tik 18ra bitartean, berriz, Euskararen Astea antolatu dute Loramendiko kideek, eta 19an, zapatua, Euskararen Eguna ospatuko dute.

Eta ikastaroak ere izango ditugu. Helduendako oinarrizko dantza ikastaroa apirilaren 19tik maiatzaren 10era bitartean. Basabeazpin egingo dute eguenetan, 19:00etatik 20:00etara, eta izena emateko azken eguna apirilaren 4a, eguaztena, da.

Sendabelar ikastaroa, ostera, maiatzaren 22tik ekainaren 19ra izango da, martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara. Malats elkarteak egingo du.

Bizikletan ibiltzen ikasteko eta hobetzeko ikastaroa eskainiko du Maite Ortiz de Zaratek. Ekainaren 4, 6, 11 eta 13an izango dira eskolak Urkulun, eta bizikleta norberak eraman behar du.

Horiez gain data zehazteko dute beste hiru ikastarok: lorezaintza, malabarrak eta eskalada. Eta uztailean futbito txapelketa egingo dute.




M.A.

## Mariasun Landa berbagai Literatura astean

Literatura astea egin dute Kurtzebarri eskolan eta atzo, eguena, bukatu zuten Irakur Maratoia eginda. Mariasun Landa idazle errenteriarraren inguruan jardun dute aurten, eta astelehenean bertan jaso zuten ume eta gazteendako hainbeste liburu idatzi dituen emakumearen bisita. Atzo, ostera, Pello Añorgarekin izan zuten solasaldia, eta Irakur Maratoi ostean guraso talde batek antzerkia egin zuen asteari bukaera emateko.

> KIROLA

## Pilates lantzen duen Pilates SFP&EDET zentroaren inaugurazio ekitaldia egingo dute gaur, 19:00etan

Iralabarri plazan dagoen Pilates SFP&EDET zentroa azaroan zabaldu zuten Jose Luis Alonsok eta Mari Carmen Sanchezek, baina inauguratze ekitaldia gaur, egubakoitza, egingo dute, 19:00etan.

Joseph Pilatesen sistema klasikoaren osotasuna hartu du ardatz Aretxabaletako zentro berriak, eta eskolak bakarka edo talde txikitan eskaintzen dizkie bezeroei.

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia
Durana 33 • Aretxabaleta • 943 79 10 14




Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide froga prestatzea nahi duzu? **21** urte baino gehiago edo **2** urtetako lan esperientzia baduzu

Etor zaitez **IEFPS ARETXABALETA GLHBI**ra eta informa zaitez

*Etxebarri auzoa, z/g*
*20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)*
*Tels.:943 79 79 00 / 943 77 09 55*
*E-mail: ia@iaretxabaleta.com Web orria: www.iaretxabaleta.com*

IEFPS Aretxabaleta GLHBI
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
AENOR ER Empresa Registrada
Q Euskadi 2006

HAUTESKUNDEAK > PSE-EEKO ALKATEGAIA

# Blanca Roncal da PSE-EEko zerrenda burua Udalerako

"Herritarren parte hartzea bultzatu eta gazteendako pizgarriak sustatu gura ditugu"

**O.E.** > OÑATI
Blanca Roncal izango da PSE-EE alderdiko zerrenda burua. Bera izango da datorren maiatzeko hauteskundeetako Oñatiko alkategai sozialista. Momentuz zerrenda buruaren izena eman du bakarrik alderdi horrek. Blanca Roncal berak ere ez du zerrendako kideen izenak aurreratu. "Oraindik zerrendak osatzen ari gara", esan du PSE-EEko zerrenda buruak.

**HERRITARREN BEHARREI BEGIRA**
Blanca Roncal Burgeten (Nafarroa) jaio zen duela 56 urte. Ezkonduta dago eta medikuntzan doktorea da. Legebiltzarkidea da gaur egun eta Arrasateko zinegotzia ere bai.

Blanca Roncal PSE-EEko hautagaiak esan duen moduan, "herritarren lehentasunei eta beharrei begira egindako programa ekarriko dugu Oñatira". Eta jarraitu du: "Bost hauek dira oinarrizko konpromisoak: herriko talde ahulen aldeko politika onak egitea, herritarren partehartzea indartzea, azpiegiturak hobetzea, gazteendako pizgarriak sustatzea eta herritarren beharrei begira antolatzea udal programa, ez norberekerian edo protagonismoan".

Hauteskundeetan aurkeztuko diren gainerako alderdiei begira, oraindik ez du inork zerrenda osoa eman ezagutzera. Orain arte baieztatu den bakarra da Lurdes Idoiaga izango dela EAJk aurkeztuko duen alkategaia eta Karmelo Perez izango dela Ezker Batua, Aralar eta Zutik koalizioaren zerrenda burua.



**RONCAL** Blanca Roncal da PSE-EEko alkategaia. GOIENKARIA




**AUTOBUSA** Domeka eta jaiegunetan egongo da Oñatitik Arantzazura joateko autobus zerbitzua. GOIENKARIA

GARRAIOA > APIRILAREN 1ETIK URTEA BUKATU ARTE

# Arantzazura autobus zerbitzua egongo da domekatik aurrera

Domeka eta jai egunetan egongo da zerbitzua 07:30etik hasita 20:00ak arte, ordu guztietan; euro bat balio du joan etorriak

**OIHANA ELORTZA** > OÑATI
Oñatitik Arantzazura joateko autobus zerbitzua egongo da domekatik aurrera. Domeka eta jai egunetan funtzionatuko du zerbitzu horrek urtea bukatu bitartean, momentuz. Iaz izandako harrera onagatik pentsatu dute aurten ere jartzea.

**ORDU GUZTIETAN**
Autobus zerbitzu horrek geltoki bakarra izango du Arantzazun eta hiru Oñatin: San Lorentzon, Euskadi etorbidean eta postetxean. Apirilaren 1etik urrira arte, 07:30ean hasi eta, erdi guztietan aterako da autobusa Oñatitik. Arantzazutik jaisteko, berriz, ordu punta guztietan egongo da autobusa, 20:00ak arte. Azaroaren 1etik aurrera, 08:30ean irtengo da lehen autobusa Oñatitik eta 19:00etan jaitsiko da azkena Arantzazutik.

**ASTE SANTUAN ERE BAI**
Aste Santuan, eguenean, egubakoitzean eta astelehenean ere egongo da autobus zerbitzua. Irailaren 9an indartu egingo dute zerbitzua eta ez da autobusik egongo abenduaren 6an eta 25ean eta urtarrilaren 1ean.

BERTSOLARITZA > HERRIKO TXAPELA JOKOAN

# Zapatuan da herriko bertsolari lehiaketako finala

Sei bertsolarik jokatuko dute finala Arrano tabernan 18:00etatik aurrera

**O.E.** > OÑATI
Bihar, zapatua, da herriko bertsolarien arteko txapelketako finala. Sei bertsolari hauek jokatuko dute finala: Andoni Goitiak, Iñaki Olaldek, Egoitz Aizpuruk, Beñat Alberdik, Josu Igartuak eta Joseba Lasagabasterrek. Gai jartzaile lanetan sagarzazutarrak ibiliko dira, final aurreko saioetan bezala.

**BURUZ BURUKORA ARTE**
Finaleko saioan, ofizioka jardungo dute sei bertsolariek zortziko handian eta hamarreko txikian. Ondoren hiru punturi erantzun beharko diete eta gero, bakarka gaia emanda, bina bertso kantatuko dituzte. Hori guztia eginda, puntuazio handiena lortzen duten bi bertsolariek buruz burukoa jokatuko dute: zortziko txikian ofizioka eta kartzelako lanean, gero.

Guztira 16 bertsolarik hartu dute parte herriko bertsolarien arteko txapelketan. Portu tabernan egin dituzte aurreko saioak martxoan zehar eta Arranon izango da finala bihar, zapatua.

KIROLA > GIPUZKOAKO TRIALSIN TXAPELKETA

# 50 pilotu inguru datoz domekan Arantzazuko finalera

10:30ean hasiko da proba eta oztopoz betetako bost gune pasako dituzte pilotuek hiru aldiz bizikletekin

**O.E.**> OÑATI
Gipuzkoako trialsin txapelketa jokatuko dute domeka goizean Arantzazun. Kategoria guztietako 50 pilotu inguru etorriko dira, neska eta mutil. Irabazleen hurrengo zita Euskadiko txapelketa izango da.

**BOST GUNE ZIRKUITUAN**
Domekakoarekin, 18. aldiz jokatuko da Gipuzkoako trialsin txapelketa Oñatin, Arantzazun. Aurreko edizioetan bezala, Goiko Bentatik Sindikara bitartean jarritako oztopoak gainditu beharko dituzte pilotuek.

Proba bost gunetan banatuko dute. Gune bakoitzak hainbat oztopo izango ditu eta bi minutu eta erdi baino gutxiago izango ditu pilotuak gune bakoitza gainditzeko. Hiru aldiz pasa beharko dute pilotuek gune bakoitza. Hanka lurrean jartzen duten bakoitzean puntu bat kenduko dizkiete. Bost aldiz bakarrik jarri dezakete hanka lurrean, bestela, eliminatu egingo dituzte.

**OÑATIARRIK EZ**
Domekako proba 10:30ean hasiko da eta 13:30ean bukatu. Bi sari nagusi egongo dira: probako irabazlearena eta Gipuzkoako txapeldunarena. Izan ere Arantzazukoa Gipuzkoako txapelketako bosgarren proba izango da. Espainiako trialsin txapeldunak ere izan dira oñatiarrak, baina domekako proban ez da herriko partehartzailerik egongo.

**OSOKO BILKURA** > OHIKO OSOKO BILKURA

# Etxebizitza tasatuen kalifikazio eta baldintzak izango dituzte etxabeek

## Etxabeen gaineko ordenantza aldatzeko arrazoia da Udalak espekulazioa eten gura duela

## Udal kiroldegiko zerbitzuaren ardura hartzeko lehiaketa publikoa deitu du Udalak

## EBk mozioa aurkeztu zuen Arbiñosteko lurren truke jasotako dirua lur publikoan inbertitzeko



**BABESTUAK** Etxebizitza-etxabeak babestuta egongo dira aurrerantzean. Argazkian, Intxaurtxuetako etxabe bat. I.B.

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Atzo, eguena, Udaleko osoko bilkura egin zuten udaletxean. Udalerrian egiten diharduten hainbat lanen gaineko abalen itzulera izan zuten berbagai. Horrez gain, hainbat lan esleitzeko erabakia hartu zuten; eta udal kiroldegiko zerbitzuaren ardura lehiaketa publikora atera zuten. Bestalde, beharra duten nagusiek baliatzen duten tele-laguntza zerbitzua ere berbagai izan zuten; eta etxabeen gaineko ordenantza berri bat onartu zuten.

Aurreko hilean egindako osoko bilkuran udal gobernuak onartu zuen etxabeen gaineko ordura arteko ordenantza indar barik uztea. Udal gobernuaren asmoa da etxabeen gainean ematen den espekulazioa etetea. Horregatik etxabeak Lurzoruaren Lege berrira egokitu dituzte. Hala, hemendik aurrera etxebizitza bilakatzen diren etxabeek etxebizitza tasatuen izendapena jasoko dute. Ez hori bakarrik, Etxebidek izango du horren kontrola. Eta ez hori bakarrik: etxabe baten etxebizitza egin gura duenak tasatuetan esku hartzeko baldintza berak bete beharko ditu: gutxienez bi urtean Eskoriatzan bizi beharko da; ezingo du etxebizitza propiorik izan; eta urtean 12.000 eta 43.000 euro bitarteko irabazi gordinak izan beharko ditu. Etxebizitza horiek behin betirako tasatu izendapena izango dute; eta salneurria finkoa izango da.

**KIROL ZERBITZUA LEHIAKETARA**

Gaiz aldatuz, San Juan kaleko lanak esleitzeko lehenengo onarpena egin zuten. Espaloia egokitu eta zubia handituko dute. Interesa duten enpresek 26 egun izango dituzte eskaintzak aurkezteko. Lanen aurrekontua 247.000 eurokoa da, eta hiru hilabete izango dituzte lanak hasi eta bukatzeko.

Horrekin batera, Udalak lehiaketa publikora atera du udal kiroldegiaren kudeaketa. Horren barruan daude igerilekuaren zainketa, sorospen lanak, kiroldegiaren harrera eta han ematen dituzten ikastaro guztien kontratazioa. 26 egun izango dituzte eskaintzak aurkezteko.

Bestalde, Ezker Batuak aurkeztutako mozio bat eztabaidatu zuten. EBk eskatu zuen Arbiñosteko lurrak Visesari saltzearen truke Udalak jasotako 1.203.658 euroekin babes ofizialeko etxeak erosteko; edo lur horietan urbanizazio kostuak txikitzeko baliatzeko, hain zuzen ere.




IKER BARANDIARAN

## Aire libreko margolanen erakusketa

Ibarraundi museoan margolanen erakusketa jarri dute. Domekan, Aire Libreko I. Margo Lehiaketako sari banaketa egin ostean, jarri zuten erakusketa eta apirilaren 15era arte egongo dira lanak ikusgai.

39 lan batu dituzte erakusketan, saria jaso zutenak eta gainontzekoak ere bai. Domekan egindako lehiaketan Euskal Herriko, Kantabriako eta Asturiasko artistek esku hartu zuten. Antolatzaileek jakinarazi digute oso pozik daudela lehiaketaren harrerarekin eta mailarekin.

> IKUSKIZUNA

### Gaur, egubakoitza, Elena Castillo ipuin kontalariak helduendako ikuskizuna egingo du

Gaur, egubakoitza, Elena Castillo narratzaile tenerifetarrak emanaldia egingo du HUHEZIko aretoan, 22:30ean. Castillok *Esta boca es mia* ikuskizuna eramango du Eskoriatzara. Egilearen esanetan ikuskizun hori erotikoa, barnekoa, ausarta, lotsagabea eta pertsonala da. Are gehiago, azpimarratu du kabaret, klown eta antzerkitik hartutako elementuak erabiltzen dituela.

Guarrene Dietrich protagonistak ikusleei bere bizitza sexualaren gaineko pasarteak kontatuko dizkie, maitasuna, barrea, ironia, kritika, lotsagabekeria eta samurtasuna uztartuta.

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

SALON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

**HEZKUNTZA** > PARTZUERGOKO HAURRESKOLA

# Astelehenean izango da Kulunka haurreskolaren inaugurazio ofiziala

Gaur egun 10 ume daude Udalak eta Jaurlaritzak bultzatutako haurreskolan, baina askoz ume gehiagorendako lekua dago bertan

**IKER BARANDIARAN**> ESKORIATZA

Astelehenean egingo dute Kulunka haurreskolaren inaugurazio ofiziala. Ekitaldira Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Tontxu Campos, sailburuorde Pedro Otxoa, Gipuzkoako Hezkuntza ordezkaritzako arduradun Arantza Laka, Haurreskolako Partzuergoko presidente Maite Larrañaga eta ibarreko alkate eta zinegotziak gonbidatu ditu Eskoriatzako Udalak.

Haurreskola hori partzuergoak zabaldu zuen, hau da, Jaurlaritzak eta udalek elkarlanean sortutako erakundeak. Berez irailaren 6an zabaldu zituen ateak eta orduan hasi zen zerbitzua ematen. Hala ere, oraindik Jaurlaritzako Hezkuntzako agintariek inauguratu barik dutenez, ekitaldia antolatu dute datorren asterako.

Haurreskola 0 eta 2 urte bitarteko umeei zuzenduta dago, eta honako ordutegia du: 07:30etik 18:30era bitartekoa. Hala ere, ume bakoitzak eguneko zortzi ordu baino gehiago ezin ditu egin haurreskolan.

**GAUR EGUN 10 UME DAUDE**

Haurreskola sei umerekin hasi zen zerbitzua ematen. Gaur egun, berriz, 10 ume eramaten dituzte egunero: 0 eta 1 urte bitarteko bi; eta 1 eta 2 urte bitarteko zortzi. Haurreskolako arduradunek jakinarazi dutenez, Kulunkan 42 haurrendako lekua daukate, "baina gurasoek poliki-poliki izena ematen dihardute, zerbitzua ezaguna egiten dabilen neurrian".

Umeen sarrera 09:30etik 10:00etara egiten dute. Gero, 10:00etan, ipuinak kontatu eta hamarretakoa jaten dute.

Horren ostean, 10:30etik 11:30era, astean hiru egunean psikomotrizidadea lantzen dute. Beste bi egunetan, berriz, plastika, ipuinak edo sukalde txokoak egiten dituzte.

Aukera dago umeak bazkal dezaten haurreskolan uzteko; baita lokuluxka egiteko ere.

Une honetan bi zaintzaile daude eskolan lanean, hamar ume bakoitzeko hori da-eta eskatzen den zaintzaile kopurua.

**MATRIKULAZIOA ZABALIK**

Haurreskolaren gaitasuna %52an egongo balitz, matrikulatzeko hiru epe egongo lirateke (maiatza, iraila edo urtarrila), baina oraindik lekua soberan dagoenez, edozein momentutan matrikula daitezke umeak. Interesa duenak hara jo beharko du zerbitzua ematen duten ordutegian.



**EGUN OSOZ** Goizetik arratsaldera arte ematen dute zerbitzua haurreskolan. Argazkian, umeak jolasean. IKER BARANDIARAN




**MIGUEL BUEN** Batzar Nagusietarako hautagaia ere izan zen aurkezpenean. I.B.

**HAUTESKUNDEAK** > PSE-EEKO ZERRENDABURUA

# Iñaki Pierruges izango da, berriro, PSE-EEko hautagaia

Batzar Nagusietarako hautagai Miguel Buen izan zuen lagun aurkezpenean Pierrugesek

**I.B.**> ESKORIATZA

PSE-EEk udal hauteskundeetarako zerrendaburua aurkeztu du astean, Udaleko osoko bilkura aretoan. Batzar Nagusietarako PSE-EEren hautagai Miguel Buen izan zuen alboan Eskoriatzako zerrendaburu Iñaki Pierrugesek. Coral Rodriguez zinegotzia ere zerrendan dago.

Lehenik eta behin, bukatzera doan legealdiaren gaineko errepasoa egin zuen. Haren esanetan, PSE-EE saiatu da EA-EAJren gobernuarekin batera herritarren alde lan egiten, baina desadostasunak izan dituzte politika eta udal kudeaketa direla medio.

Pierrugesek salatu zuen industrialdearen gaineko "transparentzia falta". Horregatik udal aurrekontuen aurrean abstenitu zirela aitortu zuen. Eta gogora ekarri zuen Zubillagako hiltegiaren eta eskualdeko ospitalaren alde daudela.

Arbiñosten udal gobernuak bultzatu dituen etxebizitzei dagokionez, nabarmendu zuen aurreikusitako 32 etxebizitza tasatuak "gutxiegi direla dagoen premiarako". PSE-EE abstenitu egin zen, baita ere, zeramika bilduma erosterako orduan. Ibarraundi museoan "inbertsio handiegiak" egin dituztela azpimarratu zuen; eta baita "EB udal gobernuaren morroi malgua bilakatu" dela.

Bukatzeko, autobidearen gaineko udal batzordean gogor lan egin duela azpimarratu zuen. Hala, batzordeak eskatutako hainbat hobekuntza aintzat hartu zituen Bidegik. Horren parera, EAJ eta EAren jarrera salatu zuen: Aldundian alderdi horietako ordezkariek "ez diete kasurik egin udal batzordeak hartutako erabakiei eta aurkeztutako alegazioei. Horren ordez, Eskoriatzako EAJ eta EAk subentzio garrantzitsuak jaso dituzte, kaltetutakoei lagundu beharrean".

Hurrengo legealdiari dagokionez, PSE-EEk azaldu zuen nagusienak babestuko dituen Dependentziaren Legea eta Etxebizitzaren Ituna bultzatuko duela; baita ingurumenaren aldeko apustua egingo duela, garraio publikoa bultzatuz.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

> ZIKLOTURISTAK
## Herriko zikloturista taldeak arropak salgai jarri ditu

Bizikletan ibiltzeko arropak salgai jarri ditu Antzuolako zikloturista taldeak. Interesa duenak talde horri eskaera egin beharko dio, datozen asteetan. AKE-ren egoitzan egongo dira, eguaztenetik egubakoitzera, 19:00etatik 20:30era. Eskaera guztiak batu eta gero egingo dute enkargua..

Orain dela gutxi sortu dute herriko zale batzuk zikloturista taldea eta domekero egiten dute irteera; horixe da euren helburua: elkarrekin egitea irteerak.Altzarte parean elkartzen dira, 09:00etan.

> KULTURA
## Apirilerako kultura ekitaldi ugari iragarri dituzte

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte apirilerako. Batetik, eskolako neska-mutikoak Aste Santuko oporrak dituztela eta, jolasen tailerrak eta ipuin kontaketa izango ditugu, besteak beste, apirilaren 11n. Hilaren 14rako, *Euskaraokea* antolatu dute.

Apirilaren 20an, egubakoitza, Bergarako Musika Eskolako Banda etorriko zaigu eta asteburu horretan Nagore Igartzaren argazki erakusketa eta herriko musikari gaztetxoen emanaldia izango ditugu.

**LANAK** > HERRIKO PROIEKTUAK IKUSTERA ETORRI DIRA DIPUTAZIOKO AGINTARIAK

# Biribilgunea egingo dute Sagasti aldera sartzeko

Diputazioak 800.000 euroko laguntza bideratuko du Errukizko Amaren parrokia eraberritzeko; Txabarrik eta parrokoak sinatu zuten hitzarmena

**AINTZANE IRIZAR**> ANTZUOLA

Martitzen eguerdian Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariak izan genituen herrian, Udalarekin elkarlanean egin dituzten proiektuen eta eskuartean dituztenen berri emateko. Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiarekin batera, egon ziren Esther Larrañaga Gizarte Politikarako diputatua eta Javier Zuriarrain Bide Azpiegituretarako diputatua.

Rafael Eizagirre parrokoak eta Txabarrik hitzarmena sinatu zuten parrokia eraberritzeko. Diputazioak 800.000 euroko laguntza emango dio.

**SAIHESBIDETIK SARRERA BERRIA**

Eman zuten berririk aipagarriena izan zen Sagastirako sarrera berrantolatu egingo dutela; horretarako, biribilgunea egingo dute saihesbidean, orain bidegurutzea dagoen inguruan. Proiektua idazten dihardute eta bi milioi euroko aurrekontua izango du.



**AGERRALDIA** Alkatearekin batera, Diputazioko agintariak eta teknikoak eta Rafael Eizagirre parrokoa. A.I.

**bere ustez**



Patxi Olabarria

## Badator benetako Udaberria

Lau urte luzeko neguaren ondoren Udaberria ate joka dator. Antzuolarentzat negu gogorra izan da eta ekaitzaren ondorioak guztiok pairatu ditugu. Ikusi besterik ez dago nola utzi diguten Sagastiko parkea, nola urrundu duten Udala herritarrengandik, nola baztertu duten Gertu Gae... Baina badoa negua eta badator Udaberria. Badoa apartheida eta badator Demokrazia.

Euskal Herrian negua oraindik luzeagoa eta latzagoa izan da. Baina Udaberria hatz puntekin ukitzen ari gara. Ezker Abertzaleak mahai gainean akordiorako proposamena jarri du. Hego Euskal Herrirako autonomia bakarra proposatzen da eta hori posible egiteko bai EAEko bai Nafarroako herritarren babesa beharrezkoa da. Autonomia horrek aukera guztien artean erabakitzeko eskubidea izango luke. Azken finean Demokrazia da proposamenaren funtsa eta honek gatazka konpontzea dakar, horrek suposatzen duen guztiarekin.

**"Ilun dago, baina, badator egunsentia, badator Udaberria, badator Euskal Herri Berria"**

Irlandarrek badakite honetaz zerbait, eta beraiek diote egunsentia baino lehen ageri dela ilunen gaua. Ilun dago, baina badator egunsentia, badator Udaberria, badator Euskal Herri Berria.

**PILOTA** > OLALDE ELKARTEAK ANTOLATU DU ETA ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA IZANGO DA

# Bihar, zapatua, hasiko dute Herri Mailako Pilota Txapelketa

Hamabi bikotek parte hartuko dute; bihar hasi eta ekainera arte zapaturo jokatuko dituzte partiduak

**A.I.**> ANTZUOLA

Bihar, zapatua, jokatuko dituzte Olalde elkarteak antolatutako Herri Mailako Eskuz Binakako Txapelketako lehendabiziko partiduak. Ekainera bitartean, ia zapaturo izango ditugu partiduak, herriko frontoian, 09:00etatik aurrera. Zapaturo, sei partidu jokatuko dituzte.

**12 BIKOTE HIRU TALDETAN**

Azkenean, hamabi bikotek eman dute izena eta lau bikoteko hiru taldetan banatu dituzte. Bihar, apirilaren 21ean eta 28an lehen fasea jokatuko dute. Partiduak 18 tantura jokatuko dituzte.

Bihar, zapatua, 09:00etan hasita, honako partiduak jokatuko dira: Ormazabal-Iturbe /Larrea-Aranguren; Aranburu-Irizar / Martin-Pagaldai; Bideluze-Balerdi / Aristi-Aranburu; Bargiela-Unanue / Lezeta-Aranburu; Iparragirre-Jauregi / Zabalo-Iturbe eta Garitano-Azkarate / Iturbe-Irizar.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ASTE SANTUA > UDARAKO ERRESERBAK HARTZEN HASIAK DIRA DAGOENEKO

# Aste Santurako Elgetako bi landetxeak eta hotela beteta

Aurten Bartzelona, Madril, Bilbo eta Soriatik etorriko zaizkigu bisitariak Elgetara Aste Santuko jai egunetan

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Badira pare bat hilabete Aste Santurako Elgetako hotela eta bi landetxeak beteta daudela. Aurtengoan ere Bartzelona aldetik etorriko zaizkigu bisitari gehien. Ez dira, ordea, bakarrak izango. Madrildik gero eta turista gehiago etortzen dira gurera eta aurtengoan Soria eta Bilbotik ere etorriko zaizkigu Aste Santuko bost egunetarako.

**OSTALARIAK POZIK**

Barrenengua landetxean zortzi gela dituzte eta aspalditik beteta dituztela esan digute. "Gurera Bartzelona eta Madrildik etorriko dira". Urtero betetzen ei da landetxea jai egun hauetarako eta jendea dagoeneko udako oporretarako galdezka hasita ei dago.

Eguzkitza landetxean bederatzi ohe dituzte eta horiek guztiak ere beteta daude. "Otsaila erdirako beteta neukan landetxea", esan digu bertako ugazabak. Eguzkitzara Bartzelona, Bilbo eta Soriatik etorriko dira. "Seinale ona da jendea etortzea", esan digute pozik.

Elgetako hotelak, orain, ugazaba berriak ditu. Liza Perrinet eta Paolo Fabrisendako hotelean lehenengo esperientzia izango da Aste Santu honetan. "Guretako froga moduan izango da. Hotela beteta dago aspalditik eta dena prest egotea nahi dugu jendea ondo artatzeko", esan digu Liza Perrinetek. Hotelera ere Bartzelonako turistak etorriko dira gehienbat.

**ELGETA ONDO KOKATUTA**

Elgetara etortzen diren turistak lasaitasun bila etortzen direla esan digute Barrenenguan, Eguzkitzan eta hotelean. "Elgeta oso ondo kokatuta dago", esan digute. "Guggenheim zein Donostiako Kontxako hondartza ordubetera ditu. Gasteiz ere nahiko hurbil dago".

Laster, beraz, jende berria ikusiko dugu herriko kaleetan barrena. Aste Santua gure artean pasatzera etorritako bisitariak izango dira.



## 'Intxortako Atea' eskultura bere lekuan jarri dute

Guztia prest dago Asentzion apirilaren 19an Intxortako frontea defendatu zuten gudari eta miliziarrei egingo zaien omenaldi ekitaldirako.
Urbanizazio lanak egin ondoren asteon jarri dute bertan Juan Jose Aranguren artistaren eskultura. 1936ko Gerra Zibilean Euzko Gudarostea defentsa lerro nagusia egondako gunean kokatu dute eskultura.

Lan horrekin artistak erasoengandik babesten gintuen horma irudikatu nahi izan du. "Aitaren etxearen defentsarako gudari talde batek eginiko horma, gaur, bake garaian, ate bilakatu da".

L.Z.

Perrinet eta Fabris > Hoteleko jabe berriak

# "Hotela, taberna eta jatetxea ditugu zabalik"



Liza Perrinet, 25 urte, eta Paolo Fabris, 23 urte, dira hoteleko jabe berriak. L.Z.

L.Z. > ELGETA

**Gazteak dira Elgetako hoteleko jabe berriak. Paolo Fabris, sukaldaria, Venezia inguruko herri txiki batekoa da. Liza Perrinet, berriz, Bordele ingurukoa.**

**Nolatan hartu duzue hotela?**

Egunkari batean ikusi genuen iragarkia eta Elgeta ezagutzera etorri ginen. Asko gustatu zitzaigun herria eta burubelarri sartu gara honetan.

**Baduzue eskarmenturik ostalaritzan?**

Paolo sukaldaria da. Amsterdam eta Donostian ikasitakoa da. Nik (Liza) lagundu egingo diot

**Ondo joan zaizue hasiera?**

Bai. Taberna inauguratu genuen eta pintxoak atera genituen. Jendeak gustura hartu zituen eta jatera etortzen hasi da.

**Zer ematen duzue?**

Sukaldaritza landua egiten dugu. Arraina eta mariskoa, gehien bat. Gure ardo karta ere oso berezia da. Erreserba egitea ezinbestekoa da momentuz.

ZUHAITZ EGUNA > DOMEKAN EGINGO DUTE EGOARBITZAN

# Pagoak landatzeko gonbitea egin die Udalak umeei

10:00etan egin dute hitzordua Herriko Plazan Egoarbitzan Zuhaitz Eguna egiteko

L.Z. > ELGETA

Dena prest dago domekan Egoarbitzan egingo den Zuhaitz Egunerako. Herriko umeei bereziki zuzendutako deialdia da. Guztira, 40 bat pago landatuko dituzte Egoarbitza inguruan guraso eta arduradunen laguntzarekin.

**UME GUZTIAK GONBIDATUTA**

Herriko ume guztiei egindako deialdia da. Udalak pagoak, hamarretakoa eta dituen aitzurrak jarriko ditu. Dena den, etxean aitzurren bat edukiz gero eramateko eskaera egin dute Udaletik.

Sebastian Zabaleta eta Rebeka Ubera izango dira Zuhaitz Eguneko arduradunak domekan. Umeak oinez igoko dira Egoarbitzara. Goiz osoa izango dute Egoarbitzan prest dagoen lur eremu batean pago gazteak landatzeko.

> SAGARDOTEGIRA IRTEERA

## Gaztetxeak Hernanira egingo du irteera bihar, zapatua

Gaztetxearen 11. urteurrena ospatzeko irteera antolatu dute gaztetxekoek Hernanira.

Bihar, zapatua, Hernaniko Iparragirre sagardotegian bazkalduko dute aurretik Haizea tabernan izena eman duten guztiek. Elgetatik 11:0etan irtengo dira eta asmoa da 23:00etan bueltan etortzea. Prezioa 35 euro da.

> HAUTESKUNDEAK

## Ezker abertzaleak herri batzarra egingo du gaur 20:15ean

*Indarrak biltzeko garaia* lemapean herri batzarra egingo du Elgetako ezker abertzaleak gaur, hilak 30.

Maiatzeko hauteskundeak eta egungo egoera politikoa izango dituzte aztergai besteak beste 20:15erako udaletxean deitutako bileran. Elgetar guztiak daude gonbidatuta bilera horretan parte hartzera.

RECYDE
RECYDE, S.A.
AENOR
Empresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA



**BATZARRA** Osoko bilkurara eraman zuten trenaren ibilbidea erakusten duen planoa. U.M.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# AHTren gainekoak argitzeko aholkularitza zerbitzua hartuko dute

AHTren gaineko herri galdeketa noiz egin apirilaren 3an erabakiko dute: apirilaren 22an, udal hauteskundeetan edo maiatzaren 6an

**UBANE MADERA**> ARAMAIO
Osoko bilkuran jakinarazi du alkateak AHTren gaineko proiektua udaletxean dutela. Behin betiko proiektua dela jakinarazi zuen. Hori horrela, nahi dute trenaren gaineko informazio guztia ondo ulertu eta herritarrei helarazi ahalik eta lasterren.

Baina, alkateak gaineratu zuen dokumentua bidali duten moduan (4 CD eta 2 DVD) eurak ez direla gauza hori behar bezala ulertzeko. Hori horrela, proposatu zioten udalbatzarrari Gasteizko aholkularitza zerbitzu bat kontratatzea. Lau helburuerekin.

Batetik, dokumentutik informazio interesgarriena atera eta erakusketa egiteko. Bestetik, behin betiko trenaren ibilbideаren eragina aztertu (bide mozketak, argindar harietan, iturrietan...) eta kontrastatu herrian benetan izango duen afekzioarekin. Zaindu nahi dute, baita ere, erakundeek dokumentuetan diotena bete egingo dutela lanak egin eta gero. Esaterako, bide bat kentzen badute, derrigortuta daude gero, bide hori eraikitzera; bada hori egiten dutela zainduko luke aholkularitza zerbitzuak.

Hirugarrenik Udalak nahi du jakin zeintzuk diren kaltetu guztiak (behin-behinekoak eta behin betikoak). Kaltetuekin egon eta zalantza guztiak argitzen ere lagundu nahi die. Azkenik, alegazioak aurkezteaz eta lanen jarraipena egiteaz ere enpresa bera arduratuko litzateke. Udalbatzarrak proposamena onartu egin zuen.

**IRAILEAN BERRITASUNAK**
Bestalde, jakinarazi zuten, baita ere, trenaren gaineko herri galdeketa noiz egin erabakiko dutela apirilaren 3an. Galdeketa antolatzeko taldea orduan batuko da. Hiru aukera dituzte: apirilak 22, maiatzak 6 edo udal hauteskundeak (maiatzaren 27). Trenarengatik kezkatutako herritar batzuk batzarrean izan ziren.

**EUSKARA** > TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

## 2007ko ekitaldien artean, Txirritolak aldatu egin du Sagardogileen Eguna irailera

**U.M.** > ARRASATE
Txirritola Euskara Elkarteak aurkeztu du aurtengo ikasturterako antolatzea aurreikusi dituen ekitaldien zerrenda. Horien artean, udalerrian ohitura bilakatu diren ekitaldi gehienak egiten jarraitzea nahi dute euskara elkarteko kideek. Batzuk aipatzearren, maiatzean egingo dute Esaera Zaharren III. Bertso Lehiaketa eta elkartearen urteko batzar orokorra. Eta urtero moduan, uztailean herriko jaietan Txirritolinpiadak antolatzea aurreikusi dute, koadrilekin batera. Uda aurreko beste ekitaldi bat aipatzearren, berriz, ekainerako Txalo antzerki taldea ekarri nahi dute.

**IRAILEAN BERRITASUNAK**
Bestalde, berritasunak ere aurkeztu dituzte Txirritolakoek. Besteak beste, Sagardogileen Eguna dataz aldatu eta 2007an irailean egitea aurreikusi dute, orain arteko data baino (Aste Santua) egokiagoa delako. Eta irailean, baita ere, erromeria egingo dute gazte asanbladakoekin batera.

**ESKOLA**> ZUHAITZ EGUNA 2007

## Zuhaitzak eta landareak zein garrantzitsuak diren ikasten

Oraingo asteko astelehenean egin dute eskolakoek 2007ko Zuhaitz Eguna

**U.M.** > ARAMAIO
Kurtzeta aldean eskolako ikasle nagusiak eta herriko lorategietan txikitxoenak ibili ziren astelehenean,Zuhaitz Egunaren bueltan. 1. eta 2. mailakoek Santa Ana parkean altzifreak landatu zituzten; eskolaurrekoak, berriz, kanposantu zahar aldean ibili ziren, basa erramuak landatzen.

Hori guztia egin dute Urkiolako parke naturaleko ordezkarien, Udalaren, Zuiako koadrilaren, eta Indoor enpresaren laguntzarekin. Zuhaitzak eta beste landatzen erakusteaz gainera, ikasleei zuhaitzen eta landareen garrantziaren gaineko azalpenak eman zizkieten teknikariek.

**HAGINAK ESKURA DAITEZKE**
Bestalde, nagusitxoagoek haginak landatu behar zituzten Arangioko basoetan. Baina, elurraren eraginez, ezin izan zuten egin. Hori horrela, eskolatik esan dute norbaitek haginen bat nahi badu bere lursailen batean landatzeko, eskolan eska dezakeela.

**NAGUSIAK, ERRIOXARA**
Bukatzeko, 5. eta 6. mailakoek aurten ez dute parte hartu Zuhaitz Egunean. Atzo (eguena) Errioxara joatekotan ziren, bestelakoen artean, Kantauri mendi lerroaren gainekoak lantzeko, eta irteera lartxo izango zituzketelakoan, eurek ez dute parte hartu Zuhaitz Egunean.



**TXIKITXOAK** Adi-adi ibili ziren txikitxoak adituen esanak entzuten. SAN MARTIN ESKOLA




TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

## Aramaioarrak, barikuan, Korrika

Korrikan, Arabako azkeneko kilometroa (Landatik mugaraino) Aramaioko hainbat talderen artean erosi eta fin-fin korrika egin zuten joan den barikuan. Honako hauek erosi zuten kilometro hori: gazte asanblada, Txirritola Euskara Elkartea, San Martin Eskola, Kurtzeta-Gain plater tiroa, Itur Zuri Emakume Elkartea, Orixol Mendizale Elkartea eta Azpiko Racing.

**UDALA** > ARAU SUBSIDIARIOAK

# Baserriei eragingo die arau subsidiario aldaketak

Dorleta santutegira bidean dauden lurretan Udalak ez dauka etxerik eraikitzeko inolako asmorik

**M.A.**> GATZAGA

Martxoaren 15eko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrak lur ez urbanizagarriari dagokion Arau subsidiarioen aldaketa hastea. Horren berri eman genizuen Asteleheneko Goienkarian, eta etxeak egiteko hainbat lurzoru hiri lur bihurtzeko lehen pausoa izan zela aipatu. Udalak Dorleta santutegira bidean lurrak dituela ere aipatu genuen, baina informazioa ez zen guztiz zuzena izan.

**BASERRIAK ERAIKITZEKO**

Arau subsidiarioen aldaketak ez du esan gura Dorletara bidean etxerik egingo dutenik. Aipatutako aldaketak baserriei eragingo diela bakarrik argitu digu alkateak, Joxerra Perezek: "Baserriak eraikitzeko da aldaketa edo bitan banatzeko. Dorletara bideko lurrak aipatzeak, herria harantz haziko dela esan gura du, eta halakorik ez dugu inondik inora aipatu". Hortaz, momentuz ez dute aurreikusi herrian etxerik egiterik.

Baserriak egiteko, ostera, hainbat baldintza ditu ezarrita Eusko Jaurlaritzak, nekazaritza-ustiategia izatea esaterako, eta ondoren Udalak beste batzuk ezar ditzake.

**ESPEDIENTEAK IKUSGAI**

Arau subsidiarioaren aldaketaren eta Arlaban gaineko plan bereziaren berri dakar martxoaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak. Hala, hilabeteko epea dute herritarrek aipatutako bi kontuen gaineko ingurumenaren azterketa eta espedientea ikusi eta alegazioak aurkezteko. Udaleko idazkaritzan dauzkate espedienteok.

> UDALA

## Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago maiatzaren 11 bitartean

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko 2007ko zerga ordaintzeko epea dagoeneko zabalik dago. Martxoaren 12an zabaldu zuten, eta maiatzaren 11 arte izango dute herritarrek ordaintzeko astia. Ordainagiria helbideratuta dutenek bertatik pasatuko diote, eta gainerakoek eskuan ordaindu beharko dute udaletxeko zerga-bilketa bulegoan.

Herritarren bat ados ez badago ordaindu beharrekoarekin hilabeteko epea du desadostasuna adierazi eta errekurtsoa jartzeko. Eta herritarren batek ordainduko ez balu zorra prozedura exekutiboaren bitartez eskatuko zaio.



**ERRETIRATUAK** Irailean bazkide gehienak elkartu ziren erretiratuen eguna ospatzeko. GOIENKARIA

**ERRETIRATUAK** > URTEKO BATZARRA

# Elkorobarrutiak jarraituko du izaten erretiratuen presidente

Maiatzean Hondarribira egingo dute irteera, datarik izan ez arren, eta udazkenean Nafarroa edo Errioxa aldera joatea aurreikusita daukate

**MIRARI ALTUBE** > GATZAGA

Urteko batzarra egin zuen Gatzagako erretiratuen elkarteak joan zen zapatuan, hilaren 24an. Zuzendaritza batzordeko kide batzuk aldatu gura izan zituzten, baina ez zen agertu boluntariorik.

**ZUZENDARITZAK JARRAITU**

Lau urterako hautatzen dituzte erretiratuek zuzendaritza batzordeko kideak. Hala, bi urte daroa presidenteak, Pedro Mari Elkorobarrutiak, eta beste bi egin beharko ditu. Presidente ordea, Anjel Aranburuzabala da; diruzaina, Pantxi Ibarzabal; idazkaria, Juan Mari Makazaga eta bokala, Maritxu Plazaola. Makazagak bederatzi urte egingo ditu laster zuzendaritza batzordean, eta batzarrean uzteko gogoa azaldu arren inork ez zuen hartu gura izan bere lekua.

**MAIATZEAN HONDARRIBIRA**

Elkarteak 44 bazkide ditu. Garro jauregian daukate egoitza, baina kideek diote jende gutxi hurreratzen dela bertara, baserrietan bizi direlako asko. Urtean bidaia bi egiten dituzte, eta lehena laster egingo dute, maiatzean: "Hondarribira joango gara baina oraindik zehaztu barik daukagu data", argitu digu Makazaga idazkariak. Bigarrena udazkenean izango da, Nafarroa edo Errioxa aldera. Horiez gain, erretiratuen eguneko bazkaria egiten dute irailean, mus eta briska txapelketa Gabonetan eta hainbat merienda pasara.

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

Arrasate Pilota Taldea 06-07
astelehen honetan,
*Asteleheneko Goienkaria*-rekin

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.
Oraingo astelehenean, apirilak 2, Arrasate Pilota Taldearenak argitaratuko ditugu.Taldeko pilotari guztiak argazki handi batean, pilotari eta arduradunen izen-abizenekin jasoko duzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria.*




Asteleheneko Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



TALDEAN Erretratuan orain dela bi urte Austriako distantzia luzeko lasterketan egon ziren Oñatiko taldekoak; aurten egingo duten Alemaniako ironmanerako lau lagun gehiago animatu dira. UNAI PEDREGAL

Ironman proba da triatloiak duen bertsio gogorrena; ibarreko taldeetako 16 lagun animatuko dira aurten horrelako lasterketa bat egitera

**IRONMAN** > IBARREKO HAINBAT LAGUN DABILTZA PROBA GOGOR HORI PRESTATZEN

# "Ironmana pertsona batek bere bururarekin duen lehia da; norberaren muga gainditzea"

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Aurten ere ibarreko triatloi taldeetako –Antxintxika-Algon, Oñati Triatloi Taldea, K-Tri taldea– hainbat lagunek dute ironman proba buruan, triatloi mailan dagoen probarik gogor eta luzeena. Aurten, adibidez, Oñatiko taldeko hamabi lagun joango dira Roth-eko (Alemania) ironmanera: Javier Zelaia, Josu Odriozola, Iñaki Pelayo, Iban Isati, Martin Odriozola, Raul Montiel, Jon Zelaia, Unai Pedregal, Jesus Cantero, Mikel Azkorbeitia, Joseba Blazquez eta Iban Uribetxebarria.

**IRONMANA ZER DEN JAKITEA**

Unai Pedregal da Oñatiko taldeko kideetako bat, eta hark eman digu Alemaniako lasterketaren berri: "Orain dela bi urte taldeko zortzi lagun joan ginen Austriako probara, eta sekulako esperientzia izan zen. Esango nuke triatloietan murgiltzen denari, normalean, ironman proba bat egiteko gogoa sartzen zaiola. Hala, astebete egin genuen Austrian, eta esango nuke, lasterketa hara joateko aitzakia besterik ez zela izan, ederto ibili ginen-eta". Ordutik bi urte igaro dira, eta oraingoan lau lagun gehiago animatu dira: "Bakoitza bere helburuarekin joango da Roth-era, baina hasteko, guztion buruan dagoena proba amaitzea da, horrelako lasterketa batean edozer gerta daiteke-eta. Hori horrela, egia da bigarren ironmana egingo dugunok abantaila daukagula, aurreko lasterketako erreferentziak ditugulako. Izan ere, garrantzitsua da jakitea gorputzak ze sentsazio izan behar duen zortzi ordu jarraian kirola egiten dabilenean; gerta daiteke sei ordu igarota topera ibiltzea, eta ordubete geroago pot egitea; hori neurtu behar da".

**TALDEAN, HOBETO**

Unairendako positiboa da lasterketa bera hainbat lagunen artean prestatzen ibiltzea: "Lagundu egiten du horrek, baita motibatu ere. Ez da gauza bera bakarrik entrenatzea edo taldetxo batekin ibiltzea, baina egia da bakoitzak entrenatzeko modu ezberdina aukeratu duela. Batzuek bolumena landu dute hasieran, eta beste batzuek intentsitatea".

Ironmana ez da proba azkarra; entrenamenduak, berez, ez dira gogorrak: "Baina denbora asko eskaini behar zaio, entrenamendu luzeak egiten ditugu-eta".

Oñatiko lagunek ekainaren 24an egingo dute Alemaniako ironmana; taldekideak aspaldi hasi ziren proba hori buru-belarri prestatzen: "Gutxi gorabehera, astean bederatzi kilometro egiten ditut igeri, 300 kilometro bizikletan eta 60 kilometro korrika. Horrek esan gura du astean 20 ordu inguru igarotzen ditugula entrenatzen, gimnasioan egiten dugun lana eta masajistarenean igarotzen dugun denbora kontuan hartu barik. Hori horrela, astean bi egunetan bi kirol tartekatzen ahalegintzen naiz, eta asteburuetan bizikletan kilometroak egiteko aprobetxatzen dugu".

**IRONMAN AZKARRENA**

Hori da Roth-eko ironmanak daukan berezitasunetako bat, proba guztien artean azkarrena dela,



IBAN DA SILVA Arrigorriagako triatloian egindako erretratuan, iaz; Da Silvak lehenengo ironmana egingo du. GOIENKARIA

nahiz eta guztiek duten distantzia bera –3.800 metro igeri, 180 kilometro bizikletan, 42 kilometro korrika–. "Roth-en igeriketa saioa kanal moduko batean egiten da, eta han ez dago olaturik. Horrekin batera, errepidea oso egoera onean dago, eta ez da oso aldapatsua. Korrika egiteko tartea ere itzaletan egoten da, eta horrek asko laguntzen du". Unaik onartu digu taldekide askok 10 orduren inguruan ibiltzea gura dutela, eta denbora gutxiago egitea pozteko moduko emaitza izango dela.

**LANZAROTEKOA, GOGORRAGOA**

Antxintxika-Algon taldeko Iban Da Silvak eta Xabi Lekuek erronka gogorragoa daukate aurrean, maiatzaren 19an egingo duten lasterketa zirkuituko gogorrena da-eta. Lekuek ondo ezagutzen du Kanarietako proba, lehenago ere esku hartu duelako han –aurrekoan Hawaiin egiten duten Munduko Txapelketara sailkatu zen–. Antxintxikakoa asmo berdinarekin aurkeztuko da aurten Lanzaroten, eta esan digutenez, inoiz baino indartsuago dabil.

Iban Da Silvarendako, berriz, lehenengo ironmana izango da: "Bi urte daramatzat triatloietan parte hartzen, eta buruan neukan horrelako proba luze bat egitea. Egia esateko, pazientziarekin hartu behar da, ordu asko eskaini behar zaizkio-eta. Pazientzia diodanean, baina, ez nabil nigatik bakarrik berbetan, neskalaguna, familiakoak... guztiei eragiten die". Izan ere, Ibanek onartzen du entrenamendu batek ere ezin duela kale egin: "Irailean hasi nintzen poliki-poliki proba hori prestatzen, eta Behobia-Donostia egindakoan seriotasun handiagoarekin hasi nintzen. Orain, zazpi egunetik sei entrenatzen ditut, baina orain arte, igeri egitera joaten nintzen eguna deskantsu eguna zen. Nik, behintzat, entrenamenduren batean kale egiten badut, hurrengo egunean igarri egiten dut".



AITOR REMENTERIA Bergarakoak iaz egin zuen Lanzaroteko lasterketa. Argazkian, bizikletako tartean. GOIENKARIA

ESANAK

**"Orain dela bi urte ederto ibili ginen Austriara joan ginen zortzi taldekideak; aurten hamabi joango gara Alemaniara"**

**Unai Pedregal** > Oñatiko TT

**"Esan didatenez Lanzaroten bizikletako tartea oso garrantzitsua izaten da, haizeak gogor jotzen du-eta"**

**Iban Da Silva** > Antxintxika-Algon

**"Ibarrean Karlos Baleztena izan zen ironman probetan parte hartzen lehena; hark sartu zigun besteoi harra"**

**Joseba Zuzaeta** > K-Tri taldea

Ibanek oso argi dauka zein den helburua, badaki-eta Lanzaroteko proba gogorra dela: "Hainbat taldekidek egina dute proba hori, eta badakit bizikletako tartea dela garrantzitsuena, normalean haizeak gogor jotzen duelako. Nik ez daukat beste urte batzuetako erreferentziarik, eta etxeko lanak ondo egin ditudala uste badut ere, nire asmoa proba amaitzea da, ez besterik. Aurreikusten dut 13 ordu inguru beharko ditudala proba egiteko, eta hortik behera egiten badut, oso ondo". Iban, baina, ez da ausartzen horrelako proba bat errepikatuko duen esatera: "Momentuz lehena egin gura dut, baina egia da azkenerako horrenbeste entrenatzea gogorra egiten dela".

Antxintxika taldeko kide Aitor Rementeriak ondo ezagutzen du Lanzaroteko proba, eta baita Austriakoa ere. Rementeriak ere onartu digu horrelako proba bat ondo prestatzeko denbora behar dela: "Orain dela hiru urte taldeko zazpi-zortzi lagun izan ginen Austrian, baina nik ez nuen lasterketa hura amaitu; egia esateko, emazteak animatu ninduen Lanzaroten parte hartzeko".

Horrenbeste sakrifizio merezi ote duen galdetu diogu Antxintxikakoari: "Ez dakit ba... ez dut esango gehiago egingo ez dudanik, baina... Azkenean, horrelako proba bat prestatzen dabilenak lagunak argazkietan baino ez ditu ikusten, eta etxekoekin egoteko ere denbora gutxi izaten du. Taldeak, adibidez, horrelako lasterketetarako laguntza ematen du, baina guk nahiago dugu Euskadiko trialoi zirkuitua bultzatu, eta kirol hori hemen ezagutarazi. Ironman probekin alderatuta, trialoiek ez dute zerikusirik, ez dute exijentzia maila hori. Apur bat prestatuta, edonork egin dezake triatloi bat, baina ironmana beste kontu bat da".

**ZAZPI IRONMAN BIZKAR GAINEAN**

Marka makala dauka Joseba Zuzaeta bergararrak, dagoeneko distantzia luzeko zazpi lasterketa egin ditu-eta. Zuzaeta Bergarako K-Tri taldeko kide da, eta talde horretako kideek ironmanak bakarrik korritzen dituztela argitu digu: "2001ean egin nuen Danimarkan lehenengo lasterketa, eta egia da kirol horrek harrapatu egiten zaituela. Kirol hori pertsona bakoitzak bere buruarekin duen borroka da, norberaren muga gainditzea da helburua".

Aurten, Aritz Kortabarria –sei ironman egin ditu– taldekidearekin batera *Moraviaman* (Txekia) lasterketan hartuko du esku, eta baita *Elbaman* (Italia) proban ere: "Urtero horrelako proba luze bat egiteko, azkenean, entrenamenduak errutina bilakatzen dira". Hala, Zuzaetak esan digu Karlos Baleztena izan zela ibarrean distantzia luzeko lasterketetan aitzindari: "Hura hasi zen horrelako lasterketak egiten, eta hark sartu zigun kirol horren harra". Horrekin batera, kirol horretan buru-belarri dabiltzanek etxean duten laguntzaren gainean ere egin digu berba Bergarakoak: "Askotan aipatzen dugu ez dela gauza bera horrelako lasterketa bat prestatzea, edo urtero horretan jardutea. Etxekoen laguntza ezinbestekoa da, eta nik eskertu besterik ezin dut egin, bestela, ezinezkoa izango litzateke-eta horrela ibiltzea". Helburua betetzen badu, bederatzi ironman eginda amaituko du Zuzaetak urtea.

IRONMAN PROBA BATEAN LANTZEN DIREN HIRU KIROLAK



### 3.800 metro igeri

Igeriketa saioak osatzen du horrelako distantzia luze bateko lehenengo tartea. Proba batzuetan itsaso zabalean egiten dute igeri –normalean gaitzagoa izaten da, olatuek eta ur korronteek ez dute-eta erraztasunik ematen–, eta beste batzuetan laku edo ur kanaletan egiten dute saioa. Azkarrenak ordubete baino lehenago irtengo dira uretatik.



### 180 kilometro bizikletan

Igeri egiteko trajeak erantzi, bizikletan ibiltzeko zapatilak jantzi eta txirrindulariek 180 kilometroko ibilbidea dute aurretik. Proba bakoitza oso ezberdinak izaten da; normalean bizikleta tartea malda gutxikoa izaten da, horrelako lasterketetan ez duten igoera oso gogorrik jartzen; azkarrenek bost orduren bueltan egiten dute tarte hori.



### 42 kilometro arineketan

Edo beste modu batean esateko, atletek bizikletak utzi eta maratoia izaten dute aurretik. Horrelako proba luze batean, beharbeharrezkoa da azken saio horretarako indarrak gordetzea. Ezinbestekoa da trantsizioak ondo landuta izatea; hau da, gorputzak jakitea kirol bat egin eta gero bestea datorrela. Azkarrenek hiru ordu beharko dituzte.

FUTBOLIN TXAPELKETA
Saria: **Mercedes SE 400** edo **5.000 euro** txapeldunarentzat
eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)
BTLS 7 JOKU AUTOMATIKOAK
www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051
**Antzuola:** Mox – Surpe **Aretxabaleta:** Haizea – Izotz – Kixkor **Arrasate:** Biona – Iturriotz Equs – Udala – Wiskeria **Bergara:** Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara Gaztetxea – Mitor **Eskoriatza:** Aldatz – Naira **Oñati:** Arrano – Ongi – Otamendi

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Lehenengo maila**
Reala-Levante
Zapatua. 20:00. Anoeta.

**Preferente maila**
Zestoa-Aretxabaleta
Zapatua. 16:45. Zubiaurre.
Aurrera Ond.-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Ondarroa.
Hernani-Mondra
Domeka. 17:00. Zubipe.

**Lehen erregionala**
Bergara-Tolosa
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**Bigarren erregionala. Igoera fasea**
Urnieta-BTLS
Zapatua. 16:30. Urnieta.
Antzuola-La Salle
Zapatua. 16:30. Estala.

**Bigarren erregionala. Kopa txapelketa**
Mondra-Aretxabaleta B
Domeka. 16:45. Atxabalpe.

**Ohorezko mailako gazteak. Igoera fasea**
Mondra-Herrerako Sporting
Domeka. 12:00. Atxabalpe.
Aretxabaleta-Burumendi
Zapatua. 15:30. Ibarra.
Martutene-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Martutene.

**Ohorezko mailako gazteak. Jaitsiera fasea eta Kopa**
Bergara-Mariño
Zapatua. 18:30. Ipintza.

**Lehen mailako gazteak. Igoera fasea**
Ekintza-Arizmendi Aretx.
Domeka. 15:00. Berio.

**Lehen mailako gazteak. Kopa txapelketa**
Antzuola-Eibartarrak
Zapatua. 12:00. Estala.
Ikasberri-Bergara
Zapatua. 15:00. Garmendipe.
Zarautz-Arrasate
Domeka. 11:00. Asti Txiki.

**Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea**
Tolosa-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 17:30. Usabal.
Lengokoak-Bergara
Zapatua. 10:30. Donostia.

**Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsiera fasea**
Aloña Mendi-Antiguoko
Zapatua. 11:30. Ibarra.
Hondarribia-Arrasate
Zapatua. 11:30. Ondartza.

**Lehen mailako kadeteak. Kopa Txapelketa**
Bergara B-Soraluze
Domeka. 12:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako infantilak. Txapeldunen fasea**
Arizmendi Aretx.-Lengokoak
Zapatua. 10:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako infantilak. Jaitsiera fasea eta Kopa**
Arrasate-Anaitasuna
Domeka. 10:00. Atxabalpe.
Añorga-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Rezola.

**Lehen mailako infantilak**
Billabona-Bergara
Zapatua. 11:30. Arratzain.

**Infantil txikiak. Kopa**
Arizmendi Aretx.-Vasconia
Zapatua. 12:00. Ibarra.

**Emakumezkoen igoera fasea**
Mondra-BTLS
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.

**Emakumezkoen Kopa**
Agurain-Arizmendi Aretx.
Domeka. 11:30. Agurain.
Urki-Aloña Mendi
Zapatua. 15:00. Unbe.

**Kadete neskak. F11 Txapeldunen fasea**
Arizmendi Aret.-Lagun Onak
Zapatua. 11:30. Almen.
Gasteiz Cup-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Betoño.

**Kadete neskak. F8 Kopa**
Mutriku-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 15:30. San Miguel.

**ARETO FUTBOLA**

**Euskadiko Liga**
Goierri-Eskoriatza
Domeka. 17:00. Urretxu.

**Lehenengo maila**
Aloña Mendi-Pari-Berri Tab.
Gaur. 22:30. Zubikoa.

**Hirugarren maila**
Yone Boutique-UDA Goiko L.
Domeka. 12:00. Hernani.

**Gazteak**
Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Antoniano.

**SASKIBALOIA**

**ACB**
Fuenlabrada-Bruesa GBC
Domeka. 12:30. Fuenlabrad.
TAU Ceramica-Caja San Fer.
Zapatua. 19:30. Gasteiz.

**Lehen maila. Igoera fasea**
Mugarri Alkesa. Atsedena.

**Gipuzkoako ligako senior maila, gizonezkoak**
Irun Basket-Candy BKE
Gaur. 19:00. Irun.
Ordizia.Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Ordizia.
Candy BKE-Ainhoa Taberna
Zapatua. 16:00. Labegaraiet.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Añorga-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.
Aloña Mendi-STL Bilintx
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako junior maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-Barcelo bidaiak
Zapatua. 19:15. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako junior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-STL Lazkao Txiki
Zapatua. 11:15. Intxaurtxueta.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-Krafft Atletico
Zapatua. 11:00. Zubikoa.
Ford Mugarri-Gros Xake
Zapatua. 16:00. Musakola.
Easo Basoa-Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Krafft Atletico
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.

**Gipuzkoako ligako infantil maila, gizonezkoak**
Arizmendi A-LEK A
Zapatua. 10:30. Musakola.
Arizmendi B-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Musakola.
Sein Mutilak-LEK B
Zapatua. 09:30. Azpeitia.
Tolosa-Bergara 94
Zapatua. 10:30. Tolosa.

**Gipuzkoako ligako infantil maila, emakumezkoak**
LEK E- LEK B
Zapatua. 12:00. Musakola.
LEK D-LEK A
Zapatua. 10:30. Musakola.
Aloña Mendi-BKL A
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Senior Maila**
Ford Mugarri-LUK Internac.
Zapatua. 16:30. Iturripe.

**Emakumezkoak. Goren maila**
Jarrilleras-Verkol Aloña
Zapatua. 16:30. Portugalete.
Urdaneta-Bergara
Domeka. 12:30. Loiu.

**Lehen territorial maila. Kopa Txapelketa**
BKL CAF-Arrasate Eskubaloi
Domeka. 11:30. Beasain.
Aloña Mendi. Atsedena.

**Gazte maila. Gizonezkoak**
Usurbil-Bergara
Domeka. 11:30. Oiardo.
Urola-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zumarraga.

**Kadete maila, gizonezk.**
Bidasoa Irun-Gatz Museoa
Domeka. 10:00. Zarautz.
Donibane Esk.-Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Pasaia.

**PILOTA**

**Pilotari profesionalen jaialdia**
Domeka. 17:00. Bergara.
Eugi-Elkoro
Capellan-Zubieta
------------------------------
Martinez de Irujo-Nalda III
Chafee-Pascual
------------------------------
Baleztena-Arruti
Larralde-Apeztegia

**ERRUGBIA**

**Euskadiko Kopa**
Gaztedi-Arrasate
Zapatua. 16:30. Gasteiz.



**Mondra-BTLS derbia, emakumezkoen igoera fasean**
Zapatu arratsaldean (16:30) izango dira bi talde horiek zein baino zein gehiago Atxabalpeko zelaian.

**FUTBOLA** > ZALEAK REALAREKIN

# Arrasateko Realaren aldeko taldeek bat egingo dute bihar

Igoa peña, Bonba taldie, Gontxa taldie eta Arrasate txuri-urdin taldeko kideek irteera antolatu dute biharko; sagardotegian bazkaldu eta gero joango dira Anoetara



**GARI URANGA** Osasunaren kontra, artxibo irudian. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Joan den astean Mikel Gonzalezek berak azpimarratu zigun bihar (20:00) Realak Levanteren kontra jokatuko duen norgehiagokak berebiziko garrantzia duela. Izan ere, mailari eusteko borrokan, 20. lekuan dagoen Realarendako (18 puntu) kontrario zuzena da Levante, Valentzia aldeko taldea 16.a da-eta sailkapenean, hamar puntuko aldearekin (28).

Hori izango da geratzen diren 12 norgehiagoka garrantzitsuetako lehena. Egoera horri aurre hobeto egiteko, eta taldea gertutik animatzeko, Arrasateko Realaren aldeko talde guztiek –Peña Igoa, Bonba Taldie, Gontxa Taldie, Arrasate Txuri-Urdin– batera antolatu dute irteera. Sagardotegian bazkaldu eta gero Anoetan ikusiko dute partidua.

**PREFERENTEA, ETXETIK KANPO**

Sailkapenean bigarren dagoen Hernaniren (50) zelaian jokatuko du Mondrak (41) domeka arratsaldean (17:00). Azken asteotako emaitza eskasekin, Pasaiaren kontrako 4-1ekoak on egingo zion Arrasateko taldeari. Gordobilen mutilek dena beharko dute Zubipeko zelaian; egia da, baina, arrasatearrek etxetik kanpora edozeinen kontra eman dezaketela ezustea. Behin baino gehiagotan erakutsi dute hori.

Aretxabaletakoek (37), berriz, Zestoara (46) egingo dute bihar arratsaldean bidaia (16:45). Joan den jardunaldian Felix Recioren mutilek ere ondo irabazi zioten Touring-i, eta jarraian erdiesten duten hirugarren garaipenaren bila joango dira bihar Zubipe futbol zelaira.

Aloñak (35), azkenik, bi postu atzerago dagoen Ondarroako Aurrera (33) taldea izango du bihar kontrario (17:00) Ondarroa futbol zelaian. Joan den astean Oruetaren mutilek 3-3 egin zuten etxean, Ordiziaren kontra. Pasaiaren kantxan ere emaitza bera erdietsi zuten; taldeak erakutsi du gola egiteko erraztasuna duela, baina gura baino gol gehiago jasotzen dituzte.



GOIENKARIA

## Kadete mailako lasterkariak Urretxun lehiatuko dira asteburuan

Dorletako Ama txirrindulari elkarteko JMA Sein taldea da argazkikoa. Dorletako Amakoekin batera, kadete mailan Oñatiko eta Bergarako taldeetako txirrindulariek martxoaren 10ean hasi zuten Gipuzkoako Txapelketa, Beasainen. Ordutik Eibarren eta Azpeitian korritu dute, eta oraingo asteburuan Urretxun izango dira. Denboraldian zehar kategoria horretako hiru lasterketa antolatu dituzte Bergaran egiteko, eta Oñatin ere izango dira lehian.



**> MUSIKA**
Rose Tattoo Jamen eta Elliot Murphy 3.60 aretoan, asteburuan **> 45**



**> GIPUZKOA ENCOUNTER**
Informatika zaleen batzarra Tolosan egingo da **> 51**

**> AITOR BIAIN**
Oñatiko Udal Musika Bandan klarinetea jotzeaz gain, Ganbara abesbatzako kide da eta zuzendari dabil hainbat taldetan. Zainetan darama musika Biainek **> 50**





**IRAKURLE GAZTETXOAK** Txikien artean irakurzaletasuna bultzatzea da asteleheneko ospakizunaren helburu nagusia. Goiko argazkia Kulturaten aterata dago. ARGAZKIA: XABIER URTZELAI

# Haur liburuak protagonista

**APIRILAK 2**
Hans Christian Andersen idazlearen jaiotzaren 202. urteurrena beteko da astelehenean

**HAUR LIBURUA**
Haren omenez, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da egun horretan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Hans Christian Andersen idazle daniar ezaguna (1805-1875) jaio zeneko egunean, apirilaren 2an, ospatzen da Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Eguna, 1960ko hamarkadatik. Txikien artean irakurketa bultzatzea eta liburuekiko interesa piztea da helburua. Inoiz baino liburu gehiago kaleratzen dira gaur umeei zuzenduta, eta benetan gauza ederrak dira artean. Testuek eta ilustrazioek irudimena pizten jarraitzen dute.

(44. orrialdean jarraitzen du)

# Haur liburuak protagonista

(43. orrialdetik dator)

Debagoieneko udal liburutegiak elkarlanean ari dira azken urteotan eta horren lekuko ditugu urtero kaleratzen dituzten gidak: *Neguko Gida*, Gabonen atarian eta *Biblioporrak*, udari begira. Adin ezberdineko irakurleei zuzendutako gomendioak jasotzen dituzte bertan, adin txikikoendako liburuak tartean.

**HAINBAT EKITALDI**

Arantzazu Ibarrondok 17 urte darama Oñatiko Udal Liburutegian lanean: "*Neguko Gida* ateratzen dugunetik, urtea osatuago geratzen da. Gure fondoak eta azken nobedadeak ezagutzera emateko modua da", dio. Astelehenekо Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Egunerako ez dute ezer antolatu. Bai, ordea, apirilaren 23ko Liburuaren Eguna ospatzeko. Hainbat ekitaldi iragarri dituzte ospakizun horren inguruan, tartean Maite Frankoren ipuin kontaketa (apirilaren 19an), *Animaliak hizketan zekiten garaian* erakusketa edo Jose Antonio Azpiazu historialariaren hitzaldia (apirilaren 25ean). Ibarrondok zera diosku: "Haur eta Gazte Liburuaren Eguna Aste Santuan ere tokatu izan da behin baino gehiagotan eta nahiagoa izaten dugu Liburuaren Eguna ospatu. Liburuaren Astea egingo dugu aurten, apirilaren 16tik 27ra".

Eskoriatzako Haur eta Gazteen Liburuen mintegiko partaidea ere bada Ibarrondo, hasieratik gainera. Eta gaztetxoei zuzendutako liburuak bereziki gustuko dituela diosku: "Asko gozatzen dut gaztetxoei zuzendutako liburuak irakurtzen. Ez testuekin bakarrik... Ilustrazioak ere bikainak izaten dira askotan, estetika ezberdinak lantzen dituzte eta album zoragarriak aurkitu ditzakezu. Opariak egiteko behin baino gehiagotan jotzen dut halako liburuengana. Haur eta gazte literatura gutxiesten dutenak badira, baina literatura ona unibertsala da eta denboran irauten du. Ez dauka adinik, helduontzako behinik behin". Gaurko gaztetxoek asko irakurtzen dutela uste du: "Jendea inoiz baino gehiago hurbiltzen da liburutegietara eta eskaintza oso zabala dago, euskarri ezberdinetan gainera. Liburutegiak bizirik daude, ez gara artxiboak jende batek uste duen moduan. Aurreko belaunaldiekin konparatuz gero, gehiago irakurtzen da orain eta ume txikiek ere asko irakurtzen dute, nerabezaroan gauzak aldatzen badira ere".

Aretxabaletan, *Erreka Mari* txotxongilo emanaldia izango da astelehenean, 18:00etan, Udal Liburutegian. Bertako langile den Joseba Lopez de Armentiak adierazi digunez, ume asko joaten da liburutegira: "1.500 bazkide inguru ditugu eta 500 bat 14 urtetik beherakoak dira. Sarri etortzen dira, gehienetan gurasoen laguntzaz. 6-10 urte bitarteko umeendako eskaintza zabala dago gaur, eta txikitatik erakusten dute neska-mutikoek liburuekiko interesa". Aretxabaletan egiten diharduten kultur etxe berriko liburutegiak txoko berezi bat izango du gaztetxoei zuzenduta. Urte bukaera aldera zabalduko dute.



**IRAKURZALETASUNA** Adituen ustez, gaurko umeek badute irakurtzeko ohitura. XABIER URTZELAI

Arrasateko Kulturate izan da Debagoienean inauguratuko azkena. Asun Agiriano da bertako haur bibliotekaria. 6 urtera artekoen haurtxoteka dute eta gazteen gunea ere bai. Aste Santuaren ostean liburuen gaineko hainbat ekitaldi antolatuko dituzte: ipuin kontaketak, erakusketak eta beste hainbat. Irakurzaletasuna piztea da kontua.

**Nerea Alzola** > Haur eta Gazteen Liburuen Mintegiko zuzendaria

## "Literaturak hobeto bizitzen laguntzen digu"

**E.M.** > ESKORIATZA

**Nerea Alzola irakasle arrasatearra HUHEZIko Haur eta Gazteen Liburuen Mintegiko zuzendaria da. 17 urte dira Eskoriatzan mintegia martxan jarri zutenetik.**



GOIENKARIA

**Zein helbururekin sortu zenuten Eskoriatzako mintegia?**

Irakasle eta liburu zainen prestakuntza sustatzeko. Prestakuntzaren oinarrietako bat liburuak ezagutzea da. Hasi ginenean oso gutxi ezagutzen genuen haur literatura, produkzio gutxi zegoen... Guretzat prestakuntza izateaz gain, eskolei eta liburutegiei gida irakurketa eskaintzen diegu urtero, euskarazko produkzioaren artean gomendagarriak iruditzen zaizkigun liburuak jasota eta komentatuta: EAEko eskola guztietan eta pedagogia erakundeetan banatzen da doan, beste paketetxo bat Nafarroara doa, Iparraldera ere bai...

**Zein da lan egiteko metodologia?**

Bartzelonako Rosa Sensat elkartearen esperientzian oinarritu ginen. Haiek ere biltzen ziren, liburuak komentatu... Hango koordinatzailea gonbidatu genuen Monterronen egin genuen aurkezpenera eta hainbat irakasle eta liburuzain apuntatu zen. 12 bat lagun biltzen gara gaur, hamabostean behin, eta euskaraz argitaratzen dena aztertzen dugu, itzulpenak tartean. Haur eta gazte literaturan 100etik gora liburu dira urtean. Eta mintegia berritzen doa. Juli Leza Eskoriatzako Ezeizako irakaslea gogora ekarri nahi nuke, zoritxarrez urtarrilean hil zen eta. Partaide fina izan da urtetan.

**Zeintzuk dira haur liburu on baten osagarriak?**

Literaturan ez da erraza irizpideak finkatzea eta kritika egitea. Edozein modutan, hainbat irizpide jarraitzen ditugu: hizkuntza (zuzentasuna zein aberastasuna), gaiaren trataera (fantasia baldin badago ondo tratatua egotea, sinesgarria izatea, literatura izatea eta ez liburu didaktikoa...), pertsonaiak aberatsak eta ondo definituta izatea, hasiera eta amaiera ona edukitzea, ilustrazioak testuarekin bat etortzea (ilustratzaile bikainak ditugu Euskal Herrian) eta estetika ezberdinak eskaintzea... Hainbat osagarri daude. Tarteka, liburu zoragarriak kaleratzen dira gaur.

**Liburuaren etorkizuna askotan jartzen dute zalantzan...**

Neurri handi batean gure esku ere badago liburuaren etorkizuna. Obsesionatuta gaude umeek irakurri behar dutela eta, baina irakurzaletasunaren transmisioa beharrezkoa da, ez bakarrik hitzekin. Literatura, edozein narrazio, oso inportantea da zure mundua aberasteko, beste mundu batzuk ezagutzeko, zure burua hobeto ezagutzeko... eta hain azkar bizi garen gizarte honetan, zaila da liburu batek eskatzen duen sosegua topatzea. Entzumena, oroimena edo kontzentrazioa lantzeko eskola ona da litetatura, eta hobeto bizitzen laguntzen digu. Ez da gutxi.

### LAU LIBURU




**Pipitaki**
Juan Kruz Igerabide

Lorena Martinezen marrazkiekin lagunduta. 6 urtetik aurrerako neska-mutikoei zuzendutako liburua. Marrazki koloretsuak, testu laburrak, eta irakurterrazak: "Pipitaki, papataki, nork daki, nork daki, zein dagoen etxe barruan, isilik-misilik...".




**Pello Telleriaren amets eroak**
Mitxel Murua/Eider Eibar

Debagoieneko udal liburutegiek kaleratzen duten aurtengo *Neguko Gida*n jasotako liburuetako bat hau ere. 6 urtetik aurrerako neska-mutikoendako aproposa. "Pello Telleria arraro zebilen aspaldian; oso amets xelebreak zituen gauetan..."




**Urrezko giltza**
Patxi Zubizarreta

Arantzu Ibarrondok beste hainbat liburu gomendatu dizkigu: *Urrezko giltza* (Patxi Zubizarreta), *Iholdi* (Mariasun Landa) edo *Maitagarrien hiru ipuin* (Gustavo Martin Garzo). Eta Alzolak beste hauek: *Suni Suni* (Pello Añorga), *Kea airean bezala* (Imanol Azkue) eta *Begira begira tradizioaren leihotik* (hainbat autore).



**Las princesas olvidadas o desconocidas**

Euskaraz zein gazteleraz argitaratutako liburu onenak gomendatzen dituzte ibarreko udal liburutegiek, Gabonei begira eta udako oporretarako baita. Philipe Lechermeier-en eta Rèbecca Dautremer-en *Las princesas olvidadas...* liburuan bezala, testuak eta ilustrazioek bat egiten dutenean, emaitza zoragarria da.

**MUSIKA** > ROSE TATTOO ETA ELLIOT MURPHY

# Rose Tattoo, AC/DC taldearen anai txiroak gurean

Rose Tattoo australiarren emanaldia; eta Elliot Murphy klasikoarena, asteburuko perlak



**HARD ROCK** Rock-and-rollean oinarritutako hard rocka egiten du Rose Tattook. Guns´N´Roses zorretan dago eurekin. JAM

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Asteburu honetan ere mota askotako kontzertuak izango dira Debagoienean. Bi nabarmenduko ditugu: egubakoitzean, Elliot Murphyk 3.60 aretoan egingo duena; 23:00etan izango da eta Jim TNT izango du lagun. Domekan, berriz, Rose Tattoo Jam aretoan izango da; Gutbucket taldea izango du lagun, eta 20:30ean izango da kontzertua.

Rose Tattoo talde beteranoa oso gutxitan etorri da Euskal Herrira. Hain zuzen ere, 2000. urtean Sestaon motozale elkarte batek ekarri zituen, eta izugarrizko ikuskizuna eman zuten, nahiz eta musikariak adinekoak izan.

**GUNS´N´ROSESEN AURREKARIAK**
Rose Tattoo 1976an sortu zuten Australian, Rolling Stones eta Faces taldeek eraginda. Rock-and-rollean oinarritutako hard rock indartsua egiten hasi ziren, AC/DC taldearekin batera. Hain zuzen ere, bi taldeek izandako bilakaera ikusita, esan dezakegu Rose Tattoo direla AC/DCren anai pobreak, merezi arren, halako arrakasta erdietsi ez dutenak.

Australian aritzeaz gain, AEBetatik eta Europatik barrena hainbat bira egin dituzte 80ko hamarkadatik gaur egunera arte. Londonen jo zuten lehenengo aldian Marquee Club aretoko marka hautsi zuten erabilitako bolumenarengatik.

AEBetako biran Los Angelesko sleaze metal taldeak inspiratu zituzten. Hala, Guns´N´Rosesek *Lies* diskoan Rose Tattooren *Nice boys don´t play rock-and-roll* bertsionatu zuen; eta askotan esan dute australiarrak ezinbestekoak direla Guns´N´Roses sortzeko. Are gehiago, 1992an, Axl Rosen taldeak agertokietara bueltatzeko konbentzitu zituen.

Australiarrek sasoian jarraitzen dute, itxurengatik hala ez dirudien arren, eta ezinbesteko hainbat disko dituzte: *Rose Tattoo, Assault & Battery, Scarred for life* edota *25 to Life* zuzenekoa.

**DYLANEN PAUSUAK JARRAITUZ**
Gaur, egubakoitza, Elliot Murphy New Yorkeko jatorria duen musikaria arituko da Arrasateko 3.60 aretoan; eta aurretik Jim TNT arrasatearra izango du agertoki gainean.

Murphy oso ezaguna da Europa osoan, eta Euskal Herrian ere hainbat jarraitzaile ditu. Hain zuzen ere, joan den San Juanetan Arrasateko Monterron parkean izan zen, eta emanaldi ikaragarria egin zuen.

Murphy New Yorken jaio zen, baina aspaldítik Parisen bizi da. Askotan Murphyren musika Bob Dylanenarekin konparatu dute; eta tarteka Bruce Springsteenek lagundu du hainbat grabaziotan. Hogeitik gora lan kaleratu ditu orain arte, eta rocka eta AEBetako folk-rocka dira gustukoen dituen musika estiloak.

Gaurko emanaldian ohiko musikari frantziarrak izango ditu alboan: Olivier Durand, Danny Montgomery eta Jorge Otero, hain zuzen ere.



**FORMAZIO BERRIAREKIN** Argazkian gaur egungo taldekideak: Jaime, *Barba* eta Alexis. LOS CRETINOS

**MUSIKA** > ROCK-AND-ROLL KONTZERTUAK

# Los Cretinos taldea Londonera doa

Hiru emanaldi egingo dituzte Ingalaterrako hiriburuan, apirilaren 5etik 7ra bitartean

**I.B.** > ARRASATE
Los Cretinos talde arrasatearra Londonera doa datorren astean. Hain zuzen ere, hiru kontzertu emango dituzte Ingalaterrako hiriburuan: apirilaren 5ean, Corn Rocket aretoan; hilaren 6an, Dirty Waterren; eta hilaren 7an, 12 Bar Cluben, hain zuzen ere.

Los Cretinos taldeak rock-and-rolla egiten du, garage eta surf estiloekin zipriztinduta. Orain dela gutxi, *Arranca el coche lana* kaleratu dute; eta hori aurkeztuko dute *Papa Omew mew tour* izeneko bira laburrean. Azken aldian Alexis baxu jotzaile berria dabil taldean.



**KOROSTI INMOBILIARIA**
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- San Pedro 110 m². Estreinatzeko.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Aranerreka 87m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m² Ondo.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 60 m². Berritua.

***Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon.2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.***

**Elgeta:**
- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

**DEBA GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Arrizuri 97 m², oso ondo.
- Juan XXIII 80 m², berritua.
- Masterreka 87 m², oso ondo.
- Zabalotegi 50 m², berritua.
- Bidekurutzeta 60 m², oso ondo.
- Zubiaurre 60 m², prezio ona.
- Ortuibar 100 m², garajearekin.
- Paseo Irizar 89 m², garajearekin.
- Erdialdean 200 m², aukera ona.
- Bidekurutzeta 82 m², ia berria.
- Ibargarai 80 m², ondo.
- Artekale 62 m², oso ondo.
- Zubieta 70 m², oso eguzkitsua.
- Osintxu 82 m², garajearekin, ondo.
- Matxiategi 60 m², ondo.
- San Lorentzo 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

**SORALUZE**
- Gabolatz, 65 m², oso ondo
- Atxuri, 93 m², oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**Alfa INMOBILIARIA HIPOTECAS**
**Parrokia ondoan**
Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

**ARRASATE**
- Erguin: 2 logela, sukaldea, egongela, bainua eta berogailua. 30.000.000 pta.
- Santa Teresa. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua. 30.000.000 pta.
- Uribe Auzoa. 3 logela, sukaldea eta bainugela. 38.000.000 negoziagarriak.
- Uribe Auzoa. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainua. Berehala joateko. 53.500.000 pta.
- Makatzena. 72 m². Berritzeko.
- Erguin. 65 m². Oso ondo.
- Zentroan. 115 m². Garajea. Arrasateko tokirik hoberenean. Bista ezin hobeak.

**ARETXABALETA**
- Markole. 99 m². Bi trasteleku eta garajea.
- Etxe bakarra, 140 m². 400 m²-ko lursaila. Garajea.
- Estrenaitzeko etxebizitza. 3 logela, 2 bainu, egongela, sukaldea, ganbara eta garajea. 49.000.000 pta.
- Portasol. 85 m². Berritua. Prezio ona.

**www.alfamondragon.com orrialdean 7.000 etxebizitza baino gehiago aukeran**

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARRASATE**
Enpresa batek fresatzeko makinan jarduteko pertsona bat behar du.
943 71 19 79
615 78 67 05

**BERGARA**
Mekanizazio enpresa batek pertsona bat behar du tailerrerako. Interesatuok bidali curriculumak **279 posta-kutxara.**

**BERGARA**
Depor tabernak zerbitzaria behar du.
629 26 88 51

**OÑATI**
Esperientziadun ile apaintzailea behar da.
607 81 52 74

**ARRASATE**
Auto kontzesionario batek esperientziadun ibilgailu-pintorea behar du.
943 79 45 22

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Buztinzuri kalean. 74 metro koadro. Hiru logela. Eguzkitsua. Altzariekin. Telefonoa: 616 09 46 55.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. 607 79 00 37.

**Antzuola.** Zurrategi plazan duplexa salgai. 666 81 56 42.

**Antzuolan** 72 metro koadro. Hiru logela. Berogailua. Jantzita. 685 70 41 10.

**Aretxabaleta.** 97 m2, hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, berogailua. Erdialdean. Telefonoa: 660 79 27 67.

**Aretxabaleta.** Etxea salgai. 72 m2, berritzeko. Garajea aukeran. 659 64 67 38.

**Arrasate.** Etxea salgai. 93 m2. Hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela eta ganbara. Garajea aukeran. 670 42 21 08.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai erdialdean. 60 metro koadro. Hiru logela, komuna, sukaldea eta egongela. Egoera onean. Telefonoa: 616 33 79 33.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna eta sukalde berritu eta jantzia. Terraza eta berogailua ere baditu. Oso eguzkitsua. Bizitzera joateko moduan. 227.180 euro. 628 88 81 08.

**Arrasate.** Grupo San Juan. 60 metro koadro. 4. solairua. Igogailua, ganbara eta sotoa. Telefonoa: 606 25 92 80.

**Arrasate.** Maalako Errabalean etxebizitza salgai. 76 m2. Berria. Dena kanpoaldera. Telefonoa: 695 77 62 19.

**Arrasate.** Uribe auzoan etxea salgai. 85 m2, berrituta. Garajea eta trastelekua aukeran. 626 35 60 90.

**Arrasate.** Zarugalde kalean etxebizitza salgai. 80 m2. 3 logela. Dena kanpoaldera. Berritua. 606 55 10 92.

**Arrasate.** Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldea, trastelekua eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. Deitu telefono honetara: 652 73 22 83.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Bizi izatera sartzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

**Bergara.** Eguzkitsua. 80 metro koadro. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta bi terraza. Berogailua du. Guztiz berrituta. Deitu telefono honetara: 665 70 21 92.

**Bergara.** Erdialdean (Simon Arrieta). 80 metro koadro. Balkoi ederra du eta berogailu indibiduala. Igogailuarekin. 258.400 euro. 664 73 49 60.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Berrituta dago, berogailua dauka eta baita ganbara ere. 943 28 76 36.

**Bergara.** Labegaraietan etxea salgai. Berrituta. Prezio interesgarria. Deitu telefono honetara: 635 74 28 84.

**Bergara.** Matxiategi kalean, 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Saloia, jangela, sukaldea, bainugela eta 3 logela. Berogailuarekin. Deitu telefono honetara: 638 86 82 53.

**Bergara.** Simon Arrietan 57 m2-ko etxea igogailuarekin, 2 logela, egongela, sukaldea, trastelekua. Deitu telefono honetara: 649 63 11 74.

**Bergara.** Simon Arrietan. 80 metro koadro. Bi logela, jangela, sukaldea, bainugela bat eta berogailua gas naturalarekin, indibiduala. Igogailua. Balkoi ederra. 43 milioi. 664 73 49 60.

**Bergara.** Zubiaurre kalean dago. 60 metro koadro ditu.Berogailua dauka. Guztiz jantzita. 162.000 euro. Deitu telefono honetara: 619 65 10 87.

**Bergaran.** Koldo Eleizalde kalean 97 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, eguzkitsua; bista ederrak. Garajearekin. 655 71 03 23.

**Cambrils** (Tarragona). Apartamentua salgai daukatLlosa inguruan. Hondartzatik oso gertu. Garajea, igerilekua eta loritegia. Deitu telefono honetara: 619 72 34 33.

**Eskoriatza.** Hiru logela, bi bainu oso, egongela, sukaldea. Deitu 18:00etatik aurrera. 699 36 27 19.

**Oñati.** Etxaluze etxean etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainu, sukaldea, egongela handia, bi balkoi, trasteroa, patioa, ganbara eta aszensorea. Garajea aukeran. Deitu telefono honetara: 647 24 80 02.

**Oñati.** Etxea salgai San Lorentzon. Garajea aukeran. Prezioa, negoziagarria. 656 74 80 47.

**Soraluze.** Erdialdean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berrituta. Deitu telefono honetara: 687 08 33 00.

### 102. EROSI

**Arrasaten** 2 logelako etxe berri bat edo etxe berritua erosiko nuke. Deitu telefono honetara: 609 41 53 26.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Apartamentua hartu nahi dut errentan urtebeterako. Erdialdean bada hobeto. Ainhoa. Deitu telefono honetara: 943 71 20 80.

**Arrasate.** Erdialdean. Bikote batendako aproposa. Deitu telefono honetara: 647 57 84 81.

**Cambrils** (Tarragona). Apartamentua, hondartzatik oso hurbil. Igerileku eta berdegunearekin. 610 79 47 29.

**Carboneras** (Almeria). Bi etxebizitza ematen dira errentan. Hondartzan daude. Itsasora ematen dute. 1.000 euro hamabostaldia. 950 13 00 27.

**Noja.** Apartamentua errentan ematen da. Garajea eta igerilekua dauzka. 635 75 35 29.

**Noja.** Duplexa hondartzan. Aste Santua eta uda. 696 90 94 43.

**Peñiscolan** Aste Santurako apartamentu bat errentan ematen da. 4-5 pertsonarentzako. 945 29 33 80.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke. 609 38 86 47.

**Bergara.** Uztailean hartuko nuke etxebizitza bat errentan, astebetez, uztaileko bigarren edo hirugarren astean. Miren. 637 52 89 83.

**Debagoiena.** Bi neskak etxebizitza alokatu gura dute. Arrasaten bada, hobeto. Deitu telefono honetara: 616 05 97 92.

**Debagoiena.** Errentan hartzeko etxebizitza txikia behar dut. 650 11 15 28.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 667 08 39 89.

**Debagoiena.** Hiru logeladun etxebizitza hartuko genuke errentan. 650 11 15 28.

**Familia** batek etxebizitza errentan hartuko luke Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. 617 69 07 52.

**Familia** batek etxebizitza hartuko luke errentan Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. 617 69 07 52.

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. Telefonoa: 663 03 13 22.

**Oñati.** Bikoteak etxebizitza errentan hartuko luke. 616 60 13 28 edo 699 06 29 19.

**Oñati.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 603 03 13 22.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat falta zaigu. Etxe erosoa eta handia. Ekonomikoa. 615 72 33 44.

**Arrasate.** Gela bat errentan ematen da, unibertsitatetik gertu. Pertsona arduratsua izan dadila eskatzen da. Telefonoa. 616 32 90 12.

**Arrasate.** Uribe auzoan etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 685 73 67 54.

**Arrasate** Erdiguneko pisu batetan logela bat daukat alokairuan. 619 45 42 77.

**Debagoiena.** Bi neskak beste batzuekin etxebizitza osatu gura lukete. Arrasaten gurago dute. 636 05 36 18.

**Gasteiz.** Etxebizitza osatzeko beste neska bat behar da Gorbeia kalean. Oso handia. 300 euro. 652 72 18 87.

### 106. BESTELAKOAK

**Aretxabaleta.** Etxebizitza eraikitzeko baimena duen lokala salgai. Argitasun handia, leku lasaia eta ondo kokatua. Eremua 74 m2 eta altuera 3,35 m. Telefonoa: 699 86 14 32.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Uribarri etorbidean. 16.000 euro. Deitu telefono honetara: 625 47 61 62.

**Bergara.** Ibargarain garajea saltzen da. 7,50x2,70 metro. 20,25 m2. 24.000 euro. Deitu arratsaldeko seietatik aurrera. 678 43 31 07.

**Bergara.** Garaje itxia salgai, San Lorentzon. Deitu telefono honetara: 943 76 40 05.

**Bergara.** Garajea salgai Masterreka kalean. Deitu telefono honetara: 607 15 26 62.

**Elgetan.** 17 metro koadroko garajea salgai. 943 76 97 97.

**Eskoriatzan** 21 m2-ko garajea saltzen da. 652 83 10 42.

### 202. EROSI

**Oñati.** Garaje edo lokal bat erosiko nuke Bidebarrieta kalean. 610 01 00 63.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea errentan ematen da Uarkapen. 605 77 52 75.

**Arrasaten** Garaje itxia. Uarkapen. 680 77 64 05.

**Bergara.** Bolu auzoan. 6,70x3,30 neurrikoa (22 metro koadro). Eguerdian deitu. 685 71 18 44.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bulegoak alokagai Otalora 18an, Uarkapeko arkupeetan. 638 17 93 63.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Nagusiak zaintzeko emakumea gertu. Urte askotako esperientzia. 943 08 12 80.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. Telefonoa: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu atariak garbitzeko edo umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko. 5 urteko esperientziarekin. 663 61 74 38.

**Arrasate.** Emakumea esperientziarekin gertu umeak zaintzeko. 635 70 31 01.

**Arrasate.** Emakumea esperientziarekin jatetxeetan mahaiak zerbitzatzeko prest. Telefonoa: 635 70 31 01.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko nahiz tabernako garbiketak egiteko. Arratsaldeetan, orduka. Esperientziarekin. Telefonoa: 943 77 16 73.

**Arrasate.** Emakumea lanerako gertu. Garbiketan edo umeak zein adinekoak zaintzen. Telefonoa: 663 61 74 38.

**Arrasate.** Emakumeak lan egingo luke sukaldari laguntzaile, zaharrak edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen... Orduka. 637 21 97 04 edo 943 79 76 39.

**Arrasate.** Emakumeak lan egingo luke zaharrak edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen... Orduka. 697 93 73 32.

**Arrasate.** Mutil gaztea gertu obran, garbiketa lanetan edo nekazaritza lanetan lan egiteko. 663 61 74 38.

**Arrasate.** Mutila lanerako gertu. Garbiketa lanetan, obretan edo bestelako lanetan jardungo luke. 663 61 74 38.

**Arrasate.** Neska esperientziaduna gertu arratsaldeetan orduka lan egiteko. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo lituzke. Telefonoa: 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Emakume bat gertu umeak edo edadetuak zaintzeko nahiz garbitasun lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 619 92 40 86.

**Debagoiena.** Emakume gaztea lanerako gertu. Garbiketan edo umeak zein adinekoak zaintzen. Deitu telefono honetara: 646 75 08 07.

**Debagoiena.** Emakume gazteak lan egingo luke umeak edo pertsona nagusiak zaintzen, edo garbiketa lanak egiten. Etxe barruan bizitzeko gertu ere badago. 679 27 37 53.

**Debagoiena.** Emakume gazteak orduka lan egingo luke, edozein lan motatan. 677 05 99 99.

**Debagoiena.** Emakume gazteak orduka lan egingo luke, edozein motatako lanean. Telefonoa: 628 52 34 06.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lantegian edo ostalaritzan lan egiteko. 660 27 66 05.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Garbiketan edo umeak zein adinekoak zaintzen. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu etxeko lanak egiteko, umeak zein edadetuak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo beste edozein lanetarako. 663 46 93 60.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta haurrak edo adineko pertsonak zainduko nituzke orduka. 636 91 93 81.

**Debagoiena.** Mekanikako ofiziala lanerako gertu.Debagoienean lan egiteko. 667 08 39 89.

**Debagoiena.** Mutil bat eskaintzen da sukaldari edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lanetarako prest. Telefonoa: 609 98 02 52.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu gaixoak, umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita ere garbiketak egiteko. Laguntzaile titulua daukat. 606 64 22 84.

**Emakumea** pertsona nagusiak gauez zaintzeko prest. Telefonoa: 685 75 43 80.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Alemaneko** klase partikularrak jasoko nituzke. Maila:mittelstuffe. 665 77 51 28.

**Arrasate.** Batxilergoko 1. eta 2. mailetako eskola partikularrak hartzeko irakasle bat behar dut. 650 62 61 78.

### 502. EMAN

**Goi mailako ingeniari** industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autorako erremolkea** salgai. Frenoarekin. Oso egoera onean. Deitu telefono honetara: 657 77 97 52.

**Citroen C3** autoa. Berria. 40.000 km, 6.300 euro. Telefonoa: 688 60 58 63.

**Citroen Picasso** 1600 autoa. Garajean egon da. 30.000 km. Gasolinazkoa. 659 44 75 08.

**Citroen ZX** 1.4 i autoa. Bost ate, aire girotua, 76.000 km. Telefonoa: 659 44 87 08.

**Ford Transit** salgai. Telefonoa: 618 62 62 51.

**Golf 3 TDI** autoa prezio onean salgai. Deitu telefono honetara: 615 74 43 37.

**Golf** GTI III. Deitu telefono honetara: 943 76 64 71.

**Hagunak (llantak)** saltzen ditut: R19 16 v lehenengo modeloko 5 hagun. Peugeot 250 GTI modeloko 4 hagun. 658 72 11 49.

**Hyundai Accent.** 1.3 GLS 82 ZP. 1997koa. 65.000 km. Telefonoa: 619 45 42 87.

**Hyundai H1.** Zazpi plazako Hyundai H1 furgoneta salgai. Telefonoa: 669 70 84 19.

**Iveco Daily** furgoneta. 40.000 km. 659 44 75 08.

**KTM 450 EXC motorra** salgai daukat. 2004koa. 5.600 euro. 635 74 01 23.

**KTM** EXC 450 2004-koa saltzen dut. Deitu telefono honetara: 646 05 74 78.

**Land Rover** Discovery TDI salgai. 1997koa, 148.000 km, egoera onean. Deitu telefono honetara: 659 04 20 99.

**Mini One,** 2004/04, 23.000 km, kanpotik beltza, barrutik beltza eta gorria. Estrak ditu. Egoera ezin hobean. 11.000 euro. 685 72 51 58.

**Sean Leon** TDI. FR modeloa. 150 ZP. Urdina. Juan Luis. Telefonoa: 629 65 26 40.

**Volkswagen** Sharan 1.8 Turbo. Gasolinazkoa. 1999koa; 121.000 kilometro, ABS, aire-girogailua eta aire-poltsak. Oso egoera onean. 7.500 euro. Telefonoa: 645 73 97 69.

### 602. EROSI

**Renault Express** edo antzeko auto merke bat erosteko gertu nago. Deitu telefono honetara: 647 24 40 54.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Artzain** txakurra salgai. Hilabete du. 650 62 61 78.

### 703. EMAN

**Artzain txakurkumeak** oparitzen ditut. Telefonoa: 695 78 77 30 edo 943 78 35 69.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Aulki gurpilduna,** tolesgarria (besoak eta oinak jartzekoak kendu egin daitezke). Oso ongi dago (250 euro). Deitu telefono honetara: 625 70 11 38.

**Bi eskopeta** salgai dauzkat. Interesatusatuak deitu telefono honetara: 660 05 98 23.

**Ecotermi** markako hiru berogailu elektriko salgai. Kontsumo txikikoak: bi 600 wattekoak eta bestea 350 wattekoa. 200 euro hirurak. Deitu telefono honetara: 943 76 47 01.

**Jaurnartzerako** almirante jantzia. Neurria: 8. 150 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 943 77 16 73.

**Lursail** bat saltzen dut. Interesatuak deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

**Nagusientzako** taka-taka bat, dinamikoa eta tolesgarria, gurpilik gabea. Aluminiozkoa (60 euro). Interesatuak deitu telefono honetara: 625 70 11 38.

**Olympus SP-500** argazki kamera digitala. Sei megapixel, 10eko zoom optikoa. 260 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 667 94 52 12.

**Oñatin** Bigarren eskuko esteticista aparailuak saltzen dira. Telefonoa: 610 75 10 00.

**Umeendako eserleku** jasotzailea salgai. Automobilean jartzekoa. Babideal markakoa. 20 euro. 943 79 41 31.

### 806. GALDU

**Bizikletako poltsatxoa** galdu dut errepidean. Ganbera eta giltzak ditu barruan. Telefonoa: 606 65 85 86.

### 808. BESTELAKOAK

**Trontzan** aritzeko bikotekidea behar da. 610 36 39 94.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Debagoiena.** 40 urteko emakumea 45-55 urte bitarteko gizonezko bila dabil. Teresa. Telefonoa: 647 29 18 53.

## hildakoak

- **Anacleta San Jose Bastardo.** Arrasaten, martxoaren 20an. 90 urte.
- **Jose Maria Guridi Gonzalez.** Arrasaten, martxoaren 24an. 78 urte.
- **Cruz Villar Igartua.** Arrasaten, martxoaren 24an. 90 urte.
- **Modesta Azurmendi Uriarte.** Antzuolan, martxoaren 24an. 92 urte.
- **Santiaga Gavilan Pulido.** Oñatin, martxoaren 24an. 91 urte.
- **Peio Agirreurreta Sologaistoa.** Antzuolan, martxoaren 25ean. 46 urte.
- **Lazaro Elortza Barrena.** Antzuolan, martxoaren 25ean. 93 urte.
- **Justina Iribecampos Arantzabal.** Elgetan, martxoaren 26an. 89 urte.
- **Roman Zubia Arana.** Arrasaten, martxoaren 26an. 87 urte.
- **Bonifacio Iraegi Arantzabal.** Bergaran, martxoaren 27ean. 83 urte.
- **Amaia Aiastui Andueza.** Bergaran, martxoaren 27an. 39 urte.
- **Pedro Zafra Delgado.** Bergaran, martxoaren 28an. 70 urte.

ESKER ONA

## Amaia Ayastuy Andueza

Bergaran hil zen 2007ko martxoaren 27an, 39 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko martxoaren 30ean.

ESKELA

## Amaia Ayastuy Andueza

Bergaran hil zen 2007ko martxoaren 27an, 39 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.*



Koadrilako lagunak.
Bergaran, 2007ko martxoaren 30ean.

ESKER ONA

## Cruz Villar Igartua

Maria Teresa Antxia eta Isabel Gorosabelen alarguna

Gasteizcn hil zen 2007ko martxoaren 23an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko martxoaren 30ean.

II. URTEURRENA

## Jose Ramon San Migel Egiluz

*Beti gure bihotzean,
emazteak, seme-alabak eta bilobek.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Maria Aguirre Leturiondo

Jose Inazio Larrañagaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan,
apirilaren 1ean, 10:30ean, Bergarako
San Prudentzio elizan.
—
*Agur Maria gure ama eta amama
joan zara baina gure ondoan
jarraituko duzu.
Beti gure oroimenean eramango zaitugu.*



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Poloni Arriola Zugasti

2006ko martxoaren 13an hil zen.

## Francisco Arriola Zugasti

2006ko martxoaren 24an hil zen.



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 1ean,
11:30ean,
Mendiolako San Juan elizan



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Higinio Uzarraga Alberdi

Bittori Gallastegiren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 1ean,
12:30ean,
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jesus Maria Balanzategi

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 1ean,
12:30ean,
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera,
eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia:
egubakoitzeko eta astelehenekо GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



ESKER ONA

## Justina Iribecampos Arantzabal

Elgetan hil zen 2007ko martxoaren 26an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Elgetan, 2007ko martxoaren 30ean.

ESKER ONA

## Bonifacio Iraegi Aranzabal

Gasteizcn hil zen 2007ko martxoaren 27an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko martxoaren 30ean.

ESKER ONA

## Pedro Zafra Delgado

Arrasaten hil zen 2007ko martxoaren 28an, 70urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko martxoaren 30ean.

Babeslea:
OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak
*Momentu txar horietan sortzen diren
galdera, kezka eta arazo guztiei
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*
Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Akura / Emakume izena
Denbora / Bizkaieraz, atera
Jakin / Harrapa ezak!
* Irudiko animalia / Oheratu
Lazoa / Hurbildu
Gauza, gai / Detekta-gailu
Kontso-nantea / Arto irinez-ko opila
Ez geza / Iruñeko ibaia
Kanpo, landa / I. nazio-artekoa
Sexu eme / Bat gehi bat
Europako ibai handia / Presio unitate
Potasioa
Guraso arrak

GOIENKARIA

## umore giroan



Kike Amonarriz

**POLIZIA-ETXEAN**

Morroi hau herri ezagun bateko Ertzaintzaren polizia-etxera sartu da, lapurreta salaketa jartzeko asmoz.

Harrera gelara sartu da eta inor ez.Inor ez dela agertzen ikusi ondoren, urduri jartzen hasi da.

Halako batean, begira ari dela, paretatik zintzilik alarma jotzeko botoia ikusi du. Sakatu edo ez sakatu zalantzan dago, baina azkenean jotzea erabaki du.

Handik bi minutura, polizia-etxeko ate nagusia zabaldu eta nor azaldu da?:

- Pareko tabernako zerbitzaria, erretiluan sei garagardo dituela!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | | | 5 | | 9 | | | 2 |
| 9 | | | 7 | | 2 | | | 3 |
| | | | | 4 | | | | |
| | | 5 | | 1 | | 9 | | |
| | | 8 | | | | 6 | | |
| | | 1 | | 2 | | 7 | | |
| | | | | 3 | | | | |
| 3 | | | 8 | | 4 | | | 1 |
| 8 | | | 1 | | 5 | | | 7 |

## hieroglifoa

Nola etorri zarete?

**DDZDD**

## hizki salda

Basoko 5 animali

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | N | E | I | H | G | I | J | Z |
| U | U | B | A | S | H | K | O | L |
| T | E | A | I | M | A | T | R | U |
| A | R | U | E | R | S | O | I | G |
| K | A | T | Z | O | K | E | N | O |
| A | S | A | A | B | I | B | D | E |
| S | N | S | A | E | I | I | O | I |
| A | I | B | R | E | T | O | T | N |
| B | T | B | A | I | R | E | Z | A |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | A | | A | | E |
| | | | A | L | A | I | T | Z |
| | | | | O | T | S | O | A |
| | S | | E | K | A | I | | G |
| B | E | R | T | A | R | A | T | U |
| | G | A | Z | I | A | | A | T |
| S | A | D | A | R | | A | L | U |
| | D | A | N | U | B | I | O | |
| B | A | R | | A | I | T | A | K |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 1 | 3 | 5 | 8 | 9 | 4 | 7 | 2 |
| 9 | 8 | 4 | 7 | 6 | 2 | 1 | 5 | 3 |
| 5 | 7 | 2 | 3 | 4 | 1 | 8 | 9 | 6 |
| 7 | 6 | 5 | 4 | 1 | 3 | 9 | 2 | 8 |
| 2 | 3 | 8 | 9 | 5 | 7 | 6 | 1 | 4 |
| 4 | 9 | 1 | 6 | 2 | 8 | 7 | 3 | 5 |
| 1 | 4 | 7 | 2 | 3 | 6 | 5 | 8 | 9 |
| 3 | 5 | 9 | 8 | 7 | 4 | 2 | 6 | 1 |
| 8 | 2 | 6 | 1 | 9 | 5 | 3 | 4 | 7 |

**Jeroglifikoa:** bidez - bide

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | N | E | I | H | G | I | J | Z |
| U | U | B | A | S | H | K | O | L |
| T | E | A | I | M | A | T | R | U |
| A | R | U | E | R | S | O | I | G |
| K | A | T | Z | O | K | E | N | O |
| A | S | A | A | B | I | B | D | E |
| S | N | S | A | E | I | I | O | I |
| A | I | B | R | E | T | O | T | N |
| B | T | B | A | I | R | E | Z | A |

## bono fotoa



**Egunotan elurra egin du eta Arrasateko kaleak elurtuta ageri dira. Nola du izena argazkiko pilota lekuak?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ........................................

IZEN-DEITURAK ........................................
TELEFONOA ........................................

Ekarri txartela EGUAZTEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Saski zainzuriak (motzak)**
185 g-ko potea

**1 €** 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Arrasateko **FELIX UGARTE**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Deskarga erreka.**

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)**
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

## DIETISTAK
**ALBERDI MIREIA**
Bergara /Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58
**RAQUEL PEREIRA GALDOS (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

## ENTZUMEN ZENTROAK
**GAES**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
**ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON**
Arrasate/ Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64
**IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31
**IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA**
Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90
**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
943 77 01 33 / 943 77 16 77
**ARANTZABAL SAIOA**
Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**CASANELLAS JABIER**
Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68
**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95
**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77
**PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA**
Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

**Aitor Biain** > Musikazalea

# "Ahotsa zaintzeko gutxieneko neurriak hartzen ditut: ez erre, ur asko edan..."

Aitor Biain oñatiarra musika munduan ezagutu izan dugu beti; izan ere, Oñatiko Udal Musika Bandan klarinetea jotzeaz gain, Ganbara abesbatzako kidea eta sei abesbatza ezberdinetako zuzendaria ere bada, tartean Bergarako Orfeoikoa. Ezin ukatu musika duela zaletasun nagusia oñatiarrak. Gainera, Ingeniaritza informatikoko ikasketak amaitzen ari da Biain Arrasaten.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Bandak eta koroko entseguek uzten dioten tartea aprobetxatu dugu Aitor Biain musikazale oñatiarrarekin egoteko. Azken egunotan, Oñatiko Ganbara Txikik Kataluniara egingo duen bidaiarekin buru belarri dabil Biain.**

**Etxean, arreba eta biok musikariak zarete; familiatik datorkizue zaletasuna?**

Egia esan, musika zaletasuna ez datorkigu familiatik, nahiz eta nire amonak beti esaten duen bere aita oso abeslari ona zela, eta, bakarlari gisa, asko abesten zuela. Baina familiako inor ez da musikaria.

Ni zazpi urterekin hasi nintzen musika ikasten, etxekoek animatuta; nire lagun guztiek kirolen bat egiten zuten, baina niri, ez zitzaidan bat bera ere gustatzen. Nire lehen instrumentua klarinetea izan zen. Ordutik, saxofoia, pianoa, kantua… hainbat gauza ikasi ditut.

**Horrenbeste instrumenturekin, inoiz jaso duzue bizilagunen kexarik?**

Oraingoz kexarik ez dugu jaso, baina, nire amari askotan esaten diote egun osoa abesten egoten naizela… agian, norbait gogaituko dut, auskalo!

**Klarineteaz gain, ze beste instrumentu jotzen duzu?**

Ikasi, klarinetea, saxofoia eta piano ikasi ditut; gero, kantua ere ikasi dut. Orain oso zentratua nago mundu koralean eta abestea da gustukoen dudana. Hala ere, biolontxeloa ikasteko gogo handia izan dut beti, harizko instrumentuak asko gustatzen zaizkit-eta.

**Ganbara abesbatzako kidea zara eta gainera, hainbat koraletako zuzendaria. Zer da zailagoa abestea edo zuzentzea?**

Bi gauza oso desberdin dira; abestea errazagoa da. Abesten dudanean, helburua disfrutatzea izaten da; erlaxatzeko eta ondo pasatzeko oso ondo dago abestea. Zuzendari zarenean, aldiz, oso zentratua egon behar zara zure lanean. Taldean motibazioa sortu, giro ona, lan dinamika, emaitza onak, kontzertuak… guzti hori zuzendari baten lana da, eta hori aurrera eramatea uste baino lan zailagoa da.

Hala ere, esan beharra daukat, asko gustatzen zaidala zuzendari lanetan ibiltzea; bai umeekin eta baita nagusiekin ere. Lan bezala oso aberasgarria da eta asko ikasten dut.









ARANTZAZU EZKIBEL

**Ahotsa zaintzeko zerbait berezia egiten duzu?**

Bai, zaintzen dut, ez naiz obsesionatu bat, baina gutxieneko neurri batzuk hartzen ditut: ur asko edan, ez erre, parrandetan ez dut berba asko egiteko ohitura eta ez dut, normalean, taberna batean deiadarka abesten. Nire eguneroko tresna da ahotsa eta zaindu beharra daukat.

Bestalde, onartu beharra daukat, ahotsa oso nekatuta daukadanean, arrautza gordina jaten dudala. Niri on egiten dit, nahiz eta jakin, arrautza gordina jatea komenigarria ez dela.

**Oñatiko Bandak, batik bat, jaiegunetan egingo ditu kontzertuak. Ez al da gogorra parranda ostean klarinetea jotzea?**

Eguneroko martxara ohitua nago eta dagoeneko ez zait gogorra egiten. Gorputza ohitu egiten da ordu horietan jaikitzera; hala ere, onartu beharra daukat asko kostatzen zaidala esnatzea.

Ordutegien aldetik ezin gara kexatu; kalejira goizeko 11etan izaten da, eta, lehen, 10ak aldera izaten zen… 11etan askoz hobe!

**Gaztetxoen hainbat abesbatza zuzentzen dituzu. Umeekin lan egitea gustatzen zaizu?**

Dagoneko lau urte daramat umeekin lanean eta oso momentu politak igaro ditut. Orain, 4 eta 18 urte bitarteko bost ume koru ezberdin ditut. Laster, Ganbara Txikiko umeekin Bartzelonara joango gara kontzertu batzuk eskaintzera; han, Bartzelona eta Port Aventura bisitatzeko aukera ere izango dugu. Egia esan, izugarrizko gogoa dut hara joateko.

**Inoiz aurkeztuko zinateke OT bezalako programa batera?**

Ni ez nintzateke OTra aurkeztuko, ez baita nire musika perfila. Hala ere, horrelako programen alde nago, baina, pixka bat arriskutsuak direla iruditzen zaizkit; fama erraz lortzen da baina galdu ere, azkar egin daiteke.

**Musika da zure zaletasuna, baina, gainera, ikasi ere egiten duzu. Zenbat ordu ditu zure egunak?**

Ez da hori galdetzen didaten lehen aldia! Nire egunak 24 ordu dauzka, baina mutil antolatua naiz, eta, oraingoz, denera iristen naiz.

### PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Musika eta Ingeniaritza informatikoa. **Zaletasunak?** Musika entzutea, bidaiatzea eta irakurtzea. **Zer gorrotatzen duzu ?** Azterketak, ez ditut batere gogoko! **Ze filmetako protagonistarekin identifikatzen zara?** Ez naiz identifikatzen protagonistekin, baina *La vida es bella* asko gustatu zitzaidan. **Inoiz ahaztuko ez duzun kontzertua?** Asko, ezingo nuke bat aukeratu. **Musikari bat?** Talde komertzialen artean, Mana. **Amets bat?** Euskal Herrian bakea izatea.




**AURREKARIA** Euskal Party-ren anai txikia da Gipuzkoa Encounter. GOIENKARIA

**INFORMATIKA** > PROFESIONALEN ETA ZALEEN BATZARRA APIRILEAN

# Gipuzkoa Encounterrean izena emateko modua dute informatikazaleek

Gipuzkoako informatikazaleek eta profesionalek batzartzeko eta ezagutzak elkarbanatzeko aukera dute apirilaren 13tik 15era bitartean

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Gipuzkoako informatikako profesionalek eta zaleek encounterra –arlo horretako adituek egiten duten batzarra– egingo dute apirilaren 13tik 15era bitartean, aste bukaeran. Tolosan izango da, Usabal kiroldegian, eta izena emateko aukera zabalik dago encounterraren webgune ofizialean: *www.gipuzkoaencounter.org/eu* da helbidea. Hor, izena emateaz gain, denetariko informazioa lortzeko aukera dago. 400 ordenagailu-toki ipiniko dituzte, beraz, komeni da lehenbailehen izena ematea.

Tolosako Udalak antolatzen du ekintza hori, Euskalamiga elkartearekin batera. Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskaltel, Kutxa eta SPRI encounterraren laguntzaileak dira.

**ARTEA, LEHIAKETAK...**

Informatikazaleendako ekintza asko antolatu dituzte: besteak beste, arte digital emanaldiak –3D animazioak, 3D eta 2D irudiak, *wild*-a, musika…–, hardwarea –ordenagailuen *modding* estetikoa eta teknikoa–, software libre erakustaldiak…

Joko lehiaketak ere antolatu dituzte; ofizialak dira eta beste lehiaketa batzuetarako sailkatzeko balio izango dute. Besteak beste, Counter Strike, Quake III Arena, Need for Speed Most Wanted, Warcraft III, Pro Evolution Soccer 6, Wii Sports… jokoetan lehiatzeko aukera izango da. Lehiaketa ez ofizialak ere antolatu nahi dituzte, baina, horretarako, parte-hartzaileen proposamenak jaso nahi dituzte; hori ere webgunean egin daiteke.

**HAINBAT EGUNETAKOA**

Encounterrek asmakizun berria diruditen arren, luzaroan egin izan dituzte informatikazaleek; lehenago, Euskal Herri osokoak zirenean, adibidez, Euskal Party, Euskal Amiga Party edo Euskal deitzen zitzaien. Hasi, Europako iparraldeko herrietan hasi ziren egiten. Hainbat egunetan zehar, informatikarekin zerikusia duten ekintzak egiten dira eta baita ezagutzak konpartitu ere.

## teknologia berriak

> ESKUKO TELEFONIA

### W580i, teklatu lerrakorra duen Sony Ericsson etxearen Walkman mugikorraren azken modeloa

W580 mugikorrak 470 abesti eAAC+ moduan gorde ditzake. 262.000 kolore eta bi hazbeteko pantaila, bi megapixeletako kamera RDS duen FM irratia, Bluetooth 2.0 A2DP, USB eta 12MBtako barne memoria.

Bateriaren autonomiak 9 ordu solasean, 20 ordu musika entzuten eta 370 itxaron egoeran irauten du.

94 gramoko pisua du eta bere dimentsioak honako hauek dira: 99 x 47 x 14 mm.

Sakelakoa urteko hirugarren hiruhilekotik aurrera eskuragarri egongo da zuri eta gris koloreetan.




Eskukoarekin batera 512MBtako txartela, USB kablea eta aurikularrak datoz.

> USB GAILUAK

### Linksys Wireless-G USB Adapter, Wi-Fi USB txartela haririk gabeko sare bilatzailearekin

Linksys Wireless-G USB Adapter, USB bidezko Wi-Fi egokitzailea barneratuta duen gailua da. Pantailan sarerik hurbil dagoen, bere izena, potentzia eta babestuta dagoen ikus daiteke.

Aparailu honekin ordenagailu eramangarria piztu gabe Wi-Fi sareak eskaneatu ditzakezu eta zabalik dagoen bat aurkitu ezkero zure ordenagailura konektatu besterik ez duzu egin behar.

Salneurria: 79 euro.




Pantailan haririk gabeko sareen informazioa ematen du.

> GRABAGAILUAK

### PC eta Mac sistemekin bateragarria den definizio handiko disko Blu-ray grabagailua

LaCieren grabagailua Blu-ray teknologia berriarekin bateragarria da. Datu digital kopuru handia gorde ditzake iraupen handiko BD euskarrian.

Bd (Blu-ray), DVD eta CDekin bateragarria da. 15.000 abesti MP3 formatuan, kalitatezko 50.000 argazki, Internetrako formatua duten 160 orduko bideoak edo lau ordu bereizmen handian. Eta dena, 50 GBtako disko baten. FireWire edo USB bidez konekta daiteke PC edo Mac batera.

Salneurria: 1.159 euro.



Gure datuetako segurtasun kopiak disko bakar baten gordetzeko grabagailua.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gurea
/guztizeder
/hamaika
/itxaseder
/irudisport
/jracing
/joseba
/korozabaleta
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/otzeta
/pando
/richimaier
/tabernaberri
/udalaitz
/urdeki
/urbieta
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.uxarte.net

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten



## berriak

> GOITB

### Jone Pagoaga eta Aratz Mendizabal 'Didjeridu' saioan

Datorren ostegunean, 22:15ean, gazteak ardatz dituen *Didjeridu* saioa izango dugu ikusgai. Jone Pagoaga ehiztaria eta Aratz Mendizabal pilotaria elkarrizketatuko dituzte. Horretaz gain, Gaztelupeko Hotsen eskutik disko bat eskuratzeko aukera izango da eta Maider Arregi k, teknologia berrien sekretuak azalduko dizkigu.

> PROGRAMAZIOA

### Txirrindularitzaren inguruko mahainguruaren jarraipena GOITBn

Txirrindularitzaren inguruko mahainguruak jarraipen zabala izango du GOITBn eguaztenean, 21:15ean. Txantxiku Ikastolaren 40. urteurrena dela eta txirrindularitzaren inguruko mahai ingurua antolatu dute. Bertan, hizlari bezala, txirrindularitzaren munduko zenbait lagun arituko dira: Jon Odriozola, Iban Velasco, Iban Iriondo, Unai Etxebaria, Marino Lejarreta, eta Arantzazu Azpiroz, besteak beste.

>ARRASATE IRRATIA

### Haur etorkinekin egiten den lana berbagai asteburuan

Aste honetako erakundeen geltokiko hitzordua, Udal Euskaltegian egin dugu; Idoia Hermosarekin izan gara. Haur etorkinekin ibarrean egiten duten lanaren berri eman digu Hermosak. *Asteko gainbegiratua* saioan berreskuratuko dugu elkarrizketa.

Horrez gain, Bergarako Jabier Gartziak (Mister Bizkaia eta Mister Españarako hautagaiak) kontatutakoak ere batuko ditugu.

> ARRASATE IRRATIA

### Datorren eguenean jai hartuko du, 107.7ko autobusak

Astelehenetik eguaztena bitartean ibiliko da 107.7ko autobusa uhinetan barrena; eguenean berriz, oporrak hartuko ditu apirilaren 15era bitartean.

Datorren asteko ibilbideak ere bete-beteta izango ditugu. Astelehenean, besteak beste, Korrika 15 bukatu berri, Txinaraino helduko da uhinetako autobusa: Jokin Lazpiur arrasatearrak Shangay-ko Korrikaren berri emango digu.

**'ILUNPEAN'** > EGUENA, 22:15

# Miren Azkarate da gaurko gonbidatua 'Ilunpean' saioan

Gaur gauean, Miren Azkarate hobeto ezagutzeko aukera izango da, Oihana Elortzaren eskutik


**MIREN AZKARATE** Kultura sailburua da donostiarra. GOIENKARIA

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Kultura sailburua eta Gobernuko bozeramailea izanagatik ezaguna bada ere, Miren Azkarate pertsonalki hobeto ezagutzeko aukera izango dugu *Ilunpean* saioan. Gaur, gaueko 22:15ean Miren Azkaratek bere bizimoduaz egingo du berba Oihana Elortza kazetariarekin.

Orain politika munduan ari da lanean baina lehenago soldata irakasle bezala irabazten zuen Azkaratek eta etorkizunean irakaskuntzara itzultzeko asmoa duela esan du. Esan bezala, bere ibilbidea gertutik ezagutzeko aukera duzue gaur.

**INTERNET** > GERTUKO INFORMAZIOA SAREAN

# Debagoieneko informazioa 'goiena.net' atarian ere eskuragarri duzue

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Ibarrean gertatzen diren albisteak jasotzen ditu GOITBko albistegiak. Egunero laurden gutxi oro eguneko informazioa emango da gaurkoetan. Ondoren, informazio hau zabalago sakontzen da gure albistegietako bi edizioetan; bata arratsaldeko lehenengo orduan, 14:45ean, Goiatz Aranak aurkeztua, eta bestea berriz, iluntzean 19:45ean, Larraitz Zeberioren eskutik. Asteburuan, bai zapatu eta baita domekan ere, aste osoko albisteen laburpena jarraitzeko aukera dago. Hori guztia GOITBk Interneten duen web orrialdean jasotzen da. *Goiena.net* atarian, *Gaurkoak* ikusi ahal izango dituzue 14:00etatik aurrera eta iluntzean berriz, Larraitz Zeberiok aurkezturiko albistegia. Web orrialde horretan idatziriko albisteak ere aurkituko dituzue, etengabe gure bailaran gertatuak bildu eta agertzen baititugu bertan.

Beraz, telebistan ez ezik Interneten ere Debagoieneko informazioa eskuragarri egongo da. Goiena.net atarira jo besterik ez duzue horretarako.

## telebegi

**Edu Mendibil** > www.goiena.net/blogak/edu

### Etxeko esataria

Naranjito jaio orduko bazebilen futbolean: ordutik, Azteca estadioa, Italia 90, Bartzelona 92, Europako finalak, 240 partidu selekzioarekin, hamaika gol eta *uy!*, ehunka elkarrizketa, pozak eta atsekabeak, 1.500 partidutik gora... Ez dira Maldini edo Zubizarretaren markak ez, Jose Angel De la Casa esatariarenak baizik.

TVEko enplegu erregulazioaren erruz erretiroa hartu behar izan du, goizegi agian, beste profesional on askorekin gertatzen ari den moduan. Herenegun, Islandia eta Espainiaren arteko partiduaren ostean, Julieta Venegasen *Me voy* kantua jarri zioten eta Julen Guerrerok *"Muchas gracias"* soil batez agurtu zuen (baloiarekin mikrofonoarekin baino grazia handiagoa zuen mutilak, dedio!). Islandiarren izaeraren eta Mallorcako kazkabarraren pareko agur hotza izan zen.

Matias Prats (senior) Maracanatik kantatu zuen Zarraren golagatik gogoratzen dugu. De la Casaren kasuan, Maltaren aurkako partidu hartan atera zuen txilioarekin geratzen naiz. *Marca* eta Manolo El del Bombo bezain jarraitzaile zintzoa, mundiala irabazi barik badoa etxera. Bukatu da partidua. *Salut!*

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Jabier Gartzia, Mister Bizkaia; Elkarteen geltokian, Goikobalu abesbatza; Zinearen geltokian, debagoieneko kartelera eta hiriburuetako estreinaldien berri, Amaia Labaienen eskutik; Erakundeen geltokian, haur etorkinendako euskara errefortzu programaren gainean, Idoia Hermosarekin; Meteorologiaren geltokian, Pello Zabalarekin udaberria berbagai..

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik eguaztenera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
**12:05** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

**Apirilaren 5etik-15era**
**10:00:** Elkarrizketa bildumak
(Artxiboko elkarrizketekin osatutako bildumak)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 30**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musikantoi. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Iragana gogoratuz. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu. **16:15**Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Antzerkia. **18:15**Bertsoak. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Hitz bitan. **22:15**Ilunpean-Miren Azkarate. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Jazmina. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 31**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra, Calimero eta Trikitraka trikitron-antzerkia. **11:00** Ikusmira. **11:30**Jazmina. **12:00** Astekoak. **12:15**Bizitegia. **12:30** Erreportaia **13:00** Eltze beroa **13:30** Bertso saioa. **14:00**Ur eta lur. **14:30** Musikantoi. **15:00** Korrika 07. **15:30**Berrbaire. .**16:00** Didjeridu. **16:30** IIlunpean. **17:00** Marrazki bizidunak-Antzerkia. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**Hitz bitan. **20:30**Erreportajea. **21:00**Berbaire. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean. **23:00**Didjeridu. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 1**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Fernando Amezketarra eta Trikitraka trikitron-Antzerkia. **11:00**Hitz bitan. **11:30**Musikantoi. .**12:00**Ur eta lur. **12:30**KT.**13:00**Gatza ta berakatza. **13:15**Klip@. **13:30**Erreportajea. **14:00**Didjeridu. **14:30**Ilunpean. **15:00** Ikusmira.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Antzerkia. **18:30**Hitz bitan. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea.**21:00** Bertso saioa. **22:00** Berbaire. **23:00** korrika 07.**23:30**Ilunpean-.**00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 2**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Teknopolis. **14:15**hitz bitan. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** MKT.**16:00**gatza ta berakatza.**16:15**Jazmina. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ur eta Lur. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Musikantoi. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea **22:15**Telesaila. **22:45**Berriak. **23:15**Didjeridu. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ikusmira. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena,3**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Harmaillatik. **14:15**Erreportajea.**14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak**16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Fernando Amezketarra. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean .**18:15**Gatza ta berakatza. **18:30** MKT. **18:45**Albisteak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra **20:45** Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea **22:15**Harmaillatik. **22:45**Berriak. **23:15**Hitz bitan. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena,4**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ur eta lur **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Harmaillatik. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Musikantoi. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Mahai ingurua. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Mahai ingurua. **22:15**Telesaila. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ur eta lur. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena,5**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra, Calimero eta Trikitraka trikitron-antzerkia. **11:30** Ikusmira. **12:00** Bertsoak. **12:30** Klip **13:00** Gatza ta berakatza **13:15** Marrazki bizidunak. **13:45**Antzerkia. **14:15** Bertsoak. **14:45** Eltze beroa:langostinoak. **15:30**Lorez lore. .**15:45** Telesaila. **16:15** Ikusmiran. **16:45** Marrazki bizidunak-Antzerkia. **18:45** Teknopolis. **19:15**MKT. **19:30**Gatza ta berakatza. **19:45**Eltze beroa. **20:15**Marrazki bizidunak. **20:45**Antzerkia. **21:15**Berbaire. **21:45**Musikantoi. **22:15**Didjeridu. **22:45**Klip@. **23:15**Erreportajea. **23:45**Ilunpean. **00:00** Emisio amaierar**20:30**Erreportajea. **21:00**Berbaire. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean. **23:00**Didjeridu. **23:30**Musikantoi. **00:00**erreportajea:Sahara**00:30** Emisio amaiera.

# Debagoieneko
# WEBGUNEAK




**AHOLKULARITZAK**
**ASEGI**
www.asegim.com
**ESTRADOS**
www.consultoriaestrados.com

**AKADEMIAK**
**BASTIDA**
www.bastida.es

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK**
**BZ SISTEMAS**
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
**MARRUBI**
www.marrubi.com

**ANTZINAKO ALTZARIAK**
**ZUMADIA**
www.zumadia.com

**ARETOAK**
**360 ARETOA**
www.360aretoa.com

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK**
**MARIA JESUS**
www.mjargazki.com

**AROZTEGIAK**
**ARREGI**
www.goiena.net/blogak/arregi
**AZKARATE**
www.goiena.net/blogak/azkarate

**ARRANDEGIAK**
**ITSAS EDER**
www.goiena.net/blogak/itxaseder

**ASEGURUAK**
**BRIZ ASEGURUAK**
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
**LAGUN ARO**
www.seguroslagunaro.com
**WINTERTHUR**
www.axawinterthur.es

**AUTO – KONTZESIONARIOAK**
**4QUATTRO4**
www.4quattro4.com

**BIDAIA AGENTZIAK**
**BARCELO**
www.barceloviajes.com

**BITXITEGI TAILERRA**
**OSKAR VITORIA**
www.goiena.net/blogak/vitoria

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**
**ARETXARGI**
www.goiena.net/blogak/aretxargi

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK**
**SETALDE**
www.setalde.com

**ELKARTEAK**
**EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL FEDERAZIOA**
www.goiena.net/blogak/ehmff

**ERAIKUNTZAK**
**CONSTRULAN**
www.construlansl.com

**ERROTULOAK**
**PANDO**
www.goiena.net/blogak/pando
**ROTUDENAK**
www.rotudenak.com

**ESTETIKA ZENTROAK**
**ANGELA**
www.angelaestetika.net
**GUZTIZ EDER**
www.goiena.net/blogak/guztizeder
**LILURA**
www.goiena.net/blogak/lilura
**MAIER**
www.goiena.net/blogak/richimaier

**FISIOTERAPIA ZENTROA**
**EKIN**
www.goiena.net/blogak/ekin

**GARAJEAK / KONPONKETA**
**AUTOS ARETXA**
www.autosaretxa.com
**AUTOS RIBELOGA**
www.autos-ribeloga.com
**GALLASTEGI MOTOR SPORT**
www.goiena.net/blogak/gallastegi
**JC RACING**
www.goiena.net/blogak/jcracing

**GARBIKETAK**
**HEMEN**
www.hemen-garbiketak.com

**GIMNASIOAK**
**IRUDI SPORT**
www.goiena.net/blogak/irudisport
**ZAINDUZ**
www.goiena.net/blogak/zainduz

**GOZOGINTZA EKOLOGIKOA ETA INTEGRALA**
**GALGORRI**
www.goiena.net/blogak/galgorri

**HARATEGIA**
**LANDALUZE**
www.goiena.net/blogak/galgorri

**HAUR PARKEAK**
**OKIPARK S.L**
www.goiena.net/blogak/okipark

**HESTEBETEAK**
**URDEKI**
www.goiena.net/blogak/urdeki

**HIZKUNTZA AKADEMIAK**
**MONDRAGON LINGUA**
www.mondragonlingua.com

**HOTELAK**
**HOTEL MONDRAGON**
www.hotelmondragon.com

**IKASTETXEAK**
**ARETXABALETA INSTITUTUA**
www.iaretxabaleta.com
**ARIZMENDI IKASTOLA**
www.arizmendi.ikastola.net
**ELKAR-HEZI IKASTETXEA**
www.elkarhezi.com
**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**
www.mondragon.edu

**ILE-APAINDEGIAK**
**RICHI**
www.goiena.net/blogak/richimaier

**INDUSTRIA HORNIDURAK**
**SUMINISTROS UGARTE**
www.suministrosugarte.com

**INFORMATIKA**
**DCA COMPANY**
www.dcacompany.com

**INGENIARI GEOLOGIKOA**
**HARRILUR**
www.harrilur.com

**INMOBILIARIAK**
**ANBOTO**
www.inmoarrasate.com
**ARRIETA & SAN MIGUEL**
www.arrietasanmiguel.com
**KOROSTI**
www.inmokorosti.com
**UDALATX**
www.udalatx.com

**JANARIAK**
**GERTU**
www.goiena.net/blogak/gertu

**JANTZI DENDAK**
**MARKIEGI**
www.goiena.net/blogak/markiegi
**UDALAITZ**
www.goiena.net/blogak/udalaitz

**JATETXEAK**
**BASTER ALDE**
www.baster-aldejatetxea.com
**DRAGON ORIENTAL**
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
**DUKIENA**
www.goiena.net/blogak/dukiena
**MAULANDA MERENDERUE**
www.goiena.net/blogak/maulanda
**OTZETA**
www.goiena.net/blogak/otzeta
**TABERNA BERRI**
www.goiena.net/blogak/tabernaberri

**KALAMUA**
**KLOROFILA**
www.klorofila.com

**KIROL DENDAK**
**LAINO. SKATE & SNOW**
www.laino.info/

**KONGRESU ETA BILKURAK**
**GANDIAGA TOPAGUNEA**
www.gandiagat opagunea.com

**LANDETXEAK**
**ARTEAGA**
www.arteagalandetxea.com
**ATERBE**
www.aterbe.com
**UXARTE**
www.uxarte.net

**LANTEGI ETA TAILERRAK**
**BATUAK S.A.**
www.batuak.com
**LINEAS LASA**
www.lasa.es
**PERFIPAR**
www.goiena.net/blogak/perfipar
**TALLERES CARPINSA S.L.**
www.carpinsa.com

**LEIHOAK**
**ARGI-PLASTIK**
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
**EGO**
www.goiena.net/blogak/ego

**LORADENDAK**
**EKILORE**
www.goiena.net/blogak/ekilore
**MAYTE LORADENDA**
www.goiena.net/blogak/mayte

**OINETAKOAK**
**KORO ZABALETA**
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

**OKINDEGIAK**
**AIASTUI**
www.goiena.net/blogak/aiastui
**OGIZUN**
www.goiena.net/blogak/ogizun

**OPARIAK**
**MERKEOPARI**
www.goiena.net/blogak/merkeopari

**OPTIKAK**
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
www.goiena.net/blogak/multiopticas

**OSTALARITZA**
**GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**
www.goiena.net/blogak/garaia
**ANTONIO BENITO**
http://www.antoniobenito.net

**PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA**
**FORMAK**
www.formak.net
**IPAR PROJECT**
www.iparproject.com

**PUBLIZITATE AGENTZIAK**
**ADOX**
www.adoxnet.com
**AKORT-PUBLICIDAD**
www.akort-publicidad.com

**SUKALDERAKO ALTZARIAK**
**BASTIDA**
www.goiena.net/blogak/bastida

**TABERNAK**
**EZKUTU**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**ORLY**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**GUREA**
www.goiena.net/blogak/gurea
**HAMAIKA... TABERNA**
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
**ZIRIPOT**
www.goiena.net/blogak/ziripot

**TATUAJEAK**
**GANESHA**
www.goiena.net/blogak/ganesha

**TAXIAK**
**GORKA GARAI**
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

**UDAL ZERBITZUAK**
**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**
www.aizue.com
**ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA**
www.goiena.net/blogak/aebpn

**UMEENDAKO ARROPA**
**HAURTXOA**
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

**ZERAMIKAK ETA BAINUAK**
**URBIETA**
www.goiena.net/blogak/urbieta
**GELATZU**
www.gelatzu.com

**ZERBITZU DIGITALAK**
**ATAI**
www.goiena.net/blogak/atai

**ZUR LANTZAILEAK**
**ELEJALDE**
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Martxoak 30 Apirilak 4

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



OÑATI ETA BERGARA

**> Abesbatza gazteenek Udaberriko kontzertuak egingo dituzte**

Oñatiko Ganbara Txiki, Txikitxu eta Tailerrak egingo dute emanaldia. Domekan, izango da, 19:00etan, Santa Anan. Bergaran, berriz, Orfeoi Txikiak eta Gabero Abesbatzak egingo dute saioa, etzi, domeka, 19:00etan, Mariaren lagundian.

## Musika



ARRASATE

**> Silver Fist taldeak kontzertua egingo du bihar, 3.60 aretoan**

Estatuan barrena egiten dihardueN biraren barruan geldialdia egingo du Silver Fist taldeak Arrasaten. *Lagrimas de sangre* azkeneko lana –2006ko azaroan kaleratu zuten– aurkeztuko dute bihar, zapatua, 23:00etatik aurrera, 3.60 aretoan.

## Erakusketa



OÑATI

**> Luis Duran komikigilearen lanak ikusgai Gaztelekuan eta kultura etxean**

Komikigile oñatiarrak lanen originalak jarri ditu ikusgai Gaztelekuko kuboan –astelehenetik domekara, 18:30.20:00– eta kultura etxean –astelehenetik domekara, 18:30-20:30–. Apirilaren 4ra arte egongo dira ikusgai.

## Antzerkia

ESKORIATZA

**> Helduendako ipuin kontaketa saioa gaur, egubakoitza**

Elena Castillo Tenerifeko ipuin kontalariak egingo du emanaldia. Helduendako saioa da, eta doan.

22:30ean, unibertsitateko areto nagusian.

ARETXABALETA

**> Panpinez Blai taldeak txotxongilo emanaldia egingo du**

*Erreka Mari* delako emanaldia egingo du txotxongilo taldeak. Haurrendako liburuen nazioarteko eguna ospatzeko antolatu dute saioa.

Apirilaren 2an, astelehena, 18:00etan, Udal liburutegian.

ARETXABALETA

**> Eriz magoak emanaldia egingo du martitzenean**

Algara ludotekak Aste Santuko oporraldiaren aurretik antolatuko duen azkeneko ekitaldia izango da magoak egingo duen emanaldia.

Apirilaren 3an, martitzena, 17:30ean, Kurtzebarri eskolan.

## Musika

OÑATI

**> Poesia eta musika emanaldia gaur, egubakoitza**

Andoni Salamero eta haren taldeak egingo dute poesia eta musika saioa.

19:00etan, kultura etxeko zinema aretoan.

ARRASATE

**> Conductus Ensemble taldearen emanaldia gaur**

Udaberriko III. Musikaldiaren barruan egingo dute emanaldia.

20:00etan, parrokian.

BERGARA

**> Disko jartzaileen saioa gaur eta bihar Ziripot tabernan**

Gaur, egubakoitza, DJ Balza arituko da. Bihar, zapatua, DJ Dubby.

Biak ala biak 23:00etatik aurrera

ARRASATE

**> Hudson Falcones taldeak emanaldia egingo du gaur**

AEBetako taldeak Aggressive Combat arrasatearrekin batera egingo du emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, gaztetxean,

ARRASATE

**> Piano eta biolontxelo emanaldia bihar, zapatua**

Josu Okiñena piano-joleak eta Razvan Suma biolontxelo-joleak egingo dute emanaldia. III. Musikaldiaren barruan dago saioa.

20:00etan, Kulturateko areto nagusian.

ARRASATE

**> Goikobalu abesbatzak saioa egingo du domekan**

Tirri Tarra eta Sotto Voce Orkestrarekin batera egingo dute emanaldia arrasatearrek. III. Musikaldiaren barruan dago saioa.

20:00etan, Amaia antzokian.

## Erakusketak

BERGARA

**> Daniel Txopitearen margo erakusketa**

Daniel Txopitea (1950-1997) Eibarko Gorutz taldearen sortzaileetako bat izan zen 1970eko hamarkadan eta Oteitzaren inguruko mugimenduari lotutako ibilbidea izan zuen. Martitzenetik domekara dago ikusgai.

Aroztegi aretoan apirilaren 15era arte egongo da ikusgai.

ESKORIATZA

**> Jose Mari Zenitagoiaren margo erakusketa**

Eskoriatzako margolariaren *Aurpegi indartsuak* izenburuko erakusketa ikusteko azken egunak ditugue.

Inkernu tabernan, martxo bukaera arte.

## Hitzaldiak

OÑATI

**> Txirrindularitzaren gaineko mahaingurua**

Txantxiku ikastolaren 40. urtemuga ospatzen ari dira. mahainguru hori ere ospakizun ekitaldien barruan antolatu dute. Hizlariak izango dira, besteak beste: Jon Odriozola, Iban Velasco, Iban Iriondo, Unai Etxeberria, Marino Lejarreta eta Andres Gandarias.

PROPOSAMENA

BERGARA

**> Erramu Zapatuko feria egingo dute bihar**

Feria handia egingo dute bihar, zapatua, goiz partean Bergaran. Abelburuak, Eusko Labeleko produktuak, makinaria eta artisau-postuak egongo dira ikusgai erdiguneko kaleetan barrena. Horrekin batera, talo postuak ere egongo dira. 17:30ean, umeendako jokoak egingo dituzte San martin plazan eta 22:30ean, bertso jaialdia, Udal pilotalekuan. Parte hartuko dute Egaña, Paya, Elortza, Iturriaga, Maia eta Lujanbio bertsolariek.

09:30etik aurrera izango da azoka erdiguneko kaleetan.



Gaur, egubakoitza, 19:00etan, Santa Ana antzokian.

ESKORIATZA

**> 19/98 makroprozesuaren gaineko bideo-dokumentala**

Auzia auzi delako bideo-dokumentala eskainiko du Aitzorrotz Kultur Elkarteak.

Apirilaren 3an, 22:00etan, Inkernun.

## Lehiaketak

OÑATI

**> Oñatiko IV. Bertsolari Txapelketako finala bihar**

Beñat Alberdi, Egoitz Aizpuru, Joseba Lasagabaster, Andoni Goitia, Josu Igartua eta Iñaki Olalde arituko dira lehian.

Arrano tabernan, 18:00etan.

BERGARA

**> Koldo Eleizalde Lehiaketaren 22. ekitaldia**

Bertso eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte, eta horiez gain ipuin eta antzerki lehiaketak izango dira.

Argibideak Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943 77 91 79 zenbakian.

OÑATI

**> Arrasate-Oñati lasterketako kamisetarako lehiaketa**

Laixan euskara elkarteak Arrasate-Oñati lasterketaren kamisetarako diseinu lehiaketa deitu du: marrazkiak bi koloretan izan behar du gehienez eta *XXV. Arrasate-Oñati lasterketa* eta *Jantzi kirola euskaraz* leloak gehituko zaizkio marrazki aukeratuari. Irabazleak 150 euro jasoko ditu eta lanak entregatzeko epea apirilaren 15ean bukatuko da.

Argibide gehiago Laixan elkartean, 943 71 63 11 zenbakian.

## Ospakizunak

OÑATI

**> Akelarrea egingo dute gazte asanbladako kideek**

Eguerdian, 13:00etan, plazatik abiatuta erromesaldi ateoa egingo dute Sandaili kobaraino. 17:00etan, jokoak egingo dituzte eta 22:00etan, akelarrea. Oñatiko Gazte Asanbladak antolatu du.

Apirilaren 5ean, eguena.

## Ikastaroak

BERGARA

**> Euskal dantzen ikastaroak maiatzera bitartean**

Jardun elkarteak eta Abarka dantza taldeak euskal dantzen ikastaroak abian jarri dituzte. Ikastaroak maiatzera bitarteko martitzenetan izango dira, Aranzadi ikastolan.

Izenematea Jardun elkartean, 943 76 36 61 zenbakian.

**nire aukera**



Mireia Larrañaga
Goienako arduradun komertziala

## Aste bukaera lasaitzeko da

Bariku iluntzean kontzerturen bat ikustea du gustuko Mireia Larrañagak: "Lagunekin elkartu eta aste bukaerari hasiera ona emateko". Zapatuan lo egitea atsegin du, "asteko nekea kentzeko". Arratsaldean, indar berrituta, lagunekin batu, buelta bat eman, lasai afaldu eta... "gero gerokoak, inongo presarik gabe".

Domekan mendi buelta egitea gustatzen zaio: "Oso goiz jaiki barik, bi bat orduko ibilaldia egiten dut, eguraldi ona egiten duenetan ogitartekoarekin". Arratsalderako planik onena, berriz, talasoterapia zentro bat dela dio.

**Bergarako Udal Musika Bandako kide izanik, zuen kontzertuetako bat entzutera joatea plan ona izango da, bada?**
Jakina. Gainera, bandaren sorreraren 175. urtemuga ospatzen ari gara eta Bergarakoaz gain, beste herri batzuetakoak entzuteko aukera ere izan dugu. Apirilaren 22an, esaterako, Tolosakoa etorriko da. Bestalde guk Pazkoetan egingo dugu hurrengo emanaldia, izan ere, diskoa prestatzen ari gara eta maiatzean hasiko gara grabatzen.

**Aste Santu atarian gaude. Debagoieneko zer gomendatuko zenieke etorriko diren turistei?**
Kultura eta natura ondasun handia dugu. Gomendatuko nieke Oñati, Bergara, Arantzazu eta Urbia ezagutzea.

**Eta zuk ze plan duzu?**
Granadara joango naiz Pazko Astean. Ezagutzen dut, baina bigarren bisita merezi duela uste dut.

# Zinema

### ELGETA
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**El Laberinto del fauno**
Eguaztena: 21:30.

### BERGARA
**AGORROSIN**

**Obaba**
Zapatua: 17:00, 19:00, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:00.

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Banpiro txikia**
Domeka: 17:00

### ARETXABALETA
**UDALETXE ZAHARRA**

**Film laburren zirkuitua**
Egubakoitza: 22:00.
Loramendi Euskara elkarteak antolatutako emanaldia

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**Eutsi**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**El corral, una fiesta muy bestia**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**PORTU TABERNA**

**Barrio**
Domeka: 21:00.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Descubriendo a los Robinsons**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Un punete hacia Terabithia**
18:00, 20:00, 22:30.

**El ultimo rey de Escocia**
20:00, 22:30.

**Revelion en la isla**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

**La vida de los otros**
17:00, 19:45, 22:30.

**The messengers**
17:00, 18:30, 22:30.

**Regreso al infierno**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 20:15, 22:30.

**300**
17:30, 20:00, 22:30.

**Eutsi!**
18:45.

**Llach: la revolta permanent**
18:45, 22:30.

**Hannibal: el origen del mal**
18:30.

**Descubriendo a los Robinsons**
18:00, 20:00, 22:30.

**El último show**
20:00, 22:30.

Aste bukaerako programazioa.

**FLORIDA-GURIDI**

**El jefe de todo esto**
19:45.

**El misterio de Ginostra**
17:00, 22:30.

**Atlas de la geografía humana**
18:45, 22:30.

**El velo pintado**
17:30, 20:00, 22:30.

**Tara road**
17:00, 20:45.

**Days of glory**
17:30, 20:00, 22:30.

**Diario de un escandalo**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Madrigal**
17:30, 20:00, 22:30.

**Fundido a negro**
17:30, 20:00, 22:30.

Aste bukaerako programazioa.

**ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

**Descubrinedo a los Robinsons**
16:00, 18:15, 20:30. 23:00.

**Regreso al infierno**
16:00, 18:15, 20:30. 23:00.

**Epic movie**
16:00, 18:15, 20:30. 23:00.

**300**
16:00, 18:15, 20:30. 23:00.

**Un puente hacia Terabithia**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**El síndrome Svensson**
23:00.

**El laberinto del fauno**
16:00, 18:15.

**Diamante de sangre**
19:00, 23:00,

**Noche en el museo**
16:00, 18:15.

**Infiltrados**
16:00, 19:00, 23:00.

**Azur y Asmar**
16:00.

**Hannibal: el origen del mal**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Aste bukaerako programazioa.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Descubriendo a los Robinsons**
12:15, 16:45, 18:00, 20:10, 22:20, 00:20.

**Diario de un escandalo**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Las vacaciones de Mr. Bean**
12:15, 16:45, 18:00, 20:10, 22:25, 00:30.

**The Messengers**
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:50.

**Hannibal: el origen del mal**
18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

**Ciudad del silencio**
20:05, 22:25, 00:45.

**El motorista fantasma**
22:30, 00:50.

**Diamante de sangre**
12:15, 16:30, ,19:15, 21:55, 00:35.

**Un puente hacia Terabithia**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20.

**300**
Egubakoitz eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:30, 21:00.

**Noche en el museo**
12:15, 15:55.

**Infiltrados**
19:00, 21:45, 00:35.

**Happy feet**
12:15, 16:25, 18:25.

**Arthur y los Minimoys**
12:15, 16:30, 17:25.

**El Ratoncito Perez**
12:15, 16:05, 18:05.

**Epic movie**
20:40, 22:40, 00:40.

**El velo pintado**
19:20, 21:45, 00:15.

**Azur y Asmar**
12:15, 15:30, 17:15.

**Norbit**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD.**

**Descubriendo a los Robinsons**
12:00, 16:45, 18:00, 20:10, 22:25, 00:30.

**Las vacaciones de Mr. Bean**
12:10, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Diario de un escandalo**
12:00, 16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 00:30.

**The Messengers**
12:00, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Epic movie**
12:10, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**Rebelión en la isla**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

**El velo pintado**
22:15, 01:00.

**Un puente hacia Terabithia**
12:00, 16:00, 18:05, 20:10.

**Hannibal: el origen del mal**
12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

**300**
12:00, 15:40, 18:00, 20:20, 22:45, 01:00.

**Diamante de sangre**
18:00, 22:00, 01:00.

**Norbit**
12:00, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 01:00.

**En busca de la felicidad**
19:30, 22:00, 00:30.

**Noche en el museo**
12:10, 17:00.

**El concursante**
12:10, 16:00.

**Babel**
22:10, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Bosque de sombras** ***
Euskal Herria-Frantzia-EB, 2006. Zuzendaria: Koldo Serra. Aktoreak: Gary Oldman, Virginei Ledoyen, Aitaja Sanchez-Gijon, Lluis Homar.
98 min.
Inkomunikazioa da filmaren ardatza. Euskal Herrira ehizatzera doazen senar-emazte ingeles batzuen arteko inkomunikazioa, heziketa eta maila sozial ezberdinetako pertsonen artekoa, baita etxe bakartuetan edo giltzapean bizi direnen arteko inkomunikazio fisikoa ere.

**Diamante de sangre**
AEB, 2006. Zuzendaria: Edward Zwick. Aktoreak: Leonardo di Caprio, Jennifer Connelly.
142 min.
Solomon diamante meatoki batean lan egitea behartuta dago, eta haren semea bahitu eta soldatu bihurtu dute. Harribitxi bat aurkituko du egun batean Solomonek. Aecher trafikatzaileak hori jakiten duenean, haren atzetik joango da, kazetari estatubatuar batekin.

**Cartas desde Iwo Jima** ****
AEB, 2007. Zuzendaria: Clint Eastwood. Aktoreak: Ken Watanabe, kazunari Ninomiya
141 min.
1945. urteko otsailaren 19a. AEBetako tropak Iwo Jimara iritsi dira. 40 eguneko borrokan, 6.000 estatubatuar eta 21.000 japoniar hil ziren. Tadamichi Kuribatashi teniente jeneralak porrot egin eta uhartea galduko du. Japoniarren Ikuspegia jaso du Clint Eastwoodek.

**Manuale d'amore 2**
Italia, 2007. Zuzendaria: Giovanni Veronesi. Aktoreak: Monica Belluci, Elsa Pataky.
120. min.
Irratsaio baten bitartez pertsonaia hauek ezagutuko dituzte ikusleek: Fisioterapeuta batekin obsesionatuta dagoen gazte bat, ama izateko *in vitro* ernalketa erabiliko duen emakume bat, bikote homosexual bat eta pasioa berriro deskubrituko duen 50 urteko gizon bat.

**Babel** ****
AEB, 2006. Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Iñarritu. Aktoreak: Brad Pitt, Cate Blanchett, Gael Garcia Bernal, Elle Fanning, Koji Yakusho, Adriana Barraza, Rinko Kikuchi.
142 min. Drama. 13 urtetik gorakoendako.
Estatu Batuetako bikote bat Marokon dagoela gertakari larri batek gertakizun katea ekarriko du. Gertakizun kate horrek lau kontinentetako familia banarengan eragingo du. Jatorri eta kultura oso ezberdinetakoak badira ere, laurek ondorio bera aterako dute: familia da benetako kontsolamendua.

**Miss Potter** * *
AEB-EB, 2006. Zuzendaria: Chris Niconan. Aktoreak: Renee Zellweger, Ewan McGregor.
92 min.
Beatrix Potter idazle arrakastatsua izan zen. Horrez gain, bere independentziaren alde borrokatu zen Ingalaterra victoriar kontserbadorean. Editorearekin amodiozko istorioa ere izan zuen.

**En busca de la felicidad** *
AEB, 2006. Zuzendaria: Gabriele Muccino. Aktoreak: Will Smith, Thandie Newton.
117 min. Adin guztietarako.
Afera ekonomiko korapilatsu batzuen ostean, Chris langabezian geldituko da, eta dirurik gabe. Bikotekideak ere utzi egingo du. Orduan semea zaintzen gelditu beharko du, eta baliabide ekonomikorik eza maitasunarekin ordezkatu.

**Infiltrados** *****
Alemania-Frantzia-Espainia, 2006. Zuzendaria: Tom Tykwer. Aktoreak: Dustin Hoffman, Ben Whishaw, Alan Rickman.
147 min. 18 urtetik gorakoendako.
Paris, XVIII. mendea. Jean-Baptiste Grenouillek mundua usaimenaren bitartez ikusten du. Amestutako lurrina lortzeko ezagutzak izango ditu, gainera. Hainbat emakumezkok dute lurrin preziatu hori.

**Noche en el museo** **
AEB, 2006. Zuzendaria: Shawn Levy. Aktoreak: Ben Stiller, Carlan Cugino, Dick Van Dyke.
108 min.
New Yorkeko zientzia naturalen museoan segurtasun zaintzaile lanean hasi behar du Larry Daleyk. Lanean hasten den gauean, eraikineko animaliek, argazkiek eta estatuek bizia hartuko dute.



## El último show ***

**Zuzendaria:** Robert Altman.
**Aktoreak:** Kevin Kline, Meryl Streep, Garrison Keillor.

Duela hilabete gutxi Robert Altman (*M.A.S.H., Los vividores, Nashville, Vidas cruzadas, El juego de Hollywood, Gosford Park*) mundu honetatik joan zen, eta orain iritsi da gure pantailara *El último show* hark zuzendutako azken filma. Antzerki gela batean zuzenean egiten zen irratsaio baten azken emanaldia -eszenan eta eszenatik kanpo gertatzen dena- erakusten zaigu. Denak ukitu nostalgiko bat du: irratiko iragarkiak, abesti countryak, desagertzen ari den garai baten kontakizuna, baina hori bai, tristezian erori barik.

Filmean inprobisazioaren kutsua nabarmentzen da, eta ezaugarri horretan datza lan honen xarma handiena: aktore egoki batzuek musika countrya abesten ( Meryl Streepek oso ondo defendatzen da kantari bezala), pertsonaia bakoitzaren harremanak eta istorio txikiak filmaketan garatzen joan direla, hau da, zuzendari gidoilari eta aktoreen artean sortutakoak direla ematen du, eta ezaugarri horiek *El último show*-ri freskotasun sentsazioa handia ematen diote.

Abestiek, osagai fantastikoek, mundu artistikoarekiko hurbiltze maitekorrak, eta zuzendariaren azken lanaren aurrean gaudela jakiteak xarma berezi bat ematen diote film xume honi. Egia da istorioen egoera eta eszena batzuk ez daudela gehiegi landuak (Tommy Lee Jones edo Lindsay Lohanen pertsonaiak bide erdian geratzen dira), baina ikusleok zinema gelatik irteterakoan, Altmanek bere agurreko lanarekin, eta bere filmatzeko moduari fidela izaten, gozatu egin zuela sentituko dugu.

**Antonio Zabala**

BIDAL EZAZU "LAS VACACIONES DE MR BEAN" filmaren sarrera, zure datu pertsonalekin batera (Izen eta abizenak, helbidea eta telefonoa) honako helbidera:

GRUPO ABACO (Dpto. Marketing) C/Juan de la cierva, 12, 46980
Parque Tecnologico Paterna (Valencia)

ETA 4 PERTSONENTZAT KOSTA URDINERA (Dena barne)
BIDAIA BATEN ZOZKETAN SARTU AHAL IZANGO ZARA.

ÁBACO BOX

Jakinean nago eta baimentzen dut, lortuko diren datu pertsonalak, zozketaren irabazleak jakiteko bakarrik erabiliko direla. Horren ostean, datu hauek deuseztatu egingo dira. Beste helburu batzuetarako ezin izango dira erabili, eta datuen fitxategi informatizatuetara ere ezin izango dira erantsi. Ikus ezazu, promozioaren oinarriak http://www.cinesabaco.com web orrian.

Hondamendia badator
LAS VACACIONES DE MR. BEAN
MARTXOAREN 30EAN ZINEETAN
www.mr-bean.es



**Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-03-30

# Gomiztegiko gazta, saritua

**SARIA** World Cheese Awards lehiaketan zilarrezko domina lortu du Arantzazuko Gomiztegi baserrian egiten den gaztak

**MUNDU OSOKO GAZTAK** Londreseko ferian mundu osoko 2.000 gazta ezberdin ziren lehian

**KOOPERATIBA** Urtean 8.000 kilo inguru gazta ekoizten ditu iaz eratutako Gomiztegi Kooperatiba Elkarteak

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Londresen ospatu berri den World Cheese Awards lehiaketan zilarrezko domina lortu du Arantzazuko Gomiztegi baserrian egiten den gaztak. Idiazabal Jatorrizko Deitura duten gaztak lehen aldiz lehiatu dira gazten *oscarretan* eta guztira 12 domina ekarri dituzte Euskal Herrira. Londresetik bueltan, Nikolas Segurola fraidea pozez gainezka dago: "Askotan ibili da Idiazabalgo Deitura txapelketan parte hartu nahian eta gauza handia da lehen aldiz joan eta 12 domina lortzea: urrezko hiru, zilarrezko lau eta brontzezko beste bost. Ez zeukaten gure gaztaren berri eta epaimahaian ziren 22 lagunek zera nabarmendu zuten: garraztasun eta goxotasunaren arteko oreka. Epaimahaian ez zen euskaldunik eta meritua du gure gaztaren defendatzaile barik horren emaitza ona eskuratzeak. Lorpen kolektiboa da, Idiazabalgo gazta ezagutzera emateko lagunduko duena. Australiatik ere gazta eske hasi dira orain...".

Segurolarekin batera, Gomiztegi Kooperatiba Elkarteko kide den Ekain Murua izan zen Londresen. Arantzazuko fraideek, Mendikoik eta Diputazioak ekin zioten Gomiztegiko gazta egiteari eta udazkenean eratu zuten Kooperatiba. Urtean 8.000 kilo gazta ekoizten dituzte; larrean ibilitako ardiek esnea ematerakoan duten berezitasuna azpimarratzen du Segurolak.

**MUNDU OSOKO GAZTAK**

Londreseko ferian mundu osoko 2.000 gazta ezberdin ziren. "Berde-berdeak, behi esnearekin egindako yogur bezalakoak... eta txarrak ere bai tarteka", dio Segurolak. "Oso harrera ederra egin ziguten eta oso pozgarria izan zen Rafa Uribarren baserritarren diputatu arrasatearra gurekin izatea". Uribarrenek jatetxe libanoar batera gonbidatu zituen Segurola eta konpainia. Postrean baina ez zuten gaztarik eskatu: "Primeran afaldu genuen baina ezin dizut esan postrea zer zen. Dena oso gozoa zegoela bai...".




**ZILARREZKO DOMINA** Ekain Murua eta Nikolas Segurola zilarrezko domina eta diploma jasotzen, Londresen. GOIENKARIA

## ahobero

### "Kafe batek gaur egun zenbat balio duen dakidan? Noski. 80 zentimo inguru"

**Jose Luis Rodriguez Zapatero**
> Espainiako presidentea

Presidente izatearen abantailetako bat hori da: kafea hartzerako orduan batek edo besteak gonbidatzen zaituela. *Tengo una pregunta para usted* TVE-1eko saioan agerian geratu zen presidentea eta izar bilakatu da galdera egin ziona: Juan Cerdan nafarra.

## iturri onetik

### Eskola arteko bertso txapelketako finala Bergaran jokatuko da, ekainean

Eskola arteko bertso txapelketako finala Bergaran jokatuko da aurten. Ekainaren 1ean Udal Pilotalekuan jokatuko da. Azken urteotan Kilometroak jaia ospatzen den herrian jokatu izan da eskola finala; urrian Kilometroak Bergarara etorriko denez, aurretik bertsolari gazteak hartuko ditu Bergarako Udal Pilotalekuak. Kanporaketak maiatzaren 4an hasiko dira, Andoainen.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Zabala errektorea

Eskola Politeknikoan ikasle zela ezagutu nuen Josu Zabala (atzo goizean) eta, gero, Uriben auzokide izan ginen denbora batez. Ez dut esango sakon ezagutzen dudanik, baina bai bere dohain batzuk aipatzeko beste: tratuan atsegina da, euskararen zale, eta –nik dakidala ekimentsu ere bai.

Beste bat da, ordea, bereziki azpimarratu nahi diodan ezaugarria: Josu ekosistemakoa da, etxekoa. Azkoitian jaio arren, kooperatibetan egin da; beraz, oso barrutik eta aspaldidanik ezagutzen ditu taldearen tripak. Badaki non, zer, nola eta norekin. Eta hau ez da txantxetako kontua, hain egitura berezian eraginkor izateko.

Sistema itxiegia izan ez dadin, odol berria komeni daiteke tarteka. Baina, MUko errektorea, etxekoa. Josu bezala.

## ai, ene!



### Aireportuetako kontrolak gaindituko ditu?

Petakak modaz kanpo geratu omen dira. Orain zera da modernoa: sandalia barruan eramatea whiskia edo dena delakoa.

http://tinyurl.com/25nddc

